Neurriak egiterakoan VOTa neurtu dugu. Nola leherketa barra sarritan argi ez den agertzen, ahostuneren kasuan bereziki, halatan deliberatu genuen dardar periodikoa hasten denetik bokalaren formakinak egonkor bihurtzen direnerainoko zatia neurtzea. Ahoskabeen kasuan modu berean egin genituen neurketa guztiak.


Soinu bakoitzerako adibide baten ahots-uhina eta espektrograma ematen ditugu bigarren eranskinan, lan honetako bukaeran.

4. Emaitzak

Esperimentuaren emaitzak aurkezteko lehendabizi eurok herriz herri nola gauzatu diren ikusiko dugu, herri bakoitzerako hiztun bakarra dugularik. Emaitza guztiak milisegundotan adierazirik emango ditugu.


Gamere (denetara 64)

	Batezbestekoa	Desbiazioa	Kopurua	Rangoa
b	-123	13	9	104-142
d	-116	23	6	74-137
g	-109	14	7	92-128
p	22	5	10	14-30
t	20	4	4	14-24
k	21	2	5	18-24
ph	65	12	9	52-88
th	63	8	5	54-76
kh	80	11	9	68-99




Eskiula (denetara 86)

	Batezbestekoa	Desbiazioa	Kopurua	Rangoa
b	-78	14	13	56-99
d	-66	10	10	54-84
g	-63	12	11	50-87
p	20	5	11	15-33
t	22	5	7	15-29
k	28	6	5	23-39
ph	58	12	11	41-79
th	55	7	8	45-70
kh	70,5	11	10	46-84


**Barkoxe (denetara 79)**

	Batezbestekoa	Desbiazioa	Kopurua	Rangoa
b	-121	21	13	86-150
d	-115	10	6	98-124
g	-126	19	13	99-162
p	17	5	12	10-25
t	20	1	5	18-21
k	22	4	6	15-26
ph	60	10	9	51-79
th	78	7	6	68-91
kh	92	12	9	77-114



Ürrüxtoi (denetara 73)


	Batezbestekoa	Desbiazioa	Kopurua	Rangoa
b	-84	12	13	62-102
d	-122	16	5	101-150
g	-106	18	13	74-143
p	21	6	9	12-29
t	33	6	4	24-38
k	38	6	5	33-49
ph	60	7	10	50-76
th	72	11	5	56-85
kh	90	12	9	64-106




Emaitzak orotara ikusirik honako taula hau osa dezakegu:

Batezbestekoa		Batezbestekoa	
b	-102	th	67
p	20	g	-101
ph	61	k	27
d	-105	kh	83
t	24		

Sailka hartzen baditugu, ahostunen kasuan honako grafika hau osa dezakegu:



Ondoko grafikan, berriz, ahoskabe hasperendunak eta hasperengabeak batera ikus daitezke:



5. Ondorioak



Ahostunen emaitzak bazter utzita, aurreko ataleko taulen azterketatik atera dezakegun ondorioak nabarmenena hasperendunen VOTa kasu guztietan hasperengabeena baino aisa luzeagoa izatea da. Proporzioak honako hauek dira: ph %33, th %35 eta kh %33.

Lisker & Abramson-ek bereizkuntza hirukoitza duten bi hizkuntza aztertu zituzten, ekialdeko armeniera eta thailandiera. Hizkuntza hauen emaitzak eta guk lortu ditugunak oso antzekoak dira. Ondoko taulan batezbestekoak erkatzen ditugu hiru hizkuntzetan (thailandierak ez dauka /g/ fonemarik). Konparaketarako Lisker & Abramsonen Puerto Rico-ko gaztelaniaz aurkitu zituzten VOT datuak ere ematen ditugu:

	Zuberera	E. armeniera	Thailandiera	PR gaztelania
b	-102	-96	-97	-110
p	20	3	6	4
ph	61	78	64	—
d	-105	-102	-78	-109
t	24	15	9	7
th	67	59	65	—
g	-101	-115	—	-92
k	27	30	25	25
kh	83	98	100	—

Diferentziarik nabarmenena /p/ eta /t/ fonemetan aurkitzen da. Hauek zubereraz beste hizkuntzetan baino VOT luzeagoa dute. Bestela, lau hizkuntzen emaitzak nahikoa antzekoak dira.

Ahoskabeen kasuan, bai hasperendunetan bai hasperengabeetan, zenbat eta atzerago ebaki orduan eta VOTa luzeagoa dela ere atera dezakegun beste ondorio bat da. Jarraian ematen ditugun grafiketan desberdintasun hori argi ikus daiteke:



Ondorioz, zubererak hiru herskari mota ditu. VOT-aren bidez argi eta garbi bereizten dira hirurak. Bereizkuntza oposaketa hirukoitza duten beste hizkuntza batzuetan bezain garbia da.


Lana amaitu baino lehen hurrengo lanetarako proposamen batzuk egitea gelditzen zaigu. Batetik interesgarri ikusten dugu bokalen arteko herskariak aztertzea eta zubereraren gainerako barietateetan antzeko azterketa batzuk egitea, izan ere, hemen aukeratu ditugun herriak eskualde batekoak dira. Bestetik, gainerako euskalkien, lapurtera eta behe nafarrera, egoerak aztertzeari ere interesgarri deritzogu.

1. Eranskina


Lan hau burutu ahal izateko erabilitako hitz guztien zerrenda:

bágo	báhe	bákhe	bégi	béhi
béle	béltz	bérde	bíde	bíhi
bíhotz	bóhor	bórda	búha	búü
dállá	dállü	dántza	débrü	déithü
déitzez	déuse	dúda	dünda	gáar
gai	gaitz	gáiza	gáltha	gálttho
gar	gáthü	gatz	gázte	gézi
gézür	gízon	gor	górri	gúine
kánpo	kárga	kárta	káska	kénte
khánba	khánta	khárrok	khe	khéñü
khéta	khímer	khínber	khínper	khíño
khóntü	khórda	khórpitz	khúnta	khúntü
khúrlo	khútxe	kólpe	kúska	pága
pháke	phárte	phéntsa	phéña	phéska
phésü	phézü	phíko	phíno	phíper
phórrü	phünta	phúnta	phúntsü	phútzü
píkhor	pínta	pípa	púnta	púrga
tábal	tánta	táza	téka	télla
tháza	théka	théyü	thíña	thónba
thórpe	thúnba	thü	tjéta	tótzo


2. Eranskina




/bégi/




/pípa/




/phíno/




/dúnda/




/tella/




/thü/



/gézür/



/kánpo/



/khe/

Aipamen bibliografikoak

- KEATING, Patricia, 1984: «Phonetic and phonological representation of stop consonant voicing», *Language* 60, 286-319.
- FLEGE, James E., 1982: «Laryngeal timing and phonation onset in utterance-initial English stops», *Journal of Phonetics* 10, 177-192.
- LAFON, René, 1958: «Contribution a l'étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)» In Diego CATALÁN (arg.), *Miscelánea homenaje a A. Martinet*, 2. lib., 77-106. La Laguna, Tenerife: Univ. de La Laguna.
- LARRASQUET, Jean, 1939: *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*. Paris.
- LISKER, Leigh & Arthur ABRAMSON: «A cross-language study of voicing in initial stops: acoustical measurements», *Word* 20, 384-422.
- WILLIAMS, Lee, 1976: «The voicing contrast in Spanish», *Journal of Phonetics* 5, 169-184.

ABSTRACT

Suletin stops: an acoustic study.

Some northern varieties of Basque possess three series of plosive or oral stop consonants: voiced /b d g/, voiceless unaspirated /p t k/, and voiceless

aspirated /ph th kh/. Among the languages of Europe, Basque seems to be unique in presenting this three-way opposition (although a similar contrast was found in Ancient Greek and it is not unusual in other parts of the world). For this reason, it is important to document this phonological contrast; even more so since the dialects that maintain this contrast (which is believed to have been much more general in Basque in the past) appear to be in serious danger of extinction. For the study reported here, data were collected from 4 male speakers of Zuberoan (or Souletin), the easternmost Basque dialect, using a high-quality digital recorder. The data were then analyzed using a computerized speech analysis system, Ahotsa (developed by I. Hernaez). Voice Onset Time (VOT) measurements were taken, since this acoustic dimension has been proven to have an excellent correlation with voicing and aspiration in many languages. The results agree with those that have been reported for other languages with a similar three-way contrast. In utterance-initial position, /b d b/ are prevoiced (negative VOT), /p t k/ present a short lag (VOT around 20 ms) and the aspirated segments /ph th kh/ show a much longer lag (average VOT between 60 and 80 ms, depending on the place of articulation of the consonant). For both voiceless series, VOT duration increases with retraction of the place of articulation, so that it is longest for the velar and shortest for the bilabial. The four speakers, who are from different towns (Ganbe, Eskiula, Barkoxe and Ürrüxtoi), present very similar results.

Adierazpen-perpausen intonazioa Ispasterko hizkeran

Rosa Gandarias

Sarrera

Komunikazio honetan esaldi enuntziatibo edo deklaratzailen F0aren azterketari ekingo zaio. Izan ere, intonazioa izan da aztergai nagusia baina azentuak ere izan du bere lekua, batez ere corpusaren diseinuan. Lan honetan azentua kontutan hartuko da, hain zuzen ere, esaldien hasieretan eta amaieretan azentu molde ezberdinek nolako F0aren eboluzioa suposatzen duten jakiteko, eta aldagai horrek esaldiaren F0aren eboluzio orokorrean eragiten dutenentz, eta eragina gertatzen baldin bada, nolakoa den jakiteko.

Azentuari dagokionez, hizkuntzen artean, bereiz daitezke azentu finkodun hizkuntzak eta azentu ez finkoa dutenak. Dena den, azkenon artean ere, nabari izaten dira joera nagusiak azentu kokaguneari dagokionez. Joera nagusi horiek kuantitatiboak izaten dira, hau da, joera nagusiak ehuneko gehiengoa suposatzen du lexikoian.

Lan honetan aztertu den hizkeran ere isladatu da holakorik, hain zuzen ere, «azentu laua» bezala izenda daitekeen hori litzateke nagusi. Mitxelenak (1985: 379), euskararen azentu sistemen sailkapena egiterakoan eta I tipoaz ari delarik, modu sinple batez diosku zertan datzan azentu hori:

«Se suele decir que el vascuence es una lengua “sin acento” y, cuando se habla de excepciones, se cita sólo el dialecto suletino. Esta manera de hablar no carece de todo fundamento. [...] en los dialectos centrales y occidentales, es decir, en las variedades más conocidas y más prestigiosas de la lengua, las diferencias de intensidad, altura y duración de unas sílabas a otras son pequeñas y difíciles de percibir.»

Mitxelenak, bere garaian modu inpresionista batez egin zituen baieztape-nak ez daude kontraesanean gerorantzean lortu diren datu akustikoekin.

Metodo inpresionistez jarraituz, oso bitxia gertatzen da mendebaldeko azentu sistema hori aldameneko erromantzeren bateko hiztun bat erreproduzitzen saiatzen denean. Era berean, mendebaldeko azentu sistema horretakoa ez den hiztun bati «bitxi» xamarra egiten zaio azentu sistema horretako hiztuna entzutea.

Holako datuak ez dira berez objetiboak, neurgarriak ez diren heinean, baina indize edo aztarna bezala erabilgarriak gertatzen dira.

1. Aztergaia


Giza ahotsa akustikoki uhin konplexua da. Horrek esan nahi du hitz egiten dugunean, oinarrizko maiztasun edo tonu bat dugula: hitzun bakoitzak berezia du zenbait parametroren arabera (ahoskorden lodiera, luzera, e.a.). Espektrogrametan ikus daitekeen bezala, oinarrizko maiztasunaren gainean beste maiztasun batzuek ere baditugu, beti ere, oinarrizkoaren multiploak.

Bestalde, intonazioari buruzko literatur tradizioan, F0a izan da gehien aztertu den parametro akustikoa eta (energia eta iraupenaren gainera) garrantzi gehien eman zaiona ere. Akustikoki, esaldi baten F0a edo oinarrizko maiztasuna lerro batez isladatzen da, gora-beherak izan ditzakeen lerroa alegia. Irudian ikus daiteke esandakoaren adibide bat.

2. Lanaren mugaketa

Lana mugatzerakoan irizpide bi jarraitu dira:

- a) Bereziki prestatutako datu base bat egin da.
- b) Datu bilketarako puntu geografiko jakin bat hautatu da.



1. irudia

«Ganezka egongo da katedrala» esaldia Ispasterko hizkeran ekoiztua

Ispasterko herria aukeratu da datu bilketa burutzeko. Irudian ikusten den bezala (1. ir.), herri hau Bizkaiko kostaldean dago kokatua, euskalkiz, bizkaieraren barne.

Gamindek (Gaminde, 1995: 25) egindako bizkaieraren azentu sistemen sailkapenaren arabera, doinu-azentudun bariatatearen barruan legoke alegia.

3. **Corpusa**

3.1. *Esaldi motak*

Lan honetan perpaus bakunak izan dira aztergai, hain zuen ere, adierazpen-perpausak hartu dira datu basearen diseinua egiteko.

3.2. *Esaldiak diseinatzeko irizpideak*

Orain arte euskararen intonazioaren inguruan egindako azterketarik gehien-goetan, azentu ez markatuez osatutako esaldiak izan dira aztergai. Lan honetan, esaldiaren hasiera eta amaierako kokagunean behintzat, azentu lexikoak ere jarri izan dira corpusaren diseinua egiterakoan. Irizpide hau FOaren konfigurazioan azentu moldearen arabera aldaketak gertatzen diren, eta gertatuz gero, nolakoak diren jakiteko erabili da.

3.3. *Esaldien luzera*

Adierazpen-perpausen artean luzera ezberdinetako esaldiak diseinatu dira.

Diseinua burutzeko irizpideei dagokionez, sintagmak osatzetik hasi da prozesua. Hiru silabako sintagmak diseinatu dira kasu guztietan: hiru sintagma ezberdin esaldi hasieretarako, eta beste hainbeste esaldi amaieretarako, eta esaldien barne gunea osatzeko beste hiru sintagma diseinatu dira. Azken hauek elkarren ondoan jarriz lortu izan dira luzera ezberdinetako esaldiak. Beraz, luzera ezberdineko hiru esaldi sail egin dira, bakoitza 9 esaldiz osatua. Hona hemen sail bakoitzeko adibide bat:

- a) Anderrek erun dau lagune.
- b) Anderrek berandu erun dau lagune.
- c) Anderrek gaur gabin berandu erun dau lagune.

Goian esan bezala, esaldien hasiera eta amaieretako sintagmak konbinatu izan dira euren artean:

Azentu moldea	Hasierako sintagmak	Amaierako sintagmak
A	Anderrek (o ´ ´)	lagune (o ´ ´)
B	Nagorek (o ´ o)	liburu (o ´ o)
C	Txomiñek (´ o o)	kiwije (´ o o)

Esaldien erdi guneari dagokionez, esaldi sail bakoitzean sintagma bat gehitu izan da. Sail bakoitzaren barnean, erdiguneko sintagma aldagaitza izan da:

- a) erun dau,
- b) berandu erun dau,
- c) gaur gabin berandu erun dau.

Erabili den corpora guztira 27 esaldiz dago hornitua. Jarraian, corpora osatu duten esaldi guztiak emango dira sailez sail bereziak, hau da, hiru sintagmakoak (D3), lau sintagmakoak (D4) eta bost sintagmakoak (D5):

a) *Hiru sintagmako esaldiak (D3).*

- 1. Anderrek erun dau lagune
- 2. Nagorek erun dau lagune
- 3. Txomiñek erun dau lagune
- 4. Anderrek erun dau liburu
- 5. Nagorek erun dau liburu
- 6. Txomiñek erun dau liburu
- 7. Anderrek erun dau kiwije
- 8. Nagorek erun dau kiwije
- 9. Txomiñek erun dau kiwije

b) *Lau sintagmako esaldiak (D4).*

- 10. Anderrek berandu erun dau lagune
- 11. Nagorek berandu erun dau lagune
- 12. Txomiñek berandu erun dau lagune
- 13. Anderrek berandu erun dau liburu
- 14. Nagorek berandu erun dau liburu
- 15. Txomiñek berandu erun dau liburu
- 16. Anderrek berandu erun dau kiwije
- 17. Nagorek berandu erun dau kiwije
- 18. Txomiñek berandu erun dau kiwije

c) *Bost sintagmako esaldiak (D5).*

- 19. Anderrek gaur gabin berandu erun dau lagune
- 20. Nagorek gaur gabin berandu erun dau lagune
- 21. Txomiñek gaur gabin berandu erun dau lagune
- 22. Anderrek gaur gabin berandu erun dau liburu
- 23. Nagorek gaur gabin berandu erun dau liburu
- 24. Txomiñek gaur gabin berandu erun dau liburu
- 25. Anderrek gaur gabin berandu erun dau kiwije
- 26. Nagorek gaur gabin berandu erun dau kiwije
- 27. Txomiñek gaur gabin berandu erun dau kiwije

Ikusten denez, esaldien luzera erdigunean sintagmak gehituz lortu da.

Azentu moldeak direla eta, esaldien aurreneko eta amaierako sintagmetan hiru azentu molde ezberdinak erabili dira; barnekoetan, ordea, azentu eredu bera mantendu da kasu guztietan.



2. irudia

(Gaminde, 1995, *Bizkaieraren Azentu-Moldeez*, Bilbao: Labayru, 25. or.)

4. Berriemaileak

Erabili den datu basea 4 hiztunengandik jaso da irakurketaren bidez, berriemaile bakoitzak corpus osoa ekoiztu duelarik. Berriemaileen hautaketan jarraitu diren irizpideak honako hauek izan dira:

- a) Euskaldun zaharrak.
- b) Jatorriz, Ispasterkoak.
- c) Gizonezkoak.
- d) Adinez, 22tik 27 urtera bitartekoak.
- e) Lanbide Heziketa egindakoak eta euskara asignatura bezala izan dutenak.

5. Deskribaketa: azterketa guneak

Berriemaile ezberdinen ahots ezaugarri ezberdinak direla eta, lortutako datuak erkatzeko moduan jartzeko, normalizazioa burutu da:

$$\frac{X \text{ neurketa puntuaren balore absolutoa}}{\text{Lehenengo neurketa puntuaren balore absolutoa}}$$


Zatiketa honen ondoren, neurketa puntu bakoitzean lortu diren balore erlatiboak 100ez biderkatu dira balore erlatibo berriak Hz-etan jartzeko. Era honetara, esaldi guztien hasierako balore normalizatua 100 Hz-ekoa izan da edozein esalditan.

Erabilitako normalizazio metodoak ez ditu jaso esaldien hasierako F0 maila absolutuak esaldi ezberdinetan. Horren arabera, emaitzen eztabaidan kontutan izango da alderdi hau ere.


Aztertu diren esaldi gunek honako hauek izan dira:

5.1. Esaldiaren hasierako sintagmaren lehendabiziko gailurra


Puntu honetako aztergaia F0aren konfigurazioa izan da. Esaldien hasierako sintagmen hiru azentu moldeen artean desberdintasunak aurkitu dira: A (azentu gabea), B (azentu lexikoa bigarren silaban), eta C (azentu lexikoa lehen silaban) (ik. 3.3). A ereduaren kasuan (3. ir.), F0 konfigurazioak gorantz egin du maiztasunean sintagman zehar. B erudian (4. ir.) sintagmako bigarren si-



3. irudia



4. irudia



5. irudia

labak izan du maiztasunik altuena. Azkenik, C ereduari (5. ir.) maiztasunik altuena bigarren silaban aurkitu da.

5.2. Esaldi hasiera absolutuak

Esaldien hasierako lehen neurketa puntuan ere, F0 maila absolutuaa izan da kontuan. Esperimentuan erabilitako hiru azentu eredu ezberdinen arabera sailkatu dira datuak honetan ere.

	D3	D4	D5
A	116 Hz	110 Hz	113 Hz
B	131 Hz	122 Hz	125 Hz
C	144 Hz	140 Hz	143 Hz

Oraingoz esan, joerez hitz egin daitekeela desbideratze estandarrak handi samarrak baitira. Dena den, interesgarriak izan daitezke aurkitu diren erre-kurrentziak:

- A ereduaz hasitako esaldiek markatzen dute maiztasun absoluturik baxuena, eta, aldiz, C ereduaz hasitakoak altuenak.
- Azentu eredu beraz hasitako hiru esaldi luzeera ezberdinak erkatzen badira, aldeak ez dira nabarmenegiak: alderik handienak B ereduari aurkitu dira.

5.3. Foko osteko jauzia

Neurtu den beste gune bat foko osteko jauzia izan da, hartu diren neurketa puntuak honako hauek izan direlarik:

- D3 esaldietan, maiztasun handiena aurkeztu duen silaba eta foko osteko lehendabiziko silaba.

- b) D4 eta D5 esaldietan, foko sintagman maiztasun handiena aurkeztu duen silaba eta foko osteko lehendabizikoa.

Lortu diren zifrak neurketa puntu batetik bestera dagoen aldea adierazten dute. Emaizta positiboa denean F0ak gorantz egiten duela adierazten du. Al-diz, zifra negatiboa agertzen bada, F0aren eboluzioa beheranzkoa dela adierazten du.

Neurketen ondoren, honako datu hauek lortu dira:

	D3	D4	D5
A	-30 Hz	-7 Hz	-11 Hz
B	-31 Hz	-7 Hz	-6 Hz
C	-26 Hz	-7 Hz	-6 Hz


D3 esaldietan foko osteko jauzi hau nabarmenki handiagoa agertzen da D4 eta D5 sailetan baino. Behar bada, azken sail bietan esaldien luzerak izan lezake zerikusirik F0aren jauzia txikiagoa izatearekin.

Bestalde, D4 eta D5 sailen artean ez da aurkitu alde adierazkorrik aztertutako gunean.


5.4. Esaldien amaierako sintagma

Esaldiaren amaieran ere, F0aren konfigurazio ezberdinak izan dira aztergai azentu molde ezberdinen arabera. Esaldiaren posizio honetan ere aurkitu dira ezberdintasunak azentu moldeen arabera (erkatu 3. ir., 6. ir. eta 7. ir.)

Esaldi amaierako F0 konfigurazioetan ez da alderik aurkitu azentu molde beraren barruan, nahiz eta esaldien luzera ezberdina izan. Aurkitu den ezberdintasuna azentu molde ezberdinen artean izan da.



6. irudia



7. irudia

Aurkitu diren emaitzak honako hauek izan dira:

- A azentu ereduan, esaldi amaierako sintagman ez da ia F0aren mugimendurik aurkitu; izan ere, maila bertsua aurkeztu dute neurketa puntutik guztiak.
- B azentu ereduan, lehendabiziko silaba biak ere F0 maila bertsua aurkeztu dute. Aurkitu den alde adierazkorra bigarren neurketa puntutik hirugarrenera izan da. Gune honetan F0ak beherantz egin du 9 Hz-etik (esaldi laburrenatan) 12 Hz-era bitartean (esaldi luzeenatan).
- C azentu ereduaz esan, F0ak beherantz egin duela sintagma osoan zehar. Beherakada hau, ikus daitekenez, progresiboa da eta, neurketen arabera 21 Hz-etik 18 Hz bitartekoa izan da, esaldi luzeagoetan aldea zerbait txikiagoa izan delarik.

6. Eztabaida

6.1. Esaldi hasiera absolutuak

Esaldi hasieran maiztasun maila ezberdinak aurkitu dira. Distribuzioa modu beretsuan eman da azentu molde beraren barruan nahiz eta esaldien luzeerak ezberdinak izan:

Azentu moldea	F0 maila
A	-
B	↓
C	+

F0 maila absolutuak batatzestekotuak desbideratze estandarrekin (deb. est.):

Azentu moldea	D3	D4	D5
A (deb. est.)	116 Hz (25)	110 Hz (30)	113 Hz (35)
B (deb. est.)	131 Hz (20)	122 Hz (26)	125 Hz (33)
C (deb. est.)	144 Hz (22)	140 Hz (26)	143 Hz (36)


Datu hauek ezkerretik eskumara irakurrita, hau da, esaldi luzera ezberdina erkatuz, esan daiteke azentu molde beraren barruan aldeak ez direla izan handiegiak.

Irakurketa goitik behera eginez gero, nolabaiteko joera agertzen da: A azentu moldeaz hasitako esaldiak F0 maila baxuena aurkeztu dute. Aldiz, C azentu moldeaz hasitakoek izan dituzte balorerik altuenak.


Datu hauek kontu handiz erabili behar dira eta joerez soilik hitz egin, desbideratze estandarrak nahiko handiak izan baitira kasu guztietan. Hau dela eta, datu hauek, gehienez ere, azterketa sakonako bat egiteko abiapuntu interresgarria izan daiteke fidagarritasun handiagoa helburutzat izanik. Oraingoz, bere horretan utziz, azpimarratu behar litzateke debideratze estandarrak handiak direla ezer zehatzik esateko esaldien hasierako F0aren mailari buruz.

6.2. Azentuaren gauzatzea esaldi hasiera eta amaieran

Esaldi barruan guneez bereizi behar dira: hasierako sintagma eta amaierakoa. Oro har, esan genezake esaldiaren hasierako gunean, azentuaren gauzatzea gailurrez osatzen den bitartean, esaldi amaieran F0aren beherakada batez burutzen dela, hau da, azentudun silabaren ondoren ematen den behe-



8. irudia



9. irudia

rakadak markatuko luke silabaren azentua. Hau guztia azentu lexikoa duten erduei dagokionez, B eta C ereduak alegia (8. ir., 9. ir.).

Molde azentu gabeari dagokionez ere, esaldi hasierako gunea eta bukaerakoaren arteko F0 konfigurazioak ere deberdintasunak aurkezten ditu: esaldi hasieran hirugarren silabak hartzen du gailurra, esaldi amaieran aldiz, F0a laua agertzen da (ik. 3. ir.)

6.3. Esaldiaren hasierako sintagma

Sintagmaren gailurrak direla eta, esan azentu molde guztietan agertu direla gailurrak (ik. 3. ir., 5. ir., 9. ir.)

Azentu moldea	Gailurraren kokagunea
A	3. silaba
B	2. silaba
C	2. silaba

Esaldi hasieretan aurkitu den beste ezaugarri bat F0aren gailurra eta azentudun silabaren arteko lerraketa eza izan da. Fenomeno hau azentu lexikoa lehen silaban duen azentu moldearekin gertatu da, C eredu alegia.

F0aren gailurra bigarren silabarekin lerratze joera nabarmena aurkitu da. Oharmenaren aldetik, hirtunek azentua lehen silaban kokatzen dute, eta bereizketa oso garbia egiten dute azentu lexikoa bigarren silaban duen moldearekiko. Azentu kokagunea eta F0aren gailurraren lerratze ezaren fenomenoa, C azentu moldeetan eman da eta «peak displacement» du izena. Dena den, nahiz eta gailur mugimendua gertatu azentu molde honetan, posible da azentu lexikodun molde biak F0aren azterketaren bidez bereiztea.

B eta C azentu moldeak begiratu, esan daiteke F0aren konfigurazioan oso antzekoak direla. Baina badago alderik: B azentu moldean, esaldi hasie-

ratik eta lehen gailurrera dagoen F0 igoera bortitzagoa gertatzen da C azentu moldean ematen dena baino.

Gailurra markatzen duen silabatik ondorengora ere aurkitu dira aldeak: F0aren beherakada txikiagoa da B azentu moldean C moldean aurkitu dena baino.


6.4. *Esaldi amaierako sintagma*

Azentu molde desberdinek konfigurazio ezberdina aurkeztu dute. Nola-bait formulatzeko, esan liteke azentua F0aren beheranzko mugimendu batez gauzatzen dela azentu moldeen arabera (ik. 3. ir., 8.ir., 9. ir.).

Azentu moldea	F0 konfigurazioa
A	konfigurazio ia laua
B	konfigurazio laua azentu lexikoraino eta ondoren beherakada
C	F0aren beheranzko mugimendua sintagma osoan zehar

6.5. *Esaldi luzerari buruzko informazioa*



Esaldiaren luzerak badirudi ez duela eraginik hasierako maiztasun maila absolutuan: esaldia luzeagoa izateak ez du hasierako F0aren maiztasunaren altuera aldatzen. Aldeak, esaldi hasieran agertzen den azentu moldeak eragiten ditu gehiago esaldiaren luzerak berak baino.



10. irudia

Hiru sintagmako esaldiak, lau eta bost sintagmakoengandik bereizten duena, esaldi barnean ematen diren F0aren mugimenduak izan dira, batez ere, foko silabatik foko ostera ematen den jauzian.

Literaturan sarritan aipatu izan da aurreplanifikazioaren kontzeptua. Hitz gutxitan, aurreplanifikazioaren arrazoia, hitz egiteko erabiltzen diren ahalmen eta muga fisikoekin lotua legoke.


**11. irudia****12. irudia**

Hizketan, maiztasun eremu mugatu batean mugitzen da hiztuna, batez ere, maiztasun baxuenei dagokionez. Izan ere, badirudi esaldi amaieretako maiztasun mailetan (eta hauek —adierazpen-perpausetan behintzat— esaldi amaieran ematen dira) ez dela muga batetik beherantz egiten. Hiztunak esaldi laburragoak eta luzeagoak egiteko gauza den heinean, maiztasun eremu hori egokitu egiten du nolabait: esaldi luzeagoetan, segmentu gehiago dago esaldi mota beraren F0aren konfigurazio tipoa gordetzeko.


Literaturaren arabera, hiztunak erabiltzen duen mekanismoa, esaldi hasierako maiztasuak igotzea litzateke esaldi luzeagoak ekoizterakoan, esaldi laburragoekin erkatuz; era honetara esaldi amaierako maiztasunak antzera xamar agertuko lirateke esaldi guztietan.

Lan honetan lortu diren datuetan ordea, ez da honelakorik agertu eta ikuspegi honetatik ezin daiteke esan aurreplanifikaziorik dagoenik.


Amaitzeko esan, oraindik gauza asko azterkizun badago ere, F0aren azterketa baliagarri agertzen dela euskararen prosodia eta, batez ere, intonazioaren inguruan argibideak emateko, eta, oro har, euskararen prosodia gero eta hobeto ulertzeko.



13. irudia



14. irudia



15. irudia

Erreferentziak

GAMINDE, Iñaki, 1995: *Bizkaieraren Azentu-Moldeez*, Bilbao: Labayru.

MITXELENA, Koldo, 1985: *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián-Donostia [Publicaciones del seminario Julio de Urquijo].

ABSTRACT

The intonation of declarative clauses in the Ispaster variety of Basque

In this empirical study we analyze the intonation of declarative sentences. We will begin with an acoustic analysis of a previously defined corpus of sentences belonging to the Biscayan town of Ispaster. We have prepared a corpus containing an overall of 27 sentences, divided in three sections: the first nine sentences contain three phrases each and represent variations of a single scheme, obtained by using three different stress patterns in each of the initial and final phrases; the central phrase is maintained invariable. From this selection of simple sentences two new longer sentences are obtained by introducing new phrases sentence-internally: in this way we obtain two more sections containing four and five phrases each.

Our analysis shows that length by itself does not alter the intonation of the sentence, which depends on the stress type of the phrase located in the initial and final position of the sentence. The stress peak in the first phrase depends on the variant we chose: if the chosen word contains a lexical stress in the first or second syllable. The same result is obtained concerning the final phrase: in the case of the stressless word, the intonation pattern is maintained flat; in the case of words with lexical accent, the intonation decays just after the syllable containing the stress.

Gaurko euskal fonetika bidegurutzean: aurrerapenak eta azterkizunak

Pilartxo Etxeberria Murua

Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco

Zer dela eta uste dut honako hau burutik jota dagoela, galdegin didalako zaldibian inoiz elurra egin ote duen edo R. Ordorikak noiz edo noiz musika klasikoa jotzen ote duen?

Zer dela eta uste dut edo pentsatzen dut, honelako eta halako pertsona zeharo jota dagoela, burutik sano ez dagoela, esaten didanean jakituria handia duela baina denborarik ez duela dakiena garatzeko eta azaltzeko?

Horratx! badakit zer dela eta esaten duena esaten duen, ezin du ezkutatu zein urrun dituen hurbilekoak, ingurukoak, besteak oro har, zein urrun bizi den horietatik urrezko dorrean, orojakitun, jaun eta jabe delako ustean.

Sam Shepard

1. Sarrera

Sam Shepard-en zatitxo honek jarri nau gogoeta bidean eta hausnarketa egitean ondorengo pentsamenduak eta galderak dira adieraziko ditudanak. Nire ahalmenak eta ezagupenak mugatuak dira guztiak, pertsonak eta pertsonen zientziak ikusteko/behatzeko/aztertzeke, beste leiho bat edo leihoak zabalduz, bururatu zaizkidanak.

Gero eta maizago entzuten ditugun hitzak dira pertsonen ezinegona, gizartearen aldaketa, kinka larria, ... eta antzeko beste zenbait. Ekonomia kinka larrian dago, beste horrenbeste, heziketa-irakaskuntza, kultura eta baloreak.

Dena den, neure buruari galdegiten diot zer den kinka larrian dagoena: hau da, gizartea, ekonomia, kultura, baloreak daude bere horretan egoera larrian ala nik horiei buruz dudan ikusmoldea da kinkan dagoena? Ezagutzaren ikusmolde klasikoak eta horren ekoizpen-ustiapen-moduak objektibitatearen kontua azpimarratzen du, arazoak askatzeko. Beste zenbait ikusmolde berriagoek berriz, arazoak pertsonak harremanetan/komunikazioan jartzean sortzen direla diote, edo arazoak ikusmolde jakin eta zurrun baten eskutik sortzen direla, eta horiek ikusmoldearen araberrako balore ezberdinak hartzen dituztela.

Badirudi gure kultura ataka estuan sartua dela: gaitz guztiak konpon zitzaireten amonaren garai bateko kontuak amildegitik behera bota ditugu. Egoera hau hizpide harturik, «zaharrago eta beharrago» esaerak bide berriak eskaintzen dizkit, gogoeta gunean ezarriz zein bide xidorrek bultzatu gaituzten honetara, bide berri bila ibiltzeak ausardia eta irudimena eskatzen dute, norantza joan behar dugun pentsatzerakoan eta halaber, estrara ezagungabeak aurkitzean horiek erabidetzen hasteko garaian. Izu-larria sortarazten du berritasunak eta ezagungabe denak, hotzikara ez ezen bildurra diogu berriari, hala ere, nik esango nuke, baitezpadakoa dela bide berriak urratzea azalaren azpian dagoen konplexutasuna ezagutu nahi badugu. Izan ere, geldotasuna, erosotasuna, ohean etzan eta bere horretan gelditzea baina gelditzailegorik ez dago.

XXI. mendearen atariko ezaugarri nabarmeneak labur bilduz, badirudi, horiek heldu zaizkigula batetik, zientzien paradigma berrien eskutik, bestetik, teknologiaren etengabeko iraultzaren ezagupenarenetik, eta azkenik, geure mundu ikuskeratik, hori ere aldatzen ari garelako. Munduarekin pertsonok dugun harremana aldatzen ari garelako eta beharbada, hauek horrela izango dira modernitate, posmodernitate, berantmodernitate, modernitatez gaindiko, ... eta abarren nerbio-sistema zentralaren amaieran gaudelako.

Ezagutzaren eredu ekologikoa, gero eta barneratuagoa dudan neurrian, ate-leihoak zabaldu beharra sumatzen dut hain konplexua den fonetikaren munduari modu humanoagoan eta poetikoagoan begiratzeko; hizketaren errealitatearen izaerari dagozkion oinarritzko galderak egiteko eta galderen eskutik argitzeko eta aztertzeke azalaleko apainduraren azpian ezkututzen den hori zer-nola antolatzen den.

2. Zientzien historia modernoaz zertzeladak

Mundu moderno kartesiarraren ezaugarri behinenak kontutan hartzea ezinbesteko da fonetikaren beraren bilakaera ezagutzeko¹, ondokook ditugu besteak beste, batean eta bestean maiz askotan errepikatzen diren esamoldeak:

- erabateko segurtasuna;
- erabateko ezagutza, egiazkoa eta unibertsala;
- unibertsoa kosmos mekanikoa bailitzan ulertzea;
- testuinguru estandarizatuak;
- ebaluazioa eta produkzioa;
- lanaren mekanizazioak gidatutako taldeak;
- horiei lotuta bideratzen den hezkuntza-sistemaren estandarizazioa.

Esperientzia modernoaren sorrera: Ideia nagusia da, badela metodo bat zalantza saihesteko eta egiaren erreinura sartzeko modernitatean. Deskartes

¹ Descartes, Galileo eta Newtonen pentsamenduek berebiziko eragina izan zuten paradigma modernoaren erakuntzan.

(1596-1650) dugu aitagoien, metodikoki zalantzaren eskutik egia osora hel-tzen da. Descartes bila zebilena absolutua zen eta hala izan behar zen eraba-teko egia eta dudan ezin jarri zitezkeen zimentarriak ezarri zituen. Bide ho-netatik filosofia kartesiarrak, subjektuaren eta (mundua) objektuaren arteko harremanak finkatu zituen. Subjektu razionala, natura ezagutzeko gai dena da, hau da, «bera ez den bestea» aztertze gaitasuna duena, eta honen irudi-kapena egiteko modua modernitatearekin sortuko da, barnean sartzen dira modu honetako kontzeptuak: errealtate bakarrarena, egia absolutuarena.

Izpiritu modernoaren eraikuntzan eredu den gidaria matematikaren ezagu-tza da. Galileo da dudarik gabe «sentiberatasun berri honen» hedatzaile sutsue-na (1564-1642). Galileok goien gradua ematen die teoriari, printzipioei eta ma-tematikako demostrazioei. Esperientzia, laboratorikoa baino askoz zabalagoa da autore honentzat, nahiz eta laboratorikoa ere esperientziaren barnean sartu. Galileok, uste osoa ez bazuen ere esperientzian, ez zuen saihestu, aldatu baizik. Gauzak, egoerak ulertzeko tresna matematika izan zen, bazter utziz, ohartuki jasotzen dugun aniztasun kualitatiboa, esperientzia zenbakietara murriztuz, al-derdi kuantitatibora alegia. Esperientzia ikusmolde sinpletutik ulertu zuen.

Erloju mekanikoaren eritmoan sortzen da bizitza, erlojuak erakutsiko digu eta esango digu noiz eta nola egin behar diren gauzak.

Erlojua da zientzia modernoaren metafora

Zientzia berriaren sinbolo bihurtuko da erloju mekanikoa, bizitza eta bizia den oro objektibatze moduak erakutsiko dituena. Gaur egun ere, denbora lan-unitatea, lan-neurgailua, soldata-neurgailua da. Denborak urrea balio du moduko metaforak ederki asko erakusten du modernotasunaren ezaugarria.

Hala ere, esanguratsuk direlakoan, munduko gauzak hobetu nahirik edo Sarrionaindiaren azken elaberriko erlojuari buruzko zati bi hona ekarri nahi nituzke:

«minutuen orratza orduen orratza baino arinago dabil, baina ez da horrega-tik urrutirago ailegutzen».

Aurreraxeago dio:

«Bada jende asko erloju geldiaren antzerakoa dena, erloju geldiak ordu esaktoa markatzen du, esaktotasun elbarria. *Gainerako erlojuak ez dira egundo hain esaktoak, segunduak aurrera edo minutuak atzera dabilta, eta ez dira aagian benetako orduarekin ia inoiz erabat egokitzen. Baina la-ketago zaizkit erloju inperfektoak, tipi-ttapa beti hor ari direnak, zehazta-sun falta eta guzti» (J. Sarrionaindia, 1997ko abendua: *Hitzen Ondoeza*. Azpimarratua nirea da).*

Kuantifikatzeraren lehentasunari aro modernoak ematen dion garrantzia dugu aro modernoaren beste ezaugarrietako bat. Shakespearek (1600) *Lear Erregea* izeneko lanean ederki asko ohartarazten du maitasunaren ebaluatze

kuantitatiboaz eta horren merkatarizatzeari. Zenbat maite nauzute? galdegiten die, alaba gazteena bakarrik mututuko da, Cordeliarentzat ez delako neurgarria maitasuna.

Azken buruan, Subjektuaren subjektibitatea saihestuko da objektibitatearen mesedetan. Subjektibitatea ez da aintzat hartuko zientzian. Zirrarak, pasioak, irudimena, ... menperatu behar ziren natura menperatu behar zen bezalaxe. Erlojuaren unibertsoko subjektua automata bihurtu da.

Analitikoa da ezagutzaren ikusmoldea. Sistema osoaren jokamoldea azaltzeko, osagaien ezaugarrietatik abiatuz, unitate ttikiena, atomoa aurkitu nahi da. Transformatzen edo aldatzen ez diren osagaien eskutik, sistema lotua deslotu daiteke eta zatiz zati istudiatu honen funtzionamendua esplikatzen. Honela, kimikan osagai sinpleetatik abiatuz, ulertuko dira sustantzia konplexuak, zelutataik abiatuz organismoaren funtzioak, medikuntzan giza makinaren ezagutza hamaika espezialitateetan zatitu zen, bakoitzak bereari bakarrik eutsiz. Psikologian, pertsonen portaera edo jokamoldea harreman lineala bailitza estimulua-erantzuna, aztertzen zen, ... hizkuntzalaritzan hizkuntzaren atomoa hitza da. Metodologia analitikoak.

Galileok ere denboraren egitekoa ederki asko azpimarratu zuen. Mugimendua aztertzen, denbora hartu zuen oinarritzko magnitudetzat.

2.1. Fonetika

Historian zehar beti hizpide eta azterkizun izan den fonetikak, XIX mende bukaeran eta XX.aren hasieran berebiziko interesa hartuko du: hizkuntzalariek, sendagileak, hizkuntza irakasleak, gor-mutuen irakasleak, ... sutsuki murgiltzen dira hizketaren azterketan.

Bide ezberdinak erabiliko ditu espezialitate bakoitzak hizketaren azterketa honetan, besteak beste, aipa daitezke:

- artikulazioarena: hotsen artikulagune eta moduak;
- akustika;
- fisiologia, hatsarri fisikoak fisiologian aplikatuko dira;
- biologia.

Eztabaida metodologikoa berriz, paradigma positibistetan lur hartuz, Claude Bernard-ek biologian aplikatutako esperimendubidezko metodoa —metodo esperimendual hau, diziplina zientifikoa guztietara hedatuko zen batasun metodologikoa ezarri; baliagarria zen, nola materia hala bizitza estudiatzeko— fonetikan aplikatzen hasi zenean sortu zen. Aski dira eztabaidaren garrantza ezagutzeko eta muturreko bi ikusmode nagusi horiek biltzeko Rousselot abadeak eta Nazioarteko Fonetika Elkartearen idazkari zen P. Passy-k baieztatzen zutena. «*L'oreille n'est pas un instrument suffisant de l'analyse*» zioen Rousselotek eta honek zabaldu zion bidea esperimendubidezko fonetikari, gaurko fonetikaren zimentarriak ezarri. Hala ere, Passy-ren «*rien en vaut une oreille attentive*» aldekoek ez zuten burua makurtu eta berean jarraitu zuten.

1950etik aurrera edo 2. mundu-gerra ondoren ezagutzaren ezagutza aztertzeke ikuspuntu berriak hasiko dira garatzen hainbat zientzian: Hizkuntzaren filosofian, Semiotikan, Kognizio zientzietan, Neurofisiologian, Adimen Artifizialean, Komunikazio, zientzietan, ... eta hizkuntzalaritzan.

Hizketaren azterketak berebiziko interes teknologiko, indutrial eta politikoak sortaraziko ditu.

1950. urtetik aurrera, elektronikaren garapenak bide berriak ireki zituen hizketaren azterketarako. EEBBetan informatikaren eta adimen artifizialaren eskutik hizketa modu dinamikoan aztertzea zen helmuga. Ezinbestekoa izanik zientzia ezberdinetako ikertzaileekin batera aritzea. «Hizketa-aztertzaileen komunitatea» osatu eta elkarlanean hasiko dira zenbait alderdi estudiorai izanik:

- Informatikariak* pertsona eta makinaren arteko komunikazioa garatu nahi dute, martxan jarritz MITn, ahoskuntz sistemaren (traktoaren) eta entzumen-sistemaren modelizazioak; analisia eta neurkerta, ... informatikaren prozeduraz baliatuz 227 hitz ulertzen dituen makina egina zuten 1959rako, eta urte berean *eredu matematikoen eskutik* —Markov-en ereduak— hasi zen erabiltzen IBM, ...
- telekomunikazioetakoe* seinale akustikoa aztertzea, prozesatzea eta datu-baseak egitea dute helburutzat ekoizpen-oharmen prozesuak irudikatzeke;
- psikologoek* kognizio zientzian eta oharren-prozesuan murgiltzen dira;
- fisiologoek* ekoizpen-prozesua «mugimendu-kontrolaren atal konplexutzat harturik ekoizpena xehetasunez arteztuko dute;
- fonetikariak*, teknika berriez liluratuta, esperimendu bidezko metodoari eutsiz, hizketaren azterketarako teknika digitalak erabiltzen hasiko dira pentsatuz beste alorretatik datorkien laguntzari esker arazo ugari konponbidean jarriko zituztela.

Europar ere, eta bidenabar Euskal Herrian (hizkuntza boteretsu eta hizkuntza ttikien arteko eta baliabideen arteko diferentziak diferentzia eta atzerapenak atzerapen), ahots teknologiak berebiziko indarra hartuko du. Teknologiararen garapenak kontzeptu eta produktu berriak sortzeke bidean jarriko ditu. Aurrerapen ekonomikoaren giltzarri diren zientziak eta teknikak hizkuntza zorrotz aztertua eta anbiguitaterik gabea behar du. Honela, idatziaren kulturatik pantailaren kulturara etorri garela dioete adituek esanez hizkuntzen eta informatikaren baterabideranzko politika egin behar dela produktu erabilgarriak eta komertzialak bideratzeko; ikertzaileen mentalitatea aldatu beharra dagoela merkatuaren premiekiko ardua handiagoa izan dezaten. Lan-du beharreke alderdien artean ondokoak azalduko dituzte:

- hizketa sintetizatzaileak;
- hizketaren interpretatzaileak;
- hiztunaren ezagutzaileak pertsonen nortasunak egiaztatzeke;
- datu-baseak.

Lanak ugariak dira eta ekarpenak handiak, nola alderdi teorikoen garapenean, hala komertzialean. Honek bultzatzen ditu fonetikariak eta fonologoak konputagailuetako eta adimen artifizialeko adituekin elkarlanean aritzera

—fonetikaren barruan sartu izan ohi diren artikulazioaren, akustikaren eta oharmenaren ezaugarriak xehatasun handiz aztertuak dira. Hala ere, hizketaren teknologia nagusi den honetan, zuloak eta ulergabeak ez dira tikiak hizketaren munduan eta orain arteko erantzunak eta teoriak azterketa gehiagoren zain daude. Hona hemen azterkizun diren zenbait alderdi:

- ingurunearen araberako azaleko aldagarritasuna eta oharmenak jasotzen dituen unitateen aldagaiztasunak buruhaustek sortzen ditu oraindik;
- akustikaren eta entzumeraren arteko linealtasun faltak nabarmentzen duen artikulazioaren eta akustikaren arteko ez-linealtasunaren arazoak;
- koartikulazioarena —hotsen ezaugarriak uhin akustikoan estaliak eta gainjarriak azaltzen dira, egiten ditugun artikulazio aurretatze mugimendu horiek aurrez antolatutako ote² diren ala ez, honen inguruan sortzen den eztabaida;
- segmentazioarena —zein unitate eman makinari analisiaren ondorengo sintesia egiteko, hizketa interpretatzeko eta hiztuna ezagutzeko?— nola zatitu ebakinak ezaugarriak gainjarriak baditugu?...

Orain arte egindako guztiak, fonetikaren esparrua nabarmenki zabaldu dute, lagundu dute gaintitzen hizketari buruz hasierako fonetikariek egindako ohar inpresionistak, gainera bultzatu dute beste zenbait jakintza arlorekin harremanetan jartzen. Azken buruan, lagungarri izan dira fonetikaren alderdi teorikoen garapenerako. Hala ere, orain arte egindako ikerketek ez dituzte agortzen hizketaren eta ahoskeraren hezur-mamiak aurkitzen egin daitezkeen saioak, pertsonok egiten dugun jarduna delako eta ez soilik mugimendua, indarra edo zarata, sistematikoki antolatutako jarduna da, intenzioanala, irekia eta berezitua. Pentsa daiteke, senidemin den fonologiarekin, nahiz beste giza zientziarekin elkar-lanean bideak urratu behar direla, ez egia osoa izateko asmotan, inoiz ez dugulako osoa izango baina bai egiten dugun hizketaz gehiago jakiteko.

² VON FOERSTER (1991) *Las semillas de la cibernética* liburuan honela dio: «el sujeto no es lo dado biológicamente, sino lo construido en el intercambio en un medio social humano en un mundo complejo. Es a través de los vínculos sociales de afecto, de lenguaje que se va autoorganizando». Aurreraxeago sistema autoantolatzaileen paradoxa deitutako horri buruz dio: «... los seres humanos no venimos preprogramados, ni siquiera respecto de nuestro desarrollo biológico, sólo algunas características están rígidamente establecidas en el código genético, ... vida es intercambio de materia, de energía, de información.» (66)

3. Erloju mekanikoaren metaforatik, izate bizidunaren metafora: Pentsamendu ekologikoaren ildoak

Oinarrizko zenbait hipotesitan sustraitua dago izate biziaren metafora:

1. *Identitate dinamikoa*: hau da, osotasun konplexu baten zatiek eta honen ezaugarriek, elkarreraginen eskutik eta antolakuntza osoarekin duten harremanetatik bakar bakarrik hartuko dute zentzua.
2. *Osotasun konplexua*: hau da, osagaietan sustraituta ezin da osotasuna azaldu. Izan ere, sistemak, bere baitan transformazioak eta osagaien arteko elkarreragin errazak eta inhibitituak baititu.
3. *Beregaintasun erlatiboa*: hau da, sistema konplexua irekia da, ez dago lege deterministek zuzendutako halabeharrik. Sistemaren malgutasunak eta irekitze erregulatuak aukera ematen dio, bizi duen ingurumariarekin dituen elkarreraginei esker, aldatzeko edo bere horretan segitzeko.
4. *Pertsonen jardunak, harreman-sare gisara*: hau da, ingurua, inguru-nea edo ingurumaria ez dira esparru bizigabe eta berezituak, harremanen lekua baizik. Ezin da ezer definitu bere baitatik bakarrik.

Izate bizidunaren metafora gure arlora ekarri eta kanporatzen dugun hizketa harreman-sare modura hartuz gero, esparruak asko zabaltzen badira ere, onuragarria izan daiteke honenbeste korapilo dituen jardunaren kontuak betaurrekorik gabe argiago ikusteko edo ulertzeko. Izan ere, haurrek hizkuntz jabekuntza-prozesuan edota helduok egiten dugun ahozko erabilerak erreferente asko ditu. Erreferente bakoitzak behatze-modu berezitua eta metodo jakina eskatzen ditu eta hizketaren azterketan behatze-arakatze-modu ezberdin horiek guztiak artikulatzen saiatu beharko dugu auzolanean. Esate baterako, logika formalaren erabilera zenbaitetan baliagarri izango da, baina ez adibidez hizketa-analogikoa ulertzeko.

Fonetika pertsonok, bizidunok egiten dugun jarduna den neurrian, konplexutasun handia duen aztergaia da. Eta ezagutza pertsona eta munduaren arteko harremanetatik datorkigu. Izan ere pertsona, hiztuna, ez dago kulturatik, naturatik, duen historiatik, esperientziatik, sentipenetatik at. Kontuan hartu beharreko era askotariko dimentsioak dituena da. Hizketa fenomenoaren berri osoa emateko, eta hiztunak hizketan ari direnean, errealitatean zer egiten duten jabetzeko, alderdi anatomiko-fisiologiko, soziologiko eta psikologikoez gain arreta handiz istudiatu beharrekoak dira katea paradigmatico-sintagmatikoetan gauzatzen diren alderdiak eta horien nolakotasuna eta zergatia komunikazioan edo harremanetan. Izan ere, komunikazioan elkarreraginak eta transformazioak etengabeak baitira.

Esate baterako, haurren hizkuntz jabekuntza prozesuaren azterketa zabala eta zorrotza interes handiko litzateke hizketaren beraren konplexutasuna eta horren azpian dagoena hobeto ezagutzeko (eta hori ez da soilik hizkuntzalari-zako arlo desberdinen azterketarekin agortzen. Harremanetan, harremanen

eskutik eta modu askotako zailtasunak gainditzetik egingo baita hiztun haurra. Hala ere, hizketan hasi aurretik haurrak egiten dituen urratsen azterketak ondorengoek bezainbateko garrantzia dutela irizten diot. Hau da, ezagutu behar harko genituzte besteak beste, haurraren komunikazio analogikoaren ezauzgarriak; nola lortzen duen komunikazio-modu horretatik digitalera heltzera; nola egiten duen paradigma-antolakuntza; nola burutzen duen maila paradigmaticoaren eta sintagmaticoaren arteko lotura; nola ematen dion esanahia eta nolako antolatze-eredua barneratzen duen.

Badirudi, arreta handiz aztertu beharrekoak direla ama-haurraren (zaintzailearen edo aitaren) arteko harremanen nolakotasunak eta horiez gain giltzarri diren pausuak: hau da, elkarrizketa tonikoa, ardatz estetiko edo komunikazio analogikoa. Izan ere, haurra loquens izan aurretik, amaren hizketa xamur, goxo, egokitu, adierazgarri, eragingarri eta bizigarriaren (edo zakar, ziztrin, ez adierazgarri) eskutik datorkio haurrari bizitzan zehar erabiliko duen gorputz hizkuntza. Haurren hizkuntz jabekuntzan diharduten ikertzaileek diote, bizitzako lehen aro honetan, haurrak bere egiten dituela hizketa-kantuaren, doinuaren, erritmoaren eta enfasiaren oharmena eta horiei lotutako esanahia. Eta modu berean, markatuko dituela subjektuaren paradigma edo mundu-ikuskera eta adieraziak, ondoren kanpotik hartutako hainbat adierazlekin lotuko dituenak, alegia. Komunikazio-modu honek sartuko du haurra arrastoan eta bideratuko du urratsez urrats honen albo-alboan den komunikazio digitalera edo hizketa-hotsen bidez kora, maila sintagmaticoan gorputzuko den horretara.

Ekintza fisikoaren edo azalaren azpian dagoen konplexutasuna hartzen du katea paradigmaticoak. Zentzuaren bila abiatzen da eta honek antolatze-modura eta eredura darama. Hau da, haurrak egiten dituen hautabideak eta aukerak aztertzea: zein bokalez eta zein kontsonantez baliatzen den, zein erritmoz, zein kantuz eta zein eratan lotzen eta kateatzen dituen horiek guztiak. Barnean antolatu eta kanporatutako hizketa-hots kateatuen bidez entzuleari zentzua duen zerbait adieraziko dio.

Goiago aipatu ditudan mende honetako aurrerapen teknologikoen eskutik eta hurbileko zientzia ezberdinetako lan-taldeen partaidetzarekin talde-lana egitea funtzeskoa da, hiztunok egiten dugun hizketaren errealitatea hobeto ezagutzeko. Hizketa —hizkuntzak duen errealitate fisiko bakarra— harremanetan hasten, garatzen eta sendotzen baitugu.

Bibliografia

- BECKMAN, M.E., 1988: «Phonetic Theory» in: Frederic J. NEWMAYER (ed.), *1 Linguistic Theory: Foundations*, University of Washington.
- CLARK, J. eta YALLOP, C., 1990: *An Introduction to Phonetics and Phonology*, Oxford.
- ETXEBERRIA, P., 1989: *Zaldibiako Bokalen Azterketa Akustikoa* [Mundaiz, 4], Donostia-San Sebastián.

- LLISTERRI, J., 1991: *Introducción a la Fonética Experimental*, Barcelona: Ed. del Hombre, Anthropos.
- MCADAMS, S. eta BIGAND, E., 1994: *Penser les Sons*, Paris: PUF.
- MORIN, E., 1994: «La Noción de Sujeto», in: *Nuevos Paradigmas, Cultura y Subjetividad*, Buenos Aires: Paidós.
- NAYMANONOVICH, D., 1995: «El Lenguaje de los Vínculos. De la Independencia Absoluta a la autonomía Relativa», in: *Redes el Lenguaje de los Vínculos*, Barcelona: ed. Paidós.
- VON FOERSTER, H., 1991: *Las Semillas de la Cibernética*, Barcelona: Gedisa.

ABSTRACT

Today's Basque phonetics at the crossroads: progress and topics to investigate

As part of Social Sciences and within current scientific paradigms, new technologies and new conceptions of the world, phonetics must confront the new challenges of 21st century. It must open new ways that allow us see, behind our current knowledge, the complexities of our discipline and go beyond many questions that are nowadays unapproachable. An ecological model of knowledge would facilitate a study of the phonetic universe with renewed foundations; it would, as well, allow us to reformulate problems that belong to the nature of speech and, by means of these new questions, would clarify what lies behind the external expressions.

Komunztadura, hiru ikuspegi (I): datibo argumentuak eta mugimendu laburrena

Beatriz Fernández Fernández

Euskal Herriko Unibertsitatea. Hizkuntzalaritza Orokorra
Universidad del País Vasco. Lingüística general

Koldo Mitxelena

«GAUA. Gaua, batzutan, goizetik hasten da. Eta goiz susmorik gabe luzatzen da hurrengo gauera arte.» J. Sarrionaindia (1997). *Hitzen ondoeza*, Tafalla, Txalaparta, 340.


Egunon denori, edo diodan gabon, neurea egiten baitut poetaren ondoeza. Eta ilunbetan, besterik ezinean, datiboaren iluna argitu nahi dut argizagi honekin. Komunztaduraren lehen ikuspegia da hau, Datiboari egiturazko kasua deritzana eta Inflexioan hiru Komunztadura buru bereizten duena. Javier Ormazabal eta Pablo Albizuk osatuko dute komunztaduraren gaineko hirukotea.

Euskaraz hiruburuko komunztadura sistema dugu: Aditza (A) Ergatibo (ERG), Absolutibo (ABS) eta Datibo (DAT) argumentuekin komunztatzen da perpaus jokatueta. Areago, argumentuei beraiei ere ERG, ABS eta DAT kasu markak ezartzen zaizkie. Dakusagun (1) perpausetan.

(1)	a)	Nik		gutuna	idatzi	dut
		Ni-ERG		gutun-ABS	idatzi	$3_{f2}/D$ -edun- 1_{f1}
	b)	Nik	zuri	gutuna	idatzi	dizut
		Ni-ERG	zu-DAT	gut-ABS	A	$3_{f2}/D$ -edun- 2_{f3} - 1_{f1}

Goiko perpausetan (1) *idatzi* predikatua dugu, **edun* laguntzaile iragan-korraz jokatzeko dena. (1.a) perpausuan bi argumentu ageri da, *nik* ERG argumentua bata, *-k* ERG kasua daramana eta *gutuna* ABS argumentua bestea, \emptyset ABS kasua ezarri zaiona; **edun* laguntzaileak, bere aldetik, bi argumentuokin komunztadura zaintzen du $f1$ eta $f2$ -komunztadura tasunez, hurrenez hurren. (1.b) perpausuan, berriz, ERG eta ABS argumentuez gain, *zuri* DAT argumentua ere ageri da *-i* DAT kasuaz markatu eta **edun* laguntzailearen $f3$ -tasunez komunztaturik.

Kasu Teoriak *Minimalismoaren* hipotesi kanonikoetan (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993) dioenez, bi funtzio buru bereizten da INFLn, alegia, Denbora (D) eta KMZ buruak, eta ERG eta ABS argumentuek KMZren Espezifikatzaile (Espez) gunea iristen dute *egiturazko kasua* nahiz komunztadura tasunak, *f-tasunak* erkatzekotan. Egiturazko kasua eta f-tasunak, hortaz, Espez/buru harremanean erkatzen dira, (2)an ikus daitekeen erara.



Predikatu iragankorreko perpausetan bi KMZ buruak *indartzen* dira: A KMZ2ri adjunktatu eta ABS argumentua [Espez, KMZ2]ra igoko da, ABS eta f2-tasunak zilegiztatuz; bestalde, D KMZ1ri adjunktatutakoan, ERG argumentuak [Espez, KMZ1] gunea iritsiko du ERG erkatuz bertan. Honelaxe azal daitezke, bada, (1.a) perpausaren datu enpirikoak, baina ezin azal daiteke DAT argumentua ageri den (1.b) perpausa.


Horregatik, DAT argumentuak bere I-tasunak erkatuko baditu, INFLren baitan KMZ1 eta KMZ2 buruak ezeze, KMZ3 burua ere indartu behar dela deritzat, eta KMZ3 indarrean, DAT argumentuak KMZren Espez gunea iritsi behar duela DAT kasua eta f3-tasunak erkatuz bertan. (3)ra dakartzat ene hipotesiaren ardatzak.

- (3)
- i. DAT ere egiturazko kasua
 - ii. KMZ1 eta KMZ2 buruak ezeze, KMZ3 ere indartu
 - iii. DAT eta f3-tasunak [Espez, KMZ] harremanean erkatu
baita Hualde (1986), Cheng & Demirdache (1993), López & Austin (1995)
eta Fernández (1997)


Hipotesi honen ildotan, (1.b) bezalako perpausak azaldu ahal izateko proposatuko dudana perpaus egiturak hiru KMZ buru izango du, eta KMZ buruetarik bat AS azalaren mendean (Larson, 1988) sortuko da, KMZ2" A1en (lehen Aren) osagarri gunean ezarriko delarik. (4) zuhaitzean ikus daiteke AS azalaren barne egitura. AS azal honetan ERG argumentua A1en Espez gunean sortzen da, DAT argumentua A2ren (bigarren Aren) Espez gunean eta ABS argumentua, azkenik, A2ren osagarri gunean. Zuhaitzean dakartzadan IS1, IS3 eta IS2 laburdurak ERG, DAT eta ABS argumentuei dagozkie hurrenez hurren.

Perpaus egitura hau Collins & Thrainsson (1993) eta beste zenbait autoreri jarraitzen zaio, funtzio buruak, KMZ buruak, kasurako, AS azalaren mendean sor daitezkeelako ustean. Dena den, badira autore hauek dakarten egituratik bereizten dituen ñabardurak, aipatzeke utziko ditudanak. Dakusagun perpaus egitura osoa ondoko zuhaitzean (5).

- (4) i. KMZ2" A1 en osagarri gunean AS azalaren baitan [baita Collins & Thrainsson (1993), Koizumi (1993), López & Austin (1995) eta Fernández (1997)].



- (5) i. KMZ2" A1 en (lehen Aren) osagarri



Bada, bestalde, aintzat hartu beharreko ekonomia baldintza bat, perpaus egitura hau (5) onesteko, alegia, *Mugimendu Laburrena* (6), *Distantziakidetetasunaz* definitzen dena (Chomsky, 1993). Mugimendu Laburrenaren arabera, predikatu iragankorreko perpausetan ABS argumentua [Espez, KMZ2]

gunera igo daiteke, [Espez, A] gurutzatuz, bi Espez gunek Gutxieneko Eremuan daudenez, ABS argumentuaren distantziakideak direlako.


- (6) *Mugimendu Laburrena*
a eta b Gutxieneko Eremu berean badaude, g-ren distantziakideak dira (Chomsky, 1993)

Izan ere, hiru KMZ buru indartuz gero, buruetarik batek gutxienez AS azalaren mendean sortu behar du Mugimendu Laburrena asetzekotan. AS azalaren mendean KMZ bururik sortzen ez duen hipotesirik ezin onets daiteke Mugimendu Laburrena Distantziakidetasunaren arabera definituz, bederen —ikus, esaterako, KMZ2" KMZ3ren osagarri gunean eta AS azaletik at kokatzen den hipotesia (Fernández, 1997)—. Bi hipotesiak dakartzat (7)ra.

- (7) *Distantziakidetasuna Mugimendu Laburrenaren oinarri*
i. KMZ2", A1en osagarri
ii. * KMZ2", KMZ3ren osagarri (Fernández, 1997)


Gatozen orain (1.b) perpausa urratsez urrats eratortzera hiru KMZ buruko (5) perpaus egitura erabiliz. Eratorpenaren hastapenean (1 mugimendua), A buruz buru adjunktatuko zaio KMZ2ri, (l_{kmz2} A₂ KMZ2], t_i) katea osatuz (8). Deritzagun K katea. K katearen Gutxieneko Eremua {[Espez, KMZ2], [Espez, A2], IS2} da, (8)an ikusten den modura. Kontutan hartu, [Espez A2] IS3ren iturburua bera dela.

- (8) i. Kren Gutxieneko Eremua {[Espez, KMZ2], [Espez, A2], IS2}



K katearen Gutxieneko Eremuan {[Espez, KMZ2], [Espez, A2], IS2} egonik, ABS argumentua [Espez, KMZ2] gunera igo daiteke [Espez, A2] gurutzatuz (2 mugimendua), [Espez, KMZ2] eta [Espez, A2] guneen distantziakidea delako. (9)ra dakartzat eratorpenaren 1 eta 2 mugimenduak. 2 mugimendua

- (9) i. ABS argumentua [Espez, KMZ2]ra igo [Espez, A2] gurutzatuz
- ii.




menduari esker, ABS argumentuak, *gutuna* (1.b) perpausean, ABS kasua eta f2-tasunak zilegiztatzen ditu.

Chomskyk (1993) aztergai darabiltzan predikatu iragankorreko perpausean bezalatsu, DAT argumentuak [Espez, KMZ2] iritsi behar lukeela irudi lezake, itxuraz ABS argumentuak baino *urrats gutxiago* eginik igo litekeelako KMZ2ren Espez gunera. Baina Mugimendu Laburrena Distantziakidetasunean oinarritu dugun honetan, [Espez, KMZ2] eta [Espez, A2] K katearen Gutxieneko Eremuan daudenez, ABS argumentuaren distantziakideak dira, eta hortaz, ABSren igoerak Mugimendu Laburrena asetu egiten du.

[A2 KMZ2] buruak A1 iritsiko du ondoren (3 mugimendua), baina A1 e kategoria ixila denez, [A2 KMZ2] buruak ordezkatu du hura. Dena den, ka-


- (10) i. Kren Gutxieneko Eremua {[Espez, A1] [Espez, KMZ2], [Espez, A2], IS2}
- ii.



tea bera izanik ere, [_{kmz2} A2_i KMZ2], *t_i*) K katea, Gutxieneko Eremua beste gune batez, alegia, [Espez, A2] guneaz haunditu egiten da. Honelaxe, bada, kate berberak bi guneen araberrako Gutxieneko Eremu bana du —(10)ean ikus daitekeena aldera daiteke kate berberak (8)an duen Gutxieneko Eremuarekin—.


Horren ondotik, [A2 KMZ2] buru anizkuna KMZ3 buruari adjunktatuko zaio (4 mugimendua), eta buruz buruko mugimenduak sortzen duen (_{kmz3} KMZ2_i KMZ3], *t_i*) T katearen Gutxieneko Eremuan hauexek izango dira: [Espez A2], alegia, DATren iturburua; DAT argumentuak gurutzatu behar dituen [Espez, KMZ2], eta [Espez, A1] guneak, eta baita iritsi behar duen jomuga ere, hau da, [Espez, KMZ3]. Horrela, bada, T katearen Gutxieneko Eremuko hiru guneak DAT argumentuaren iturburuaren distantziakidea da, (11)an ikus daitekeen bezala.

- (11) i. [A2 KMZ2] buru anizkuna KMZ3ri adjunktatu eta (_{kmz3} KMZ2_i KMZ3], *t_i*) T katea osatu
 ii. Tren Gutxieneko Eremua {[Espez KMZ3] [Espez, A1] [Espez, KMZ2] [Espez, A2]}
 iii.




Horregatik, [A2 KMZ2] burua KMZ3ri adjunktatu zaionean (4 mugimendua), DAT argumentua [Espez, KMZ3] gunera igo daiteke (5 mugimendua), Mugimendu Laburra urratu gabe (12) zuhaitzean erakutsiko dudana erara. DAT argumentuak, *zuri* (1.b) perpausean, gune honetantxe erkatuko ditu DAT kasua eta f3-tasunak.


Eratopenaren azken mugimenduetan [KMZ2 KMZ3] buru anizkuna Dri adjunktatu eta adjunkioan eraturiko [KMZ3 D] burua KMZ1era igotzen denean (_{kmz1} D_i KMZ1], *t_i*) A katea osatuko da. Aren Gutxieneko Eremua {[Espez KMZ1] [Espez, KMZ3] [Espez, A1]} da azken honetan (13).



- (13) i. [KMZ3 D] buru anizkuna KMZ1ri adjuntatu eta ($[_{\text{kmz1}} D_i \text{ KMZ1}]$, t_i)
 A katea osatu
 ii. Aren Gutxienero Eremua { [Espez KMZ1] [Espez, KMZ3] [Espez, A1] }
 iii.



ERG argumentuak [Espez, KMZ1] iritsirik (8 mugimendua) burutuko da (1.b) perpausaren eratorpen osoa (14).



Laburbilduz, euskaraz hiriburuko komunztadura sistema dugunez, ezin erator daitezke DAT argumentua duten perpaus iragankorrek, hirugarren komunztadura bururik ez badago INFLn. Horregatik proposatu dut KMZ3 burua ere indartzen dela euskaraz eta AS azalaren baitan sortzen dela. Horrelaxe, gainera, ez da *Mugimendu Laburrena* baldintza urratzen argumentuen Espez gunetarako igoeran.

Aipu bibliografikoak

- BOBALJIK, Jonathan D., 1993: «On ergativity and ergative unergatives», Colin PHILLIPS (arg.) *Papers on Case & Agreement II, MITWPL 19*, 45-88.
- CHENG, Lisa Lai Shen & Hamida DEMIRDACHE, 1993: «External Arguments in Basque», J.I. HUALDE & J. ORTIZ DE URBINA (arg.), *Generative studies in Basque linguistics*, Amsterdam/Philadelphia, John Benjamins.
- CHOMSKY, Noam, 1993: «A minimalist program for Linguistic Theory», K. HALE & J. KEYSER (arg.), *The view from Building 20. Essays in Linguistics in honor of Sylvain Bromberger*, Current studies in linguistics series 24, Cambridge (Mass.), MIT.
- COLLINS, Chris & Höskuldur THRAINSSON, 1993: «Object shift in double object constructions and the theory of case», Colin PHILLIPS (arg.), *Papers on Case & Agreement II, MITWPL 19*, 131-174.

- FERNÁNDEZ, Beatriz, 1997: *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*, EHU/UPVko Argitarapen Zerbitzua.
- HUALDE, José Ignacio, 1986: «Case-assignment in Basque», *ASJU* 22, 313-330.
- KOIZUMI, Masatoshi, 1993: «Object agreement phrases and the split VP hypothesis», Jonathan D. BOBALJIK & Colin PHILLIPS (arg.), *Papers on case and agreement I*, *MITWPL* 18, 99-148.
- LARSON, Richard K., 1988: «On the double object construction», *LI* 19: 3, 335-391.
- LÓPEZ, Luís & Jennifer AUSTIN, 1995: «Nominative, absolutive and dative languages», Cornell University (Ithaca) NY, [eskuizkribua].

ABSTRACT

Agreement, three perspectives (I): dative arguments and Shortest Move

In this paper I will propose that Dative is a structural case and that a third Agreement (AGR) head can be activated in Inflection. There being three active AGR heads, one of them must be generated inside the VP, in order to satisfy Shortest Move in terms of Equidistance (Chomsky, 1993).

Basque has a three-way agreement system: subjects, direct objects and indirect objects agree overtly with tense-inflected verbs in person and number. Furthermore, case is overtly realized in Basque. Thus, subjects of transitive verbs are marked for Ergative (ERG), subjects of intransitive verbs and direct objects are marked for Absolutive (ABS) and indirect objects for Dative (DAT). This is illustrated in (1).

In (1) there is a transitive predicate *idatzi* 'write'. In (1.a), the subject *Nik* 'I' is assigned ERG case, the object *gutuna* 'letter' is assigned ABS case and the transitive auxiliary **edun* 'have' agrees with both arguments (f1 and f2-features respectively). In (1.b), there is one more argument, *zuri* 'you', marked for Dative, which agrees with the auxiliary (*zu* morpheme in bold type letter).

Case Theory within the Minimalist Program (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993) accounts for the empirical data in (1.a). In this approach, two AGR heads activate in transitive sentences, so the subject checks ERG and f1-features in the Specifier of AGR1 and the object checks ABS and f2-features in the Spec of AGR2. However, there is no account for the Dative case and its agreement in (1.b), and this is the issue that I will address in this paper. I will follow Hualde (1986), Cheng & Demirdache (1993) and López & Austin (1993) in assuming that there are not two but three AGR heads in Basque Inflection and I will propose that Dative is a structural case. If three AGR heads activate, the indirect object will move to the Spec of the third AGR head and there it will check Dative and f3-features.

I will propose an alternative clausal structure to Chomsky/Bobaljik's canonical proposal. This clausal structure explores the idea of a functional head being generated inside the VP (Collins & Thrainsson, 1993, among

others). In this regard I will propose that AGR2 is internal to the VP, therefore, it can be generated in the complement position of V1 in a VP-shell (Larson, 1988). Moreover, there is a condition that should be taken into account, that is to say, Shortest Move (2) in terms of Equidistance (Chomsky, 1993). According to it, in transitive sentences, the object can move to [Spec AGR2] through [Spec VP], since both Spec are in the same minimal domain and are, therefore, equidistant from the object position. In fact, if the three AGR heads are activated, only a structure with at least one VP-internal AGR head is possible, in order to satisfy Shortest Move.

This derivation also explains Basque unaccusative sentences with two arguments, the first one marked for ABS and the second marked for DAT (2.b) and their overt agreement with the intransitive auxiliary *izan* 'be', illustrated in (3).

Data and references

- (1) a. Nik gutuna idatzi dut
I-ERG letter-ABS write 3_{f2} -have- 1_{f1}
'I have written a letter'
- b. Nik zuri gutuna idatzi dizut
I-ERG you-DAT letter-ABS write 3_{f2} - 2_{f3} -have- 1_{f1}
'I have written a letter to you''
- (2) *Shortest Move*
If a, b are in the same minimal domain, they are equidistant from g
- (3) a. Ni etorri naiz
IABS come 1_{f2} -be
'I have come'
- b. Ni zuri etorri natzaizu
I-ABS you-DAT come 1_{f2} -be- 2_{f3}
'I have come to you'

Komunztadura, hiru ikuspegi (II): absolutibo komunztadurarik eza*

Javier Ormazabal eta Juan Romero

EHU/LEHIA eta Alcaláko Unibertsitatea

Universidad del País Vasco, LEHIA y Universidad de Alcalá

0. Sarrera

Lan honetan komunztadura aberatseko hizkuntzek hiru komunztadurekiko paradigmatan hutsune sistematikoak dituztela erakutsiko dugu. Hutsuneok azaltzeko proposatu diren hipotesi morfologikoak baztertzen saiatuko gara, fenomenoak sintaktikoa dela erakutsiz.

Gure analisia bide onetatik badoa, ateratzen diren ondorioen artean agian aipagarriena euskararen aditz laguntzailearen azterketaren inkuspuntutik hiru komunztadura erakusten duen formarik ez dagoela litzateke; hau da, absolutiboaren hirugarren pertsona ez da komunztadura eta NOR-NORI-NORK-en formak NORI-NORK besterik ez dira.

Sintaxi teoriaren ikuspuntutik, bestalde, gure argumentazioa ondo bada go Kasu Teoria goitik behera berraztertu behar dugula sujeritzen du, aurrekoaren ondorioz Kasua erkatzen ez duten argumentuak daudelako. Halaber, gure analisiak Kasu morfologikoa eta komunztadura zeharo autonomoak direla proposatzera garamatza.

Artikuluak ondoko egitura du: lehen atalean euskal aditz laguntzailearen ezaugarri nagusien deskribapena labur bat egiten dugu, aldi berean euskal aditz laguntzailearen ikerlarien artean ezagunak diren murriztapen batzuk ere aipatuz. Bigarren atalean NOR-NORI-NORK paradigmari lotuta dagoen hutsunea aurkezten dugu, honekin batera euskal literaturan, batez ere Leizarragaren lanean, aurki daitezkeen salbuespenak azaltzeko bi hipotesi nagusiak laburki aztertuz. Hirugarren atalean euskararen hiru komunztadura sistema eta egitura sintaktikoaren arteko desoreka ezagun bat tratatzen dugu; lehen hur-

* Autoreok gure ikerketa-taldeetako kideei euren laguntzagatik eta talde hauetako lan-proiektuei emandako diru-laguntzaren bidez gure lana posiblea egin duten honako erakunde hauei eskertu nahi diegu: Eusko Jaurlaritzak (PI-1998-127), Euskal Herriko Unibertsitatea (9/UPV 00033.130-13888/2001) eta Espainako Gobernuak Zientzia eta Teknologiarako Ministerioak (BFF2002-04238-C02-01) lehen autorearen kasuan eta Madrilgo Autonomi-Elkartea eta Fulbright Erakundeari doktorego-ondoko beka banagatik bigarrenarenean.

bilketa batean teknikeritzat har zitekeen arazo bat iruditu arren, gure proposamenaren argira arazoak beste buelta interesgarriago bat hartzen du, hiru komunztaduren ezintasuna eta sintaxian inposatutako lokalitate baldintzak bat datorrela erakutsiz. Laugarren atalean berriro hartzen dugu NOR-NORI-NORK paradigmaten hutsunea, oraingo honetan tipologikoki oso ezberdinak diren komunztadura aberatseko beste hizkuntzekin erkatzeko; gure beste lan batzuren ildotik jarraituz (ikus Ormazabal eta Romero 1998ab, 2003), fenomeno morfologikoa baino sintaktikoa dela defendatzen dugu. Azken atalean gure proposamenak sintaxia eta morfologian izan ditzakeen ondorio teoriko zenbaiten azalpen laburra egiten dugu, NOR hirugarren pertsonak aditz laguntzailean komunztadurarik mantentzen ez duela defendatuz; honen ondorioz, azken urteotan gramatika sortzailean defendatu izan den kasu gramatikala eta komunztaduraren arteko erlazio estua errebisatzeko beharra dagoela proposatzen da.

1. Euskal aditz laguntzailearen propietateez bi ohar

Ezaguna denez, euskal aditz laguntzaileak perpausaren hiru argumentu nagusiekin mantentzen du komunztadura: NOR komunztadura aditz iragankorren objektuarekin edo aditz ezakusatiboen argumentu bakarrarekin, NORK komunztadura aditz iragankor eta ezergatiboen subjektuarekin eta NORI komunztadura zehar objektuarekin. Adibide batekin erakustearren, (1a) adibideko *gaituzu* laguntzaileak bigarren pertsona NORK komunztadura adierazten du *zuk* subjektuarekin, eta lehen pertsona NOR komunztadura perpausaren osagarri zuzenarekin, *gu*-rekin hain zuzen. Era berean, *didazu*-ren *-da-* markak (1b) adibidean aditz laguntzailea eta zehar objektuaren arteko komunztadura adierazten du.

- (1) a. Zuk gu eramango gaituzu
b. niri liburua eman didazu

Euskal aditz laguntzailea oso erregularra dela esan ohi da, bai desinentzia bakoitzak okupatzen duen lekuari begira, baita desinentzien formari begira ere. Ordenaren aldetik, laguntzailearen forma gehienek NOR-NORI-NORK ordena jarraitzen dute, tartean erroa, modua eta denborari dagozkien zenbait marka, beti posizio bereberetan, agertuz. Ondoko eskemak aditz laguntzailearen barne-egitura isladatzen du (ikus Laka 1993, Gómez 1995, Artiagoitia 2000, eta bertan aipatutako lanak):

- (2) NOR erroa NORI modua NORK denbora

Desinentzien formaren aldetik ere, euskal aditzak erregularitasun maila handia erakusten du (ikus goian aipatutako lanak, batez ere Gómez 1995, eta Gómez eta Sáinz 1993).

Badira, hala ere, irregulartasunak aditz laguntzailearen barruan era sistematiko batean agertzen direnak:

Alde batetik, Artiagoitiak *ergatibo komunztaduraren dantza* izendatu duena (*ergative displacement*) dugu; fenomenoaren deskribapena sinplifikatuz, hainbat adizkitan (2) adibidean erakutsitako morfemen hurrenkera kanonikoa aldatzen da, NOR komunztadura NOR komunztaduraren lekuan eta formarekin agertuz. Hortaz, (3) adibidean ikusten denez, orain aldiko ordenarekin kontrastatuz, lehen aldiko zenbait formetan ergatiboa markatzen duten desinentziak —(3a-b) adibideetako *n-* eta *gen-* lehen pertsona-komunztadurak eta *zen-* bigarren pertsona (3c) adibidean— aditz laguntzailearen lehen posizioan, hots absolutiboari dagokion posizioan, ageri ohi dira, formaren aldetik ere NOR komunztaduraren itxura hartuz.

- (3) a. dituT vs. Nituen
 b. dakiGU vs. GENekien
 c. dioZU vs. ZENion

Ortiz de Urbinaren (1989) fenomenoaren tratamendu sintaktikoarekin hasita eta, batez ere, Lakak (1989, 1993) aditz laguntzailearen sintaxia eta morfologiaren inguruan egin zuen lan garrantzitsuaren ildoari jarraituz, asko izan dira fenomeno honi buruz egin diren lanak.¹ Eztabaidaren beste alor asko albo batera utzirik, gero esango dugunerako interes berezia izango duen aspektu bat azpimarratu nahiko genuke fenomeno honi buruz: argumentu absolutiboa hirugarren pertsona denean gertatzen dela beti, inoiz ez NOR argumentuak lehen edo bigarren pertsona komunztadura erakusten duenean.

Beste aldetik, aurrekoa ez da euskal aditz laguntzailean NOR hirugarren pertsona denean egitura konplexuak ezaugarri bereziak erakusten duen kasu bakarra. Ezaguna denez, NOR komunztadurari dagozkion lehen eta bigarren pertsona desinentziak erregularrak diren bitartean, hirugarren pertsonarena, ergatibo komunztaduraren dantza gertatzen ez den testuinguruetan, laguntzailearen denbora edota moduaren arabera aldatzen da. Hots, hirugarren komunztadura dagoenean aditz laguntzailearen hasierako posizioan agertzen den desinentzia *d-* da orainaldian, *z-* lehenaldian, *l-* baldintza hipotetikoetan eta *b-* inperatiboan.

- (4) 1. perts. N- G-
 2. perts. H- Z-
 3. perts. D-/Z-/L-/B- D-/Z-/L-/B-

¹ Ikus, besteak beste, Ortiz de Urbina (1989), Laka (1993), Albizu eta Eguren (1996), Albizu (2001), Fernández (1997, 2002). Testuan aipatzen diren fenomenoaren deskripzio baterako eta horren inguruan egindako lanen eta eztabaiden azalpenerako, ikus Artiagoitia (2001, 370 orr. eta ondokoak). Fenomeno hauek guztiak ondoko 3-5 ataletan aztertzen ditugun gaiekin zehazkiago lotzen dituen lan baterako, ikus Ormazabal (2003).

Morfologia historikoan egin diren hainbat lan sendoren emaitzen arabera (ikus, batez ere, Gómez eta Sáinz 1993, Gómez 1995, Trask 1997 eta lan hauetan aipatzen diren erreferentziak), tradizionalki hirugarren pertsonari atxiki zaizkion komunztadura markak ez dira komunztadurak baizik eta modu eta denbora markak. Zenbait testuingurutan, beraz, laguntzailearen lehen posizioan denbora eta modu marka batzuk agertzen dira, denborari eta moduari dagozkien lekuetatik kanpo.

Lakak (1993) fenomeno honen azalpen morfologiko bat proposatzen du, ergatiboaren dantzarenarekin batzen duena. Hemengo eztabaidaren ikuspuntutik berriz ere interesgarriena zera da, bi fenomenoak NOR hirugarren pertsona denean gertatzen direla bakarrik eta, ondorioz, absolutiboaren hirugarren pertsona horrek komunztadura desinentziarik ez duela edo desinentzia hau Ø-morfema dela postulatu behar dela.²

Atal honetan aipatutako irregulartasunekin batera, azken urteotan aditz laguntzailearen ikerketan interes handia sortu duen beste propietate bat dago NOR-NORI-NORK paradigman hutsune batekin zerikusia duena; hurrengo atalean hutsune honen deskribapen laburra egingo dugu.

2. Hutsune bat euskal aditz laguntzailearen paradigmaman

Azalean beste izaera batekoa dela badirudi ere, aurrekoekin lotura estua duen beste murriztapen bat ikus daiteke euskal aditz laguntzailean. Ezaguna da NOR-NORI-NORK sistemaren paradigmaman NOR komunztadurak hirugarren pertsona izan behar duela nahitaez. Konpara ditzagun (5) eta (6)-ko adibideak:

- (5) a. Zuk, Judas, salduko nauzu
b. Zuk, Judas, zure maisua salduko diguzu
- (6) a. * Zuk, Judas, salduko naiezu erromatarrei
b. * Judasek hi salduko haigu

(5a) adibideak NOR-NORK paradigmaman NOR lehen pertsona posiblea dela erakusten du; (5b)-ko NOR-NORI-NORK paradigmako forman NOR komunztadurari hirugarren pertsona dagokio. Honekin alderatuz, (6a-b) adibideek NOR-NORI-NORK paradigmaman NOR lehen edo bigarren pertsona ezin izan daitekeela erakusten dute.

² Pluragileak beti izan dira problema bat aditz laguntzailearen azterketan, bai ikuspuntu historikotik baita azterketa diakronikoan ere; ikuspuntu historikotik ezaguna da laguntzailean beranduago sartzen direla, adizki multzoan betetzen duten posizio eta formaren aldetik dituzten berezitasunek erakusten duten bezala. Gure ustez, duela gutxi argitaratutako Rezac (2003) da, alde horretatik, pluragileak laguntzailearen sistemaren analisisan era integral batean inkorporatzen dituen proposamenik osoena.

Oso ezaguna da euskal literaturan honen kontraadibide famatuak badirela; izan ere, Bonaparterengandik hona askotan errepikatu diren hamar bat adibide daude Leizarragaren idazkietan zehar.³ Famatuenetariko bi aipatzearen, honako bi adibideak ikus ditzagun:

- (7) a. [...] ecen sacrificatu içan aiz, eta **redemitu garauzac** Iaincoari eure odolaz, leinu, eta mihi, eta populu, eta natione orotari (Apoc 5, 9)
 b. Baina badacussat berce leguebat neure membroetan, ene adimenduco elguearen contra bataillatzen denic, eta ene membroetan den bekatua-
 ren legueari **gathibatzen nerauconic** (Rom 7, 23)

Beñat Oiharzabalek, euskal filologiaren tradizioan nahiko zabaldua dagoen adibide hauei buruzko interpretazio bat jasoz, Leizarragarenak euskara zaharrean arrunta izan zitekeen eta bere garaian arkaismotzat har zitekeen arrasto bat izan daitekeela sujeritzen du. Tradizio honetan interpretatu behar dira, adibidez, Azkuek (1923, §808) idazten dituen hitzok:

El objeto del transporte podría ser una persona, «vos me habéis llevado al padre», que un tiempo se decía (hoy ya no) *zuk ni aitari eroan nauzasu* o *eraman naraukazu (niozu)*. Hoy recurrimos a alguna perífrasis, sustituyendo la desinencia de dativo por la de directo animado; como, por ejemplo, *zuk ni aitagana eroan nauzu (nozu)*.

Baina era honetako adibideak nahiko gutxi dira euskal literatura osoan; goiko paragrafoaren ondoren, Azkuek berak aitortzen du Leizarragarengan besterik ez duela horrelakorik jaso; horri, Duhaldere (1809) beste adibide bat gehi dakioke euskal literatura osoan eta Azkuek lerro batzuk beranduago gehitzen dituen honako lekuko susmagarri hauek:

Una anciana de Dima y otra de Zeanuri me dieron como populares estas flexiones: *ik ni aitari eroan nauusak* tú me has llevado al padre, *zuk ni berari eroan nauzasu* [...].

Ez dirudi, beraz, ideia hau ondo oinarrituta dagoenik; horretaz gain, komunztaduraren aldetik antzekoak izan daitezkeen beste hizkuntzen portaerak ere kontrakoa sujeritzen du. Izan ere, lehen atalean aipatu ditugun fenomenoak, itxura horrekin behintzat, euskarari zuzenean lotu dakeien fenomeno morfologiko edo sintaktikoak badira ere, hemengo paradigmatiko hutsune honek euskara baino askoz eremu zabalagoa du, oso orokorra baita. Hortaz, laugarren atalean zehazkiago ikusiko dugun bezala, komunztadura aberatseko

³ Bonapartek (1869, 83) hauetariko kasu gehienak aipatzen ditu dagoeneko; ikus, baita ere, Lacombe, (1907), Lafon (1944, 397-400), Azkue (1923, 571-573), Zulaika (1998, 209-212) eta bertan aipaturiko erreferentziak.

hizkuntza guztietan, testuinguru berberetan, sistematikoki agertzen den murriztapen bati buruz ari gara.

Aipaturiko tradizioak sujeritzen duenaren kontra, Leizarragaren adibideek beste hainbat lekutan jasotzen den euskal laguntzaileari buruzko intuitzio bat azken muturreraino eramatearen ondorioak dirudite. Forma hauei buruzko eztabaidan Zulaikak (1998) honako aipu hau jasotzen du Inchausperen liburutik:

«Aucun dialecte ne possède de relations indirectes pour les formatifs qui expriment la première et la deuxième personne como régime direct. D'après le système de composition des régimes indirects, il semble qu'on aurait pu dire: je t'offre à lui, *eskéntzen háyot*; tu m'ofres à lui, *eskéntzen náyok, náyon, náyozu*; etc., mais ces sortes de locutions n'existent pas»

Eta, ildo beretik, Azkuek goian aipaturiko pasartearen ondoan bertan honako hau dio:

El pueblo entendería muy bien *zuk ni aitari eroan nauzasu* y creo haber usado en mi *Jesusen biotzaren ila* alguna locución como *ekarri nendiozula* que vois me trajeseis a mí.

Inchauspe eta Azkueren hitzen hariari jarraituz, gure ustez askoz egokiagoa litzateke Leizarragak, euskarak aurkezten zizkion aukerak hartzeko maisua, Testamentu Berriaren itzulpena egiten ari zenean pasadizu konkretu batzutan interesatzen zitzaizkion forma berri hauek asmatu zituela pentsatzea, euskararen aditz laguntzailea sortzeko sistemaren arabera sor eta uler zitekeela (Inchausperen hitzetan, *qu'on [l'] aurait pu dire*) ontzat hartuz.

Aurreko guztiari gehitu behar zaio *a priori* Oiharzabalek jasotako hipotesia hemen aurreratu duguna bezain onargarria izan badaiteke ere, komuntadurara aberatseko beste hizkuntzen portaera bigarren posibilitatearekin koherenteagoa dela euskara zaharrean horrelako formak bazirela postulatzearekin baino.

3. Hiru komuntadurak eta perpausaren egitura

Gramatika Sortzailearen sorreratik, hizkuntzalarion ardura nagusietako bat hizkuntza naturaletarako proposatzen ditugun mekanismo eta egituraketaren muga formalak aurkitzea izan da. Transformazioen atalaren kasuan, sistemaren murriztapenen bilaketa orokor honen ondorioa Ross-en (1968) lanarekin edo oraindik lehenago hasten den ikerketa ildo emankor eta sakon bat da, mugimenduaren eta, orohar, transformazioen eremu lokala postulatzeko duena. Lokalitatearen arazoa beti izan da, beraz, gramatika sortzailearen ardura nagusietako bat.


Azken urteotan, mugimenduan identifikatu izan diren lokalitate baldintza batzuk transformazio operazioaren definizioaren barruan bertan isladatzeko saio ezberdinak ikusi ditugu; harietariko interesgarrienak *Mugimendu Labu-*

rrena edo *Gutxieneko Katea-mailaren Baldintza* izeneko murriztapenak dira, lokalitatea transformazioen arkitekturan bertan jasotzen lortzen dutelako (ikus Chomsky 1993, 1995). Bere eginbeharren artean, sistemaren arkitektura, *Mugimendu Laburrena* barne, Aditz Sintagma barruan sortzen diren argumentuak dagozkien komunztadura posizioetara, eta horietara bakarrik, heltzen direla garantizatzea dago.

Baina, bere formulazioagatik, MLa bezalako printzipioak indartsuegiak direla irudiko luke, euskara bezalako hizkuntzetan agertzen den komunztadura anitzari lekuri ez diotelako. Bestela esanda, *Mugimendu Laburrenak* (ML) edota *Gutxieneko Katea-mailaren Baldintzak* (GKB) hiru argumenturen mugimenduak, hau da NOR-NORI-NORK egiturak, erabat saihesten dituzte. Hatsarrearen formulazioagatik beragatik, osagarri zuzena komunztadura posizioa mugitzen bada, zehar objektua urrunegi gelditzen da tarteko komunztadurara heltzeko eta Aditz Sintagmatik ateratzerik ez du.

- (8) a. Nik gutuna idatzi dut.
b. Nik zuri gutuna idatzi dizut.

(9)




Arazo honen aurrean, zenbait hizkuntzalarik irtenbide ezberdinak esploratu dituzte. Interesgarriena, gure ustez, Fernándezek (1996; liburu honetan) egiten duen proposamena da; ⁴Fernándezek, Koizumi (1993) eta Lasniken (1994) proposamenen ildoari jarraituz, euskal perpausaren egitura berria proposatzen du, hiru komunztadura posible izateko egokitua dena. Lan hauek

⁴ Ikus, baita ere, Cheng eta Demirdache 1993 eta Uriagereka 1995.

Larsonek (1988) eta Hale eta Kayserrek (1993, 1997, 2002) proposatzen duten Aditz Sintagmaren geruza ezberdinen egitura Pollock (1989) eta Chomskyren (1989) komunztadura anitzeko inflexioaren proposamenarekin uztartzen dute, aldi berean bi eremu horiek nahastuz. Bertan, osagarri zuzenari dagokion komunztadura ez dago, hipotesi estandarrean bezala, aditzaren gaineko posizio batean, Aditza Sintagmaren bi zatien artean baizik. Ondorioz, osagarri zuzena Aditz Sintagmaren bi geruzen artean dagoen komunztaduraren espezifikatzaile mugitzen bada ere, zehar objektua mugitutako osagarri zuzena bezain hurbil dago, lokalitate terminoetan, heldu behar duen Komunztadura₂ Sintagmaren espezifikatzailetik, eta ML hatsarreak ez du mugimendua saihesten.

(10)



Aurreko bi ataletan ikusitakoaren ondoren, estrategia hauek, sistemaren propietate eta mugak ikusteko interesgarriak badira ere, muga hauen arazoa saihesteko irtenbide teknikoak direla dirudi eta alternatiba egokiago bat dagoela esango genuke. Esan dugun bezala, osagarri zuzenaren NOR hirugarren pertsonari dagokion komunztadura ez da bakarrik hutsa dela, baizik eta martxan jartzen dituela beste komunztadura eremuetan oso bereziak diruditen estrategia batzuk. Are gehiago, euskal aditz laguntzaile sistemak duen hutsunerik nabarmenena, NOR-NORI-NORK paradigmari dagokiona hain zuzen, NOR argumentuak hirugarren pertsona direnean gertatzen da soilik. Honek guztiak sujeritzen du NOR hirugarren pertsonaren komunztadura hutsa komunztadurik ezaren adierazpen morfologiko bat dela; hau da, murriztapen hauek ikuspuntu teorikoago batetik birformulatuz, egitura ditransitiboetan osagarri zuzena ez da komunztadura posizioetara mugitzen, ez baitu aditzarekiko erlaziorik erkatu behar.

Proposamen honek ondorio zuzen bat du mugimenduaren murriztapen baldintzei dagokiela: eman dezagun Mugimendu Laburrena egokia dela eta, beraz, ez dugula bere eragina murriztu behar predikatu ditransitiboekiko hiru argumentuen mugimendua posiblea izan dadin. Hori horrela bada, hiru argumentuen mugimendua ezinezkoa izan beharko litzateke; hau da, hiru komunztadura sistema ezinezkoa litzateke, ez bakarrik euskaraz, baizik eta hizkuntza natural guztietan. Hurrengo atalean ikusiko dugunez, ikerketa tipologikoek ondorio hauek sustengatzen dituzte.

4. Komunztaduraren paradigmatiko hutsuneak

Bigarren atalean ikusi dugunez, NOR-NORI-NORK-en paradigmaman NOR komunztadura bakar-bakarrik hirugarren pertsona izan daiteke [(11) = (6)]

- (11) a. * Zuk, Judas, salduko naiezu erromatarrei
b. * Judasek zuei salduko naizue

Fenomeno hau ez da, inolaz ere, euskararen aditz laguntzaileari bakarrik dagokion bitxitasun bat. Bonetek (1991) eta, batez ere, Albizuk (1997a,b) erakutsi dutenez, komunztadura anitza duten hizkuntzen arteko ezberdintasun txiki batzuk ikusten badira ere, denek erakusten dute modu batera edo bestera murriztapen berbera. Albizuk, adibidez, oso familia ezberdinetako berrogeita hiru hizkuntzaren analisi tipologiko bat egiten du, hizkuntza hauen arteko portaera ezberdinak eta guztiek fenomeno honen inguruan erakusten dituzten antzekotasunak aurkeztuz.

Bonetek (1991), fenomenoaren ulertzeko oso aurrerapauso handia suertatu zen proposamen bat eginez, klitiko multzoen kasuan gertatzen den *me-lui muga* izeneko fenomenoarekin parekatzen du aurreko fenomenoak; klitiko sistemak dituzten hizkuntzetan, badira zenbait klitiko konbinaketa ezinezkoak direnak. Gaztelaren ondoko adibidean ikus daitekeenez, euskararen aditz laguntzailearen paradigmaman bezala klitiko multzo hauetan ere osagarri zuzena lehen edo bigarren pertsona denean gertatzen da konbinatzeko ezintasun hau, inoiz ez hirugarren pertsona denean [ik. Perlmutter 1974, Bonet 1991, Albizu 1997a,b, eta hauek aipatutako erreferentziak]:

- (12) a. Pedro **me lo** envía
b. * Pedro **le me** envía

Gramatika sortzailearen tradizioan, muga hauen arrazoi morfologiari leporatu zaio analisi gehienetan. Bonetek (1991), adibidez, hutsunearen ondoko deskribapen hau proposatzen du:

- (13) *Pertsona-Kasuaren Muga*: datiboa agertzen bada, akusatiboa/absolutiboa=3en pertsona.

Hipotesi morfologiko hauek justifikatzen dituen arrazoi sakon bat dago: komunztadura eta klitikoaren propietate askok dudarik gabe morfologiaren eremuan kokatzen direla kontutan izanik, fenomeno hau komunztadura eta klitiko multzoekin agertzen denez kandidato ona dirudi morfologiaren barneko azalpen bat jasotzeko. Hala balitz —hau da, arazoa morfologiarena balitz— fenomeno honek ez liguke inolako argibiderik emango bigarren atalean eztabaidaturiko arazoari buruz; baina badira arrazoiak Boneten Pertsona-Kasuaren Mugaren izaera morfologikoa egokia ez dela pentsatzeko. Ondorio hauetara heltzeko, halere, tarteko pausu batzuk ematea nahitaezkoa zaigu.⁵

4.1. «leismoa» eta [+/-bizidun] tasuna

Gaztelaniaren zenbait dialektutan, Euskal Herriko hiztun gehienok partekatzen dugun dialektuan barne, badago oposaketa bat objektu zuzena adierazteko erabiltzen diren *lo* eta *le* klitikoaren artean; lehena objektu ezbizidunentzat erabiltzen da, bigarrena berriz bizidunentzat.

- (14) a. lo vi (el libro).
b. le vi (a mi sobrino).

Interesgarria dena zera da, Boneten generalizazioaren arabera esperoko genukenaren kontra, objektu bizidunak adierazteko erabiltzen dugun *le* klitikoak hirugarren pertsona izan arren, ezin ager daitekeela Pertsona-Kasua Muga agertzen zaigun eremu berberean, hau da, datiboaren klitiko batekin batera:

- (15) a. te lo entregué.
b. * te le entregué (a mi sobrino).

Honek Boneten generalizazioa errebisatu behar dugula sujeritzen du, Pertsona-Kasuaren Mugak egiten duen partiketa lehen/bigarren vs. hirugarren pertsonen arabera egin beharrean, [+/-bizidun] tasunaren gainean eraikiz. Lehen eta bigarren pertsonak berez animatuak direnez, *le* klitikoarekin batera kokatzen dira eta hiru hauek *lo* klitikoaren portaeratik bereizten.

Nabaria da aldaketa honek ez duela mugaren izaera morfologikoa zalanztan jartzen: asumitu behar den aldaketa bakarra jokuan sartzen diren tasunen zehaztapena da eta azalpen morfologiko batekin jarraitu dezakegu. Hala ere, pertsonaren arabera definitu beharrean partiketa bizidun/bizigabearen arabera egiten dugun unean, mugaren eremu enpirikoa esponentzialki zabal-

⁵ Ikus Ormazabal eta Romero (1998a,b, 2003) atal honetan aipatzen ditugun argumentuen justifikazio zehatz eta sakonago baterako eta hauen ondorio teoriko orokorren azterketa baterako. Ikus, baita ere, Anagnastopoulou (1999, 2000).

tzen da eta orain arte kontutan izan ez diren hizkuntza askotako fenomeno asko sartzen dira lehian. Hauek guztiak hemen azaltzeko lekurik ez badago ere, ondoren fenomenoak dela erakusten duten hauetariko batzuk aipatuko ditugu.

4.2. *Mohawk hizkuntzaren objektu bizidunen portaera*

Mohawken, objektu bizidunek bi aukera dute sintaxian: aditzari inkorporatzen zaizkio edo bestela komunztadura erakusten dute aditz laguntzailearekin; bi prozesuetarik bat gertatzen da nahitaez. Bizigabeek, berriz, badute aukera inkorporatzeko edo Aditz Sintagma barruan gelditzeko, baina ezin dute aditzarekin komunztadura erlazioan sartu [Baker 1996, 21 orr., (17) adibidea].

- (16) a. * Ra-núhwe's ne owirá'a
 MsS-maite-OHI NE ume
 'Umeak maite ditu' [Objektu biziduna komunzt. eta inkorporazio-rik gabe: *]
- b. Shako-núhwe'-s (ne owirá'a)
 MsS/3pO-maite-OHI NE ume
 'Maite ditu (umeak)' [Obj. biziduna komunztadurarekin: √]
- c. Ra-wir-a-núhwe'-s
 MsS-ume-ø-maite-HAB
 'Umeak maite ditu [Obj. biziduna inkorporaturik: √]
- d. *? Shako-wir-a-núhwe'-s
 MsS-3pO-baby-ø-like-HAB
 'He likes babies' [Obj biziduna inkorporatuta eta komunztadurarekin: *]

Testuinguru egokietan, beraz, subjektuak eta osagarri zuzenak mantentzeko komunztadura aditz sistemarekin. Hizkuntza askotan gertatzen den legez, Mohawken ere perpausa ditransitiboetan, hiru argumentu agertzen direnean, datiboa eta subjektua dira aditzarekin komunztadura mantentzen dutenak eta objektua komunztadura sistematik desagertzen da.

Egoera honetan, osagarri zuzena bizigabea denean, inkorpora daiteke edo komunztadurarik gabe agertu, egitura iragankor arruntetan bezala. Baina osagarri zuzena biziduna bada, Aditz Sintagma barruan ezin daiteke gelditu, eta inkorporatu egin behar du zilegiztatua izateko [ibid. 206 orr., (38)eta (40) adibideak].

- (17) a. Ká'sere'/*káskare' ^-hi-tsh^ry-a-'s-e'
 kotxea neskalaguna FUT-1sS/MsO-bilatu-BEN-ASP
 'Kotxe bat/*neskalagun bat bilatuko diot'

- b. Λ -hi-skar-a-tsh Λ ry-a-'s-e'
 FUT-1sS/MsO-lagun- \emptyset -bilatu-BEN-ASP
 'neskalagun bat bilatuko diot'

Paradigma honek antza handia du Bonetek Pertsona-Kasua Mugaren bidez azaldu nahi dituen kasuekin. Izan ere, Bakerrek (1996, 194 orrialdean) ematen duen azalpenak Boneten baldintzaren formulazioaren kutsu berbera du goitik behera:

[I]ntuitively, the reason the theme of a triadic verb must be neuter is that agreement with a neuter object is phonologically null. [...] Hence, this type of argument does not overtax the agreement system in Mohawk, which can only represent two elements at a time»

5. Ondorioak

Bai Pertsona-Kasua Mugaren barruan erortzen diren fenomeno multzoetan baita Mohawken kasuan ere ezaugarri nagusia da osagarri zuzen bizidunaren eta zehar objektuaren edo onuradunaren ezintasuna aldi berean komunztadura mantentzeko. Baina aurreko kasuetan ez bezala, Mohawken paradigmaren arazo ezin daiteke morfologiaren barruan xedatu, osagarri zuzenari komunztadura mantentzeko aukerak ixten zaizkionean beste alternatiba sintaktiko batzuk bilatu behar dituelako. Morfemen konbinaketaren arazo bat izango balitz, osagarri bizidunarekiko komunztadura marka ezabatzea eta zehar objektuarekin edo onuradunarekin komunztadura markatzea, osagarri zuzena bizigabea denean gertatzen dena hain zuzen ere, nahikoa litzateke egitura gramatikala lortzeko. Kontrara, paradigma honek erakusten digu osagarri zuzenak betekizun sintaktiko batzuk dituela eta testuinguru zehatz batzutan, Pertsona-Kasuaren Mugaren eremuan erortzen direnak eta hemen aurkeztu duguna besteak beste, beste argumentuen baldintzekin kontrajartzen direla, ezgramatikaltasuna sortuz.

Hori hala bada, *Me-lui* muga eta berari lotuta dagoen Pertsona-Kasuaren Muga orokorragoa fenomeno sintaktikoak dira, perpausa berean bi argumentu baino gehiago biltzen direnean ikus daitekena; pertsona ezberdintasunak baino [+/- bizidun] ezaugarriaren arabera bereizten ditu argumentuak. Hipotesi honen analisiaren abantaila nabaria da, sintaxi mailako baldintza orokorra izateaz gain, inolako estipulaziorik gabe azaltzen duelako zergatik gertatzen den perpaus berean hiru argumentu agertzen direnean; ikusi dugunez, hiru argumentuak komunztadura posizioetara mugitzerakoan, hiruetariko bategen lokalitate baldintzak bortxatzen ditu nahitaez.

Bestalde, ondorio hauek onargarriak dira bakar-bakarrik bigarren atalean esan bezala NOR-NORI-NORK egitura gramatikaletan osagarri zuzenak komunztadura mantentzen ez badu; hau da, esan bezala, sistemak komunztadura mantentzen duten hiru argumentuen egiturak erabat saihesten dituzenez,

NOR-NORI-NORK paradigmako eta, orohar, aditz laguntzailearen sistema osoko NOR hirugarren pertsona ezin daiteke komunztadura izan.

- (18) a. Nik gutuna idatzi dut.
 b. Nik zuri gutuna idatzi dizut.
 c. Gutuna heldu zait.

Hurrengo atalean absolutibo hirugarren pertsona komunztadura ez dela pentsaarazten duten zenbait argudio laburbilduko ditugu.

5.1. *Komunztadurarik eza*

Badira arrazoi asko hirugarren pertsona NOR komunztadura ez dela pentsatzeko, horietariko batzuk lehen eta bigarren atalean aurkeztutako berezitasunekin zerikusi estua dutenak eta beste batzuk sintaxiari lotuak:

Alde batetik, sintaktikoki, inolako argumentuarekiko komunztadurarik ez dagoen testuinguru guztietan agertzen den aditz laguntzailearen forma NOR hirugarren pertsona denean erabiltzen dugun forma bera da; izan ere, aditz ezergatiboekin erabiltzen den laguntzailea edota osagarri zuzena per-pausa denekoa eta absolutiboa hirugarren pertsonarekikoa laguntzaile forma berbera da:⁶

- (19) Liburua irakurri **dut**
 (20) a. [sari bat emango didatela] irakurri **dut**.
 b. gosaldu/iraun/hitzegin **dut**

Bestalde, morfologikoki ere, ez dago hirugarren pertsonarako markarik; lehen atalean eztabaidatu bezala, laguntzailearen hasierako markak ez dira izenordainen jatorrikoak, denbora eta modua adierazten duten markak baizik.⁷

Euskalari gehienek ezaugarri hauetatik ateratzen duten ondorioa zera da, hirugarren pertsona komunztadura marka \emptyset dela. Berriz, fenomeno hauek guztiak aurreko eztabaidarekin uztartzen saiatzen bagara, sortzen den ondorio koherenteena hirugarren pertsonaren kasuan osagarri zuzena eta aditz multzoaren artean komunztadurarik ez dagoela da. Horrek zuzenean esplikaturiko luke zergatik beste NOR-NORI-NORK konbinaketak ezinezkoak diren bitartean, hirugarren pertsonarekikoak berriz arazorik gabe sortu daitezkeen sisteman. Bestalde, ondorio hau oso koherentea da Elorduik (1997) hizkuntz heriotza prozesu zenbaitetan gertatzen denari buruz aurkeztu dituen ondorioekin.

⁶ Ikus, besteak beste, Laka 1993, Oiharzabal 1992, Ormazabal 1991, Gómez 1995, Elordui 1995 eta hango erreferentziak.

⁷ Trask 1977, Laka 1993, Gómez 1995, Gómez eta Sáinz 1995, Elordui 1995, eta bertako erreferentziak.

5.2. *Kasua, komuntadura eta argumentuen mugimendua*

Orain arte argudiatu dugunaren arabera aditzaren hiru argumentu daude, haietarikoa batek gutxienez Aditz Sintagma barruan gelditzen direneta-koa izan behar duela egia bada, gure proposamenak ikuspuntu teorikotik askoz ondorio zabalago eta sakonagoak dakartzan alde bat du: azken hogeita bost urteotan gramatika sortzailearen syntaxiko anilisien gune-gunean egon den Kasu teoriaren hatsarreak errebisatu behar ditugu. Hori horrela da, Kasu teoriak oinarrian jasotzen saitzen denaren egiturazko kasua erkatzen ez duten argumentu sintaktikoak leudekeelako.

Badirudi komuntadurak argumentuak «erakartzen» dituela laguntzailearen morfologian [+/-biziduna] oposaketa dugunean; hortaz, gaztelera estandarren edo euskararen gramatikan bizidun/bizigabea ez dago kodeturik hirugarren pertsonan eta, ondorioz, oposaketa lehen eta bigarren pertsona (bizidunak) vs. hirugarren pertsonaren oposaketan agertzen da bakarrik. Mohawk-ek edo gaztelararen zenbait dialektu *leista*-k, berriz, hirugarren pertsonaren paradigmara ere zabaltzen dute ezberdintasuna. Baina orduan, mugimenduaren motorra eta arrazoia ezin daiteke Kasua izan ez eta, orokorkiago, tasun formalen erkaketa ere, baizik eta izaera semantikoagoa edota fonologikoagoa duten ezaugarri edo tasun batzuren ondorioa.

Erreferentziak

- ALBIZU, Pablo, 1997a, «Generalized Person-Case Constraint: A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology», in A. MENDIKOETXEA eta M. URIBE-ETXEBARRIA, arg.,
- ALBIZU, Pablo, 1997b, *The Syntax of Person Agreement*, [Doktorego tesia], USC, Los Angeles.
- ALBIZU, Pablo, 2001, «Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico», [Eskuizkribua], EHU.
- ALBIZU, Pablo eta Luis EGUREN, 1996, «Ergative Displacement in Basque», [eskuizkribua], USC/Univ. Autónoma de Madrid; *7th International Morphology Meeting*-en, [Vienako Unibertsitatean aurkeztutako hitzaldia].
- ANAGNASTOPOULOU, Elena, 1999, «Person Restrictions», [eskuizkribua], Kretako Unibertsitatea.
- ANAGNASTOPOULOU, Elena, 2000, *The Syntax of Ditransitives: evidence from clitics*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- ARTIAGOITIA, Xavier, 2000, *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, UPV-EHU / Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz.
- AZKUE, Resurrección M, 1923, *Morfología vasca. Gramática básica dialectal del Euskera*. [La Gran Enciclopedia Vascak 1969n berrargitaratua].
- BAKER, Mark, 1996, *The Polysynthesis Parameter*, Oxford Univ. Press, Oxford.
- BONAPARTE, Luis Luciano, 1869, *Le verbe basque en tableaux*; [1991, I. 175-442-n berrargitaratua].
- BONAPARTE, Luis Luciano, 1991, *Opera Omnia Vasconice* (hiru tomo), Euskaltzaindia, Bilbo.

- BONET, Eulalia, 1991, *Morphology after Syntax: Pronominal Clitics in Romance*, MITko Doktorego tesia.
- BONET, Eulalia, 1994, «The Person-Case Constraint: a morphologic approach», H. HARLEY & C. PHILLIPS, arg., *The Morphology-Syntax Connection (MIT Working Papers in Linguistics 22)*, 33-52.
- CHENG, Lisa L. & Hamida DEMIRDACHE, 1993, «External Arguments in Basque», in J.I. HUALDE & J. ORTIZ DE URBINA, arg., 71-87.
- CHOMSKY, Noam, 1989, «Some Notes on the Economy of Derivation and Representation», *MIT Occasional Papers in Linguistics*, MIT, Cambridge.
- CHOMSKY, Noam, 1993, «A Minimalist Program for Linguistic Theory», in K. HALE eta J. KEYSER, arg., *The View from Building 20*, MIT Press., 1-51 [Chomsky 1995, 3. kapituluaren berrargitaratua].
- CHOMSKY, Noam, 1995, *The Minimalist Program*, MIT Press, Cambridge, MA.
- ELORDUI, Agurtzane, 1995, *Hizkuntz heriotza eta aldaketa morfologikoa*, EHU, Doktorego tesia.
- FERNÁNDEZ, Beatriz, 1996, *Egiturazko Kasuaren Erkaketa Euskaraz*, EHU Doktorego tesia.
- FERNÁNDEZ, Beatriz., 2002, «Absolutibo komunztaduradun ergatiboa, absolutibo komunztadurarun datiboa: ergatiboaren lekualdaketa, datiboaren lekualdaketa», In B. FERNÁNDEZ eta P. ALBIZU, arg., *Kasu eta komunztaduraren gainean / On Case and Agreement*. EHUko argitalpen zerbitzua, 147-166
- GÓMEZ, Ricardo, 1995, «Euskal aditz morfologia: VSO-tik SOV-ra?», in J. Orpustan, arg. *Colloque international de linguistique basque: le basque parmi les autres langues; influences, comparaison*, Univ. de Bordeaux III-CNRS, Bordeaux-Bayonne.
- GÓMEZ, Ricardo eta Luis SAINZ, 1993, «On the Origin of the Finite Forms of the Basque Verbs», in J.I. HUALDE, J. LAKARRA eta L. TRASK, arg., *Towards a History of the Basque Language*, John Benjamins Pub., Amsterdam, 235-274.
- HALE, Ken eta Samuel J. KEYSER, 1993, «On Argument Structure and the Lexical Expression of Syntactic Relations», in K. HALE eta S. KEYSER, arg. *The View From Building 20. Essays in Honor of Sylvain Bromberger*, MIT Press.
- HALE, Ken eta Samuel J. KEYSER, 1997, «The Limits of Argument Structure», in A. MENDIKOETXEA eta M. URIBE-ETXEBARRIA, arg., *Theoretical Issues at the Morphology-Syntax Interface*, Euskal Herriko Unibertsitatea/Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilbo/Donostia.
- HALE, Ken eta Samuel J. KEYSER, 2002, *Prolegomena to a Theory of Argument Structure*, MIT Press.
- INCHAUSPE, Abbé, 1858, *Le Verbe Basque*, Baiona [berrargitalpena, Hordago, Euskal Klasikoak, Donostia, 1979].
- KOIZUMI, Masatoshi, 1993, «Object Agreement phrases and the Split VP Hypothesis», in J. BOBALJIK eta C. PHILLIPS, arg., *Papers on Case and Agreement*, MITWPL 18, 99-148.
- LACOMBE, G., 1907, «Additions et corrections du prince L.L. Bonaparte sur un exemplaire de son *Verbe Basque*», *Revista Internacional de Estudios Vascos* I, 413-415.
- LAFON, René, 1944, *Le système du verbe basque au xvième siècle*, [Berrargitalpena: Elkar, Donostia, 1980].
- LAKA, Itziar, 1989, «Buru mugimendua eta bere propietateak», in P. SALABURU, arg. *Sintaxi teoria eta euskara*, EHUko argitarapen zerbitzua, 55-72.

- LAKA, Itziar, 1993, «The Structure of Inflection: a case study in X⁰ syntax», in J.I. HUALDE & J. ORTIZ de URBINA, arg., *Generative Studies in Basque Linguistics*, J. Benjamins, Amsterdam, 21-70.
- LANDA, Alazne, 1995, *Conditions on Null Objects in Basque Spanish and their relation to leísmo and clitic doubling*. Doktorego tesia, USC.
- LARSON, Richard, 1988, «On the Double Object Construction», *Linguistic Inquiry* 19.3, 335-91.
- LASNIK, Howard, 1994, «Case and Expletives Revisited: on Greed and other human failings», *Linguistic Inquiry* 25.
- OLARREA, Antxon, 1995, «Notes on the Optionality of Agreement», *ASJU* 29.1, 133-174.
- ORMAZABAL, Javier, 1991, «Modal Verbs in Basque and Verb Movement», in J. LAKARRA eta I. RUIZ ARZALLUZ arg., *Memoriae L. Mixelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 835-845.
- ORMAZABAL, Javier, 2000, «A Conspiracy Theory of Case and Agreement», in R. MARTIN et al., arg., *Step by Step: Papers in Honour of Howard Lasnik*, MIT Press.
- ORMAZABAL, Javier eta Juan ROMERO, 1998a, «Attract-F: a case Against Case», [eskuzkribua], EHU/Univ. Autónoma de Madrid [GLOW 21n, Tilburgen, irakurritako hitzaldia].
- ORMAZABAL, Javier & Juan ROMERO. 1998b. «On the syntactic nature of the *me-lui* and the Person-Case Constraint». *ASJU* XXXII-2, pp. 415-434.
- ORMAZABAL, Javier & Juan ROMERO, 2003, «Agreement Restrictions». [Eskuzkribua], EHU/Universidad de Alcalá [*Natural Language and Linguistic Theory*-n argitaratzen]
- ORTIZ DE URBINA, Jon, 1989, *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris Pub. Dordrecht.
- OYHARÇABAL, Beñat, 1989, «Izenordain espletiboak eta euskal aditzaren morfologia», in P. Salaburu, arg., *Sintaxi teoria eta euskara*, Donostia, EHU (Uda Ikastaroak), 109-120.
- PERLMUTTER, David, 1971, *Deep and Surface Structure Constraints in Syntax*, Rinehart & Winston.
- POLLOCK, Jean-Yves, 1989, «Verb Movement, UG and the Structure of IP», *Linguistic Inquiry* 20.3, 365-424.
- DE RIJK, Rudolph P.G., 1998, *De Lingua Vasconum: Selected Writings [=DLV]*, Supplements of the Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo, UPV-EHU, Bilbo.
- REZAC, Milan, 2003, «The Fine Structure of Cyclic Agree», *Syntax* 6.2, 156-182.
- ROMERO, Juan, 1997, *Construcciones de doble objeto y gramática universal*, UAMeko doktorego tesia.
- ROSEN, Carol, 1990, «Rethinking Southern Tiwa: the geometry of a triple-agreement language», *Language* 66, 669-715.
- ROSS, J.R., 1968, *Constraints on Variables*. Doktorego tesia, MIT.
- TRASK, R.L., 1980, «Basque Verbal Morphology», *Iker* 1, Euskaltzaindia, Bilbo, 285-304.
- TRASK, R.L., 1997, *The History of Basque*, Routledge, London.
- URIAGEREKA, Juan, 1995, «Formal and Substantive Elegance in the Minimalist Program», in C. WILDER eta beste, arg. *The Role of Economy Principles in Linguistic Theory*, Akademie Verlag.
- ZULAIKA, Esther, 1998, *Ioanes Leizarragaren aditza*. Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

ABSTRACT

Agreement, three perspectives (II): lack of absolutive agreement

The aim of this paper is to present evidence supporting our claim that the three-way agreement pattern in the Basque auxiliaries, the so-called NOR-NORI-NORK (absolutive-dative-ergative) paradigm, is in fact a NORI-NORK (dative-ergative) paradigm and does not trigger absolutive agreement with the direct object. Our proposal is based on the analysis of a well-known gap in the auxiliary paradigm, where the NOR-NORI-NORK combination is restricted to third person NOR (absolutive) arguments. This restriction is related to the more general Person-Case Constraint present in a large variety of languages containing rich agreement and clitic systems. The paper briefly presents some consequences of assuming that third person direct object arguments do not trigger (syntactic and morphological) agreement with the verbal complex.

Hustuketa: sintaxia eta pragmatika

Iñaki Amundarain Arana

Sarrera

Hustuketa edo *gapping* aipatzen denean ondorengo bezalako adibideez ari gara¹:

- (1) Tom has a pistol and Dick a sword.

Ross izan zen hauen analisi sintaktikoei bultzada eman ziena, eta jarraian agertzen zaiguna bezalako erregela baten ondorioztat zeuzkan (Ross 1970, 251):

«This rule operates to delete indefinitely many occurrences of a repeated main verb in a conjoined structure.»

Laster konturatu ziren ordea aditzaz gain beste zenbait elementu ere gera zitezkeela isilean. Bestalde, (1)-eko adibidean aditzik gabe eskuineko perpausa agertzen bada ere, zenbait hizkuntzatan ezkerrekoa agertu ohi da. Horrelakoen erakusgarri modura japonierako adibide bat ematen digu Ross-ek (1970, 251):

- (2) a) watakusi wa sakana o tabe, Biru wa gohan o tabeta
I (prt) fish (prt) eat, Bill (prt) rice (prt) ate
(I ate fish, and Bill ate rice)
b) watakusi wa sakana o , Biru wa gohan o tabeta
I (prt) fish (prt) , Bill (prt) rice (prt) ate
(I ate fish, and Bill ate rice)

Euskaraz bi eretako egiturak aurki litezkeen arren², hemen lehenengo motakoez jardungo dugu, eta dituzten ezaugarriez eta bete behar dituzten baldin-

¹ Lan hau burutzeko garaian Eusko Jaurlaritzaren Ikerlariak Prestatzeko Doktoareurreko beka baten laguntza izan nuen.

² Gastañagak (1977) mota bakoitzerako adibide hauek ematen zituen:

(i) Lindak ardaia edaten dau ta Anderrek esnea.

(ii) Lindak ardaia ta Anderrek esnea edaten dabez.

Amundarainek (1997) (ii) adibidea hustuketatzat hartzeak dakartzan arazoak agertzen ditu.

tzez hitz egingo dugu. 1. atalean, labur baino laburrago, hustuketaren berri emateko proposatu dituen analisi nagusiak agertuko ditugu: guztiak ere sintaxi soilean oinarritu dira, eta guk defendatuko dugu pragmatikak ere badauela zeresana. 2. atalean literaturan zehar hustuketa-egiturentzat aipatu izan diren ezaugarriak azalduko ditugu, eta horren ondoren, 3. atalean, ezaugarri horiek euskarako datuekin alderatuko ditugu, eta erakutsiko dugu literaturan egin den karakterizazioa zurrunegia dela: guk euskaraz bildutako datuetako asko ez datoz bat karakterizazio horrekin; gainera, ez da somatzen zer arrazoi sintaktiko izan litekeen baldintza horietako gehienen azpian, eta «ad hoc» gertatzen dira. Horren guztiaren ondorioz, 1. atalean agertutako analisisietako asko dauden daudenean desegokiak dira, eta hustuketa-egituren pragmatika ere kontuan izanik egindako ikuspegi bat proposatuko dugu 4. atalean.

1. Analisi desberdinak

1.1. Ezabaketa

Formulazio desberdinak izan diren arren, mailaren bateko berdintasunagatik bigarren perpauseko elementuak ezabatu egiten direla defendatzen du hurbilketa honek³.

- (3) Mikelek haragia jan du, eta Pellok arraina (jan du)

Beraz, parentesi artean dagoen hori ezabatu egingo litzateke.

1.2. Analisi interpretatiboa

Aurreko hurbilketaren beste aldea edo izango genuke⁴. Oinarrian nolabaiteko kategoria isilen bat egongo litzateke, eta kategoria isil hori aurreko elementuekiko nolabaiteko berdintasunaz berreskuratuko genuke:

- (4) Mikelek haragia jan du, eta Pellok arraina \emptyset

Autore desberdinek proposamen desberdinak egin dituzte kategoria isil horren izaeraz, berdintasunaren nozioaz eta berreskuratze-prozesuaz.

³ Gramatika sortzailearen tradizioan gehienek bide hau hartu dute. Esanguratsuenak aipatzearren: Ross 1970, Hankamer 1979, Neijt 1979, Sag 1980, Van Oirsouw 1987. Euskarari buruz zerbait esan dutenek ere bide hau erabili dute: Gastañaga 1977, Salaberri 1985, Eguzkitza 1986, Artiagoitia 1995.

⁴ Bide hau ere hizkuntzalari ugari hartu dute: Williams 1977, Wasow 1979, Brucart 1987.

1.3. *Osagaien juntadura*

Beste zenbait hizkuntzalari (Hudson 1976, Sobin 1982) hustuketa-egiturak perpaus-juntaduratzat hartzearen aurkako dira: beren ustez (5a) egitura (5b) bezalako batetik sortzen da.

- (5) a) Max prefers fish and Mary oysters.
b) Max and Mary prefer fish and oysters.

Beraz, hustuketa-egiturak osagai-juntaduretatik eratortzen dituzte, eta ez perpaus-juntaduretatik. Ondoren, ordena linealaren eta komunztaduraren berri emateko transformazio boteretsuak edo osagai ez-jarraikorrak proposatu beharrean gertatzen dira.

1.4. *Gramatika kategorialak*

Transformazioarik onartzen ez denez, hustuketa mota bereko osagaien juntadura dela aldarrikatzen dute, eta osagaiak, malguagoak, era desberdine-ra definitzen dira. Proposamen ugari izan dira. Steedman-ek (1990), esaterako, hustutako elementua beste elementuak uztartzen dituen operatzailetzat hartzen du. Era intuitibo batean:

- (6) Mikelek haragia jan du eta Pellok arraina.
Jan du [(Mikelek, haragia), (Pellok, arraina)]

Analisi honek dakarrena da nahitaezkoa dela hustutakoak uztartzen dituen elementu horiek guztizko paralelotasun sintaktikoa izatea.

1.5. *Hiru dimentsiotako analisiak*

Goodall-ena (1987) da lehenengo analisisia⁵. Perpaus markatzaileen nozio berriak erabiliz, proposatzen dute, elkar ez menderatzeaz gain, juntadurako elementuak ez daudela linealki ordenaturik, eta forma fonetikoko linearizazio-printzipio baten ondorioz sortzen direla hustuketa-egiturak:

- (7) John saw Bill, and Alice Tom
-

Hau da, juntagaiak maila berean eta ordenatu gabe egongo lirateke, eta hustuketa-egituretan linearizazio printzipio batek gero *Alice* eta *Tom* osa-

⁵ Beste analisi batzuk: Muadz 1991, Moltmann 1992.

gaiak (7)-n bezala ordenatuko lituzke. Horrela, juntadura guztiak batera biltzen dituzte, eta berriro ere guztizko paralelotasun sintaktikoaren hipotesiaren gainean eraikitzen dute beren analisia.

1.6. *Laburpena, eta pragmatikaren garrantzia*

Desberdintasunak agerikoak diren arren, hurbilketa hauek zenbait puntutan bat datoz⁶: guztiek ere egitura sintaktikoari bakarrik begiratzen diote, eta ia guztiek juntagailuz bi aldeetako sintaktikoki guztiz paraleloa —2.2.n aipatuko dugun zentzuan— delako ideiarekin lan egiten dute. Nire proposamena da ordea alderdi pragmatikoei jaramonik egin gabe ezin dela hustuketaren ikuspegi egokirik izan.

Nire aburuz, egitura pragmatikoari dagokionez, hustuketa-egituretan bi mintzagairi buruz oso pareko iruzkina egiten dugu, beti ere iruzkin horiek elkarrean aurrean jarritako galdegaiak dituztelarik. (Z)-n agertzen dena bezako egitura pragmatikoa izango lukete:

- (Z) Mikelen amak sei liburu oparitu zizkidan, eta nire aitonak mendiko botak $\emptyset \emptyset$
mintzagaia galdegaia mintzagaia' galdegaia'
iruzkina iruzkina'

Honela, nire iritiz hustuketa-egiturak karakterizatzeko erarik egokiena beren baldintza pragmatikoetatik abiatu eta gero baldintza pragmatiko horiek sintaktikoki nola adierazten diren begiratzea da. Lehen aipatu ditugun proposamenek ordea ez zuten alderdi pragmatikoa aintzat hartzen, eta horren ondorioz hustuketaren ezaugarrien berri emateko egin diren aldarrikapenak askorekin arazoak sortuko zaizkigu, nik bi alderditan banatuko ditudanak: batetik, motibazio sintaktikorik gabeko aldarrikapenak eta baldintzak dira, «ad hoc» suertatzen direnak; bestetik, baldintza pragmatikoak aldatzen hasten garenean, aldarrikapen horiei jaramonik egiten ez dieten adibideak erraz aurkitzen dira. Horrela, lehenik literaturan egitura-mota honi lotu izan zaizkion ezaugarri nagusientsuenak agertuko ditut, eta 3. atalean, euskarako da-tuetatik abiatuz, aldarrikapen horien desegokitasuna azaltzen saiatuko naiz, gero 4. atalean nire ikuspegia agertzeko.

2. Hustuketaren ezaugarriez

Hustuketari buruzko analisiak egin direnean egitura hauei ezaugarri jakin batzuk egotzi zaizkie. Atal honetan ezaugarri horiei buruz literaturan egin diren aldarrikapenik hedatuena agertuko ditugu.

⁶ Beste zenbait hurbilketa: GPSG-en bidetik eginak (Sag eta beste 1985), dependentzien gramatikenak (Hudson 1989), egitura kontzeptualean oinarrituak (Nishioka 1992).

2.1. *Hustuketa juntaduran*

Hustuketa beti juntaduraren esparruan aztertu izan da; menperakuntzaren alorrean ezin da hustuketa egin (Hankamer 1979, 18):

- (8) *Alfonse stole the emeralds because Mugsy the pearls.

Esanahia berreskuratzeko mekanismoak perpaus-gramatikakoak edo perpaus-gramatikaz kanpokoak diren eztabaidatu da, baina orokorrean perpaus-juntadurakoa balitz bezala jokatu dute ikerlariek.

2.2. *Hondakinak*

Hondakinei (remnant) buruzko baldintzak ere aipatu izan dira. Aldarrikatu da hustuketadun perpaus-agerian geratzen diren elementuek kopuru mugatua izaten dutela: gehienetan bi bakarrik izaten dira eta bi horietako bat subjektua izan ohi da; hiru badira, AS-ren barnean subkategorizatu gabeko elementua beharko du izan hirugarrenak (Jackendoff 1971):

- (9) *?Willy put the flowers in a vase, and Charlie the book on a table.

Hizkuntza desberdinetarako aukera parametrikokoak aipatu dira (Neijt 1979), baina ideia hori ez da garatu, eta bereziki ez zaio motibaziorik aurkitu (Rooryck 1985).

2.3. *Paralelotasuna*

Literaturan zehar behin eta berriz aipatu izan da hustuketa-egituretan parte hartzen duten perpaus-egiturek paraleloak izan behar dutela. Honako hau dio Sag-ek (1980, 192):

«Gapping remnants must also, in some poorly understood sense, be parallel to corresponding elements in the left conjunct.»

Hizkuntzalari guztien lanetan aurkitzen ditugu eskakizun horren aztarnak. Orokorren bi eratara ulertu da:

a) Hustutako perpaus-egiturek hondakinek kategoria bereko kidea behar dute perpaus osoan (Hankamer 1979, 23):

- (10) a) Marvin stole with caution and Harry stole diamonds.
b) *Marvin stole with caution and Harry diamonds.

Baldintza hori (11)-ren bidez adieraz liteke:

- (11) ez---> A B C D E F G eta A' H

A'-k badu ezkerreko perpaus-egituren mota bereko elementu bat (A), baina H-k ez du parekorik, eta orduan ezin da hustuketa egin.

b) Eskuineko perpausean agerian dauden elementu guztiek beren kidea dute ezkerreko perpausean, eta ezkerreko perpauseko elementuen artetik eskuinekoan kiderik ez dutenak nahitaez ulertu behar dira eskuinekoan, agerian baleude bezala interpretatu. Alegia, (12) bezalako zerbait behar dela:

(12) R S T Aditza U X Y Z eta R' [S T aditza U X Y] Z'

2.4. *Ezeztapena*

Ezezko perpausetan hustuketa egin nahian hasten garenean gauzak asko korapilatzen dira. Honi buruzko lehen aipamena Ross-ek berak (1970, 250) egiten du:

- (13) a). I didn't eat fish, Bill didn't eat rice, and Harry didn't eat rosat beef.
b) * I didn't eat fish, Bill rice, and Harry roast beef.

Jokaera honen zergatia ez da garbi ikusten (Sag 1980, 195): «This is a curious property of Gapping which remains misterious».

2.5. *Anbiguotasuna*

Aldarrikatu izan da anbiguo izan litezkeen adibideetako batzuek zenbait irakurketa eragotzita dituztela. Adibidez, (14a)-k teorian (14b) eta (14c) irakurketak izan zitzakeen, baina (14c) ez omen da zuzena:

- (14) a) Bill expects Harry to find the way to the party, and Sue to find the way home.
b) Bill expects Harry to find the way to the party, and (Bill expects) Sue to find the way home.
c) *Bill expects Harry to find the way to the party, and Sue (expects Harry) to find the way home.

Hori esplikatzeko baldintza bereziak proposatu izan dira. Hankamer-ek (1973), esaterako, zioen bi deribazio posible genituenean, hutsunea ezkerrean zuena bakarrik onartzen zela. Horregatik, (14c) ez da zuzena izango⁷. Baldintza horren, eta azken batean jokaera osoaren zergatia ez zen ikusten.

3. **Hustuketa euskaraz**

Orain bildu ditugun puntu hauetako zenbaiti buruz eztabaidak izan diren arren, hustuketa-egiturek ezaugarri horiek balituzte bezala jokatu dute lan gehienek. Euskarazko hustuketa-egiturei begiratzean ordea segituan ohartzen

⁷ Proposamen ugari egin dira: Langendoen 1975, Stillings 1975, Kuno 1976, Thráinsson 1975, Jake 1977.

gara aurreko atalean azaldu ditugun literaturako aldarrikapenak ezin direla inolaz ere mantendu.

3.1. *Hustuketa juntaduratik at*

Literaturan esan denaren aurka, hustuketa-egiturak juntaduratik kanpora ere aurki litezke. Adibidez, diskurtsoan lehenago eman den perpaus batekiko berdintasuna dagoenean:

- (15) «Nire bi langile-lagunak kanpoan izan dira abuztuan. *Mikel Nepal-era joan da*, baina ez du espero zuenik aurkitu. *Ez da harritzekoa, udan Nepal aldea turistaz bete* *egoten da eta*. *Joxe berriz Indiara*, eta askoz errazago izan zaio bertako kulturaren murgiltzea.»

Letra etzana duen bigarren perpausa letra etzana duen lehenera joz interpretatzen dugu. Baina bi perpaus horiek ez daude koordinaturik. Tartean guztiz askea den perpaus bat daukagu, azpimarratutako perpausa. Eta hitzun gehienek horrelakoak ontzat ematen dituzte. Badirudi, hortaz, perpaus gramatikatik at joan behar dugula esanahia lortzeko. *Berriz* aurkaritzako lokailuak zeregin horretan laguntzen du. Euskarari buruzko lanetan ere aurkitu dugu era honetako adibiderik (Altuna 1986, 72):

- (16) «Etxeparek aitzitik *baietare* dio zazpi bertsotan: (...). *Bai* soilik ere erabiltzen du, kopulatibo gisa noski, baina hori geroko beste kapitulu bati dagokio eta han aztertuko dugu, lehen *ez bezala*. *Ere gabe bai eta, Leizarragak bezala, inoiz ez*. *5. Axularrek ere ez behin ere*: ez *ere* duela eta ez *ere* gabe. (...). Darabilten beste autoreen artean aipamen berezia (...)»

Azpimarratutako bi zatietan *erabili* aditza ulertu behar dugu, baina zuzeneko juntadurarik ez dago.

Nolanahi ere, horrelako adibideek baldintza nahikoa zorrotzak jarraitu behar dituzte, ezin dira edozein diskurtso zatitan nolanahi agertu. Perpaus osoaren eta hustuketadunaren arteko distantzia handiak zaildu egiten ditu era honetako adibideak. Baina hori baino garrantzitsuagoa, bi perpausen arteko erlazio berezi bat behar dela dirudi: emendioaren eta banakaritzaren ideiek garrantzi handia dute, eta pragmatikaren aldetik hustuketadun juntaduren antzekoak dira, bi mintzagai desberdini buruz pareko iruzkinak egiten dira, galdegaia desberdina delarik. Azken puntu honetan dirudi gainera dagoela horrelakoen onargarritasunaren munita: hustuketa izateko pragmatikaren aldetik guztiz paraleloak diren bi perpaus behar ditugu. Bi perpaus horiek gehienez sintaktikoki juntaturik egongo dira, baina ikusten dugu hustuketa-egiturek perpausaren mugetatik kanpora ere begira dezaketela esanahia lortzeko, baldin baldintza pragmatikoak egoki betetzen badira. Literaturan ez dira kontuan izan era honetako adibideak, eta hustuketaren berri osagai-juntaduraren bidez edo gramatika kategorialak edo hiru dimentsiotako analisiak erabiliz eman nahi dutenek ezin dute honen berri eman.

3.2. *Hondakinak*

Literaturako lan gehienek esan dutenaren aurka, euskaraz behintzat ez dago arazo handirik bi hondakin baino gehiago izateko, eta ezta subjektua bigarren perpausean isilean uzteko edo AS-ren barnean aditzak subkategorizatutako bi elementu izateko ere:

- (17) Joxeri Donostian bi liburu oparitu nizkion, eta Mireni Baionan diska bat.

Hustuketako bi hondakinetako bat hori subjektua ez baino mintzagaia dela esaten badugu euskarazko adibidea askoz egokiago esplikatzen da, eta ingelesez gertatzen denaren berri ere eman ahal izango dugu: erabili diren adibide gehienak inolako testuingururik gabe emanak dira, eta horrelakoetan joera oso bortitza da mintzagaitzat subjektua hartzeko; dena den, baldintza pragmatiko eta hitzordena egokiekin beste edozein elementu ere izan liteke mintzagai. Eta bestalde, literaturan normalean topikalizatutako eta fokalizatutako elementu bana izan ohi direnez, adibiderik gehienetan bi hondakin bakarrik izango ditugu, baina ez da nahitaezkoa.

3.3. *Paralelismo sintaktikorik eza*

Literaturan guztizko paralelismo sintaktikoaren inguruan nabarmendu ditugun bi aldeetan ere aurkako datuak aurki litezke. Batetik, hustuketa-egituretan kategoria, funtzio sintaktiko nahiz nozio semantiko desberdineko elementuak jar litezke aurrez-aurre, baldin pragmatikoki erlazioa badaitezke. (18) eta (19)-n garbi ikusten da hori: (18)-n posposizio sintagma bat eta osagarri zuzena daude aurrez aurre, eta hiztun gehienek ez dute arazorik ontzat emateko (Joxek eta Mirenek biek ere asko gastatzen dutela nabarmendu nahian erabilia):

- (18) Asteburuetan Joxek *izugarri leku garestietan* jaten du, eta Mirenek *janari harriki finak*.

(19)-n bi posposizio sintagma, baina azpiko nozio semantiko desberdinekoak:

- (19) Osasunak *Sevillaren aurka* jokatu du igandean, eta Errealak *Nou Camp-en*.

Beraz, egia da normalean kategoria, funtzio sintaktiko eta nozio semantiko bereko elementuak aurkituko ditugula, baina hustuketa-egiturek bete behar dituzten eskakizun pragmatikoak egoki betez gero bestelako adibideak ere aurki litezke. Bestalde, gerta liteke eskuineko perpausako elementu batek ezkerrekoan kiderik ez izatea:

- (20) Nik hiru aldizkari erosi ditut, eta Pellok *bere semeari* liburu bat.

Eta ezkerreko perpauseko elementu guztiak ez dira nahitaez hustutako perpausean ulertu behar:

«Mirenek uztailean lan egiten duenez atzo atera zuen abuzturako abioi-txartela, eta dagoeneko esan liteke erabakita daukagula oporretan Euskal Herritik ateratzea. *Zorte apur bat badut ni uztailean* Irlandara joango naiz, eta Miren Guatemalara».

Pasarte honetan ez dut uste nahitaezkoa denik Miren Guatemalara *uztai-lean* eta *zorte apur bat badu* joango dela ulertzea.

Datu hauek guztiak kontuan izanik, ikusten dugu literaturan zehar nahitaezkotzat jo den perpausen arteko egitura sintaktikoko paralelotasuna —berdintasuna— ez dela hustuketa-egituren eskakizunetako bat: egia da hustuketa-egiturak paraleloak direla, baina paralelotasun hori oinarrian pragmatikoa da, mintzagai-egiturakoa. Paralelotasun pragmatiko horrek guztiz gehienetan sintaxi-egiturako paralelotasuna ekartzen du, sintaxiaren bidez adierazten baita, baina beharrezko den paralelotasun pragmatiko horri erasaten ez dion heinean zilegi da bi perpausen artean guztizko berdintasun sintaktikorik ez izatea. Horrek arazo larriak sortzen dizkie perpausen arteko guztizko paralelotasun sintaktikoaren gainean eraikirik dauden analisi guztiei.

3.4. *Hustuketa ezezkoetan*

Literaturan aipatu izan da, salbuespen batzuk kenduta⁸, ezezko perpausetan hustuketa ez dela zilegi. Euskaraz ere testuingururik gabe eta ordena neutroarekin emandako adibideetan normalean perpaus okerrak lortzen dira. Begira (21)-i:

(21) *Jonek ez du arraina jan, eta Pellok haragia.

Baina hori nire ustez desegokitasun pragmatikoaren ondorio da, ez da berez baldintza sintaktikoa: izan ere, lehenengo perpausean ezezkotasuna izango genuke galdegaia, bigarrenean objektua, eta bi elementu horiek ezin dira pragmatikoki egoki erlazionatu.

Ezezko perpausen baldintza sintaktikoei begiratzeak auzia bere osotasunean hobeto ulertzen laguntzen digu. Horrela, (21)-en ezeztapena bera genuen galdegai, baina Oihartzabalek (1985) agertzen duen bezala, bada ezezkoen artean beste mota bat, berak «zati-ezeztapendun» deitzen dituenena: perpaus horietan asertzio positiboa daukagu, eta ezezkoa alde aurretik emana delarik, ezezko horri dagokion osagaia da galdegai bakarra. Begira (22)-ri:

(22) Pellori zer ez zaio gustatzen? Pellori **arraina** ez zaio gustatzen.

⁸ Salbuespen horiek Siegel (1984) eta Authier-en (1990) lanetan zehazten dira.

Arraina izango genuke galdegai bakarra. Horrelako perpausetan, bada, zilegi da hustuketa:

- (23) Pellori **arraina** ez zaio gustatzen, eta Mireni **haragia**.

Eta ildo beretik jarraituz, ezeztapena perpaus osoari dagokion adibideetan (hau da, (21) bezalakoetan), eskuineko perpausuan ezkerreko galdegaiari (alegia, ezeztapenari) gogor egingo dion galdegai egoki bat badugu adibidea zuzena izango da. Hori gertatzen da (24)-n:

- (24) Olanok ez du Espainiako itzulia irabali, baina Indurainek Frantziakoa bai.

Beraz, euskararen datuei begiraturaz bederen literaturan ezezko perpausuetan hustuketa egitearen aurka eman den debekua ezin izango litzateke inolaz ere mantendu. Behin gehiago, berez baldintza pragmatikoa dena baldintza sintaktiko modura interpretatu da literaturan, baina ikusten dugu hustuketa egituren eskakizun pragmatikoak betetzen direnean debeku sintaktiko hori zentzurik gabea suertatzen dela.

Gainera, ezeztapendun eta baieztapendun adibideekin ari garelarik, bada *Verb Phrase Deletion* deitutako fenomeno bat hustuketatik nahikoa hurbil dagoena, baina zenbait ezaugarritan alden du egiten dena:

- (25) John doesn't speak Basque, but Peter does.

Euskaraz ere badira paretsukoak, ezeztapena eta baieztapena agerian izan ohi dituztenak:

- (26) a) Jon ez da mendira joan, eta Miren ere ez.
b) Jon mendira joan da, eta Miren ere bai.

Ni ordea era honetako adibideak hustuketarekin batera biltzearen aldekoa naiz, eta uste dut (24) bezalakoekin erlazionatu beharko genituzkeela. Hustuketa-egiturei buruz esan dugu bi mintzagairi buruzko pareko iruzkina dugula, beti ere galdegaiak kontrajarriak direlarik. (26) bezalakoetan eskuineko perpausuko hondakina mintzagaitzat hartzen dugu, eta mintzagai horri buruzko iruzkina ezkerreko perpausuan eman den bera da, horregatik agertzen da *bai* adberbioa baieztakoetan eta *ez* ezezkoetan. Hori da desberdintasun bakarra. Gainerakoan antzerako jokaera dute. Adibidez, hustuketan bezalaxe hauetan ere bigarren perpausuan agerian geratzen den elementua edozein izan liteke:

- (27) a) Parisen Joxek lagun onak ditu, eta Erroman ere bai.
b) Datorren urtean Atxaga ohorezko asteasuar izendatuko dute, eta Lope-tegi ere bai.

Era honetako adibideak *Aditz Sintagmaren Ezabaketa* deiturapean bildutako egitura bereziak bagenitu, sarritxotan beren deiturari men egin ezinik geratuko lirateke. Beraz, laburpen modura, ezezko perpausekin ere izan ditzakegu hustuketa-egiturak, eta ingeleseko *Verb Phrase Deletion*-en tankera-koak euskaraz hustuketarekin batera bildu behar dira.

3.5. *Anbiguotasuna eta mugimendua*

Euskaraz ez da ikusten anbiguotasunen aurka inolako debeku berezirik: (28a) perpausak (28b) eta (28c) interpretazioak izan ditzake:

- (28) a) Gobernuak esan du ekonomiak gora egin duela, eta oposizioak behera.
 b) Gobernuak esan du ekonomiak gora egin duela, eta (gobernuak esan du) oposizioak behera (egin duela).
 c) Gobernuak esan du ekonomiak gora egin duela, eta oposizioak (esan du ekonomiak) behera behera (egin duela).

Egia da berriro ere irakurketarik ohikoena hutsunea ezker muturrean duena dela, baina nire ustez sintaxiarekin zerikusirik ez duten zenbait faktorek izan lezake hor eragina: a) eskuineko perpausa azkena emandako osagairekin juntatzeko joera; b) lehenengo perpausaren subjektu nagusia informazio zahartzat hartzeko joera. Hortaz, Hankamerrena bezalako debekuek ez lukete zentzurik izango.

Badira ordea zenbait adibide irakurketetako bat eragotzia dutenak. Begirara (29)-ri:

- (29) a) Mikel damutu zen Pello **mendian** ikustean, eta Josu hondartzan.
 b) Mikel damutu zen Pello **mendian** ikustean, eta (Mikel damutu zen) Josu hondartzan (ikustean).
 c) *Mikel damutu zen Pello **mendian** ikustean, eta Josu (damutu zen Mikel) hondartzan (ikustean).

Itxura batean aurrekoaren oso parekoa da, baina (29c)-ko irakurketa debekaturik dago. Dena den, arrazoa ez doa Hankamer-ek proposatutako bide-tik: badirudi hondakinen artean egiturazko distantzia jakin bat behar dela, eta distantzia hori baino handiagoa dagoenean adibideak okerrak suertatzen direla. Horrela, ohartzen gara NZ hitzek mugimendurako zeharka dezaketen distantzia ((a) adibideak) eta hustuketako hondakinen artean ((b) adibideak) dagoena berbera dela. Gramatikaltasun-irritziak ere pearn doaz:

- (30) a) Zer erosi du Joxek?
 b) Nik katua erosi dut, eta zuk zakurra.
- (31) a) Non gustatzen zaio Joni erosketak egitea?
 b) Joni erosketak Mamut-en egitea gustatzen zaio, eta Mireni Eroskin.

baina...

- (32) a) *Nork irakurri dut t idatzitako liburua?
 b) *Nik Kunderak idatzitako liburua irakurri dut, eta Mirenek Atxagak.
- (33) a) *Zer aldegin zuen Mirenek t ikusi ondoren?
 b) *Mirenek aurkezpena ikusi ondoren aldegin zuen, eta Joxek ekitaldi nagusiak.

Azken batean hau guztia orain arte erabili dugun ikuspegiarekin oso ondo dator: euskaraz informazio pragmatikoa sintaktikoki era jakin batera adierazi ohi da, eta horretarako sintaxi-egituran kokagune eta mekanismo bereziak proposatu dira. Mintzagaiari zer tratamendu eman ez dago argi, baina fokalizatutako elementuei dagokienez guztiak bat datoz mugimendua egon dela onartzean. Hustuketan ere horrelako zerbait badela sinestera bultzatzen gaituzte orain arteko datuek: hondakinetakoa bat ezkerreko perpauseko galdegaiari kontrajarri behar zaio, berau ere galdegai delarik; fokalizazioa eta NZ-hitzen mugimendua egiturazko distantzia jakin baten arabera bakarrik egin litezke, eta gauza bera gertatzen da hustuketan ere, (30)-etik (33)-rako adibideetan ikusi dugunez.

4. Ondorioak

1. atalean hustuketa-egituren berri emateko hainbat analisi eman ditugu. Esan dugu guztiak ere sintaxi-egitura soilari bakarrik begiratzen diotela. Haietako zenbait egitura sintaktikoko guztizko paralelotasunaren gainean eraikirik daudenez, hemen erabili ditugun adibideetako asko ezin dituzte esplikatu. Berdin gertatzen zen esanahia lortzeko perpausaren mugetatik kanpora begiratzen zuen hustuketari zegokionez ere. Hustuketa-egituren alderdi pragmatikoaren garrantzia nabarmendu ondoren eta euskaraz hustuketak nolako jokaera duen agertu ostean, badirudi ezabaketaren analisisia eta analisi interpretatiboak direla errazen egokitu litezkeenak. Bien artean hautatzeko berriz ondorengo bezalako adibideek lagun diezagukete:

- (34) Nik gehienetan galdu egiten dut, eta zuk irabazi.

Hustuketan fokalizazioa dagoela onartzen badugu, Ortiz de Urbinak (1989) aditzaren fokalizaziorako egiten duen analisiari jarraituz *irabazi* mugitu ondorenekoa besterik ezin liteke izan. Beraz, hustuketan mugimenduaren ondorengo ezabaketa izango genuke: hondakinetakoa bat edo batzuk mintzagai izango genituzke, eta mintzagaiei orotara ematen zaien tratamendu bera eman beharko litzaieke, ziurrenera perpauseko beste elementu guztiak baino goragotik zintzilikatuta; galdegai modura ulertzen dugun hondakinak fokalizatutako elementuek eta NZ-hitzen bezalako mugimendua izango luke; gaineratiko elementuak, lehenengo perpauseko elementuekiko berdintasunez

ezabatu egingo lirateke. Era honetan, hustuketa egituren ezaugarri pragmatikoak eta debeku sintaktikoak uztartu ahal izango genituzke, eta literaturan proposatu diren debeku berezietara (sintaxiaren aldetik «ad hoc» direnak, eta ikusi dugun bezala okerrak) jo ordez hustuketaren ezaugarri orokorren arabera esplikatu ahal izango genituzke datuak.

Badira, gainera, zenbait adibide oraindik garbiago erakusten dutenak hustuketa-egiturak karakterizatzeko lehenengo beren alderdi pragmatikotik abiatu behar dela, eta gero mintzagai-galdegai horiek sintaktikoki nola adierazten diren begiratu. Esaterako, orain arteko adibideetan galdegaia fokalizatutako elementu bakarra izan dugu, baina Osak (1990) adierazten du, euskaraz elementu bat baino gehiago ere izan litezkeela perpaus bateko galdegai, nahiz praktikan era honetako galdegai konplexuak asko izaten ez diren. (35) perpausaren azpimarratutako guztia izango genuke bere aburuz galdegai:

(35) Aitak ez du untzia leihotik aurdiki, untzikoa atetik baizik.

Aukera bera dugu hustuketan ere:

(36) Joko olinpikoetarako txartela lortu dugu Mirenek eta nik: *nik*_(mintz) atzo
Bartzelonan_(gald) lortu nuen marka, eta *Mirenek*_(mintz) gaur Parisen_(gald)

Horrelakoei hustuketatik kanpora ere eman beharreko tratamendu sintaktikoa zein den ez dago garbi, baina hustuketaren ikuspegi egoki bat izateko egitura sintaktiko soilaz gain alderdi pragmatikoa ere oso kontuan izan behar dela erakusten digute⁹.

Bibliografia

- ALTUNA, P., 1986: «Juntagailu Kopulatiboak», *FLV* 47, 47-99.
 AMUNDARAIN, I., 1997: *Juntadura eta Elipsia Euskaraz*, doktorego tesia, EHU.
 ARTIAGOITIA, X., 1995: *Verbal projections in Basque and minimal structure*, *ASJU*ren gehigarriak 36, Donostia.
 AUTHIER, J.M., 1990: «Affective or and Gapped Coordinate Structures», *Cahiers Linguistiques d'Ottawa* 18, 1-11.
 BRUCART, J.M., 1987: *La Elisión Sintáctica en Español*, Universidad Autónoma de Barcelona.
 GASTAÑAGA, L.G., 1977: «Gapping Basque Constituents», *Anglo American Contributions to Basque Studies: Essays in Honour of Jon Bilbao*, 169-175.
 GOODALL, G., 1987: *Parallel Structures in Syntax*, Cambridge University Press, Cambridge.

⁹ Amaitzeko, gogorazi nahi nuke Mitxelena bera izan zela perpausaren alderdi sintaktikoei eta pragmatikoei dituzten erlazioak aztertzen lehenetako bat euskal hizkuntzalaritzaren alorrean, 1981ean Deustuko Unibertsitateak argitaratu zuen «Mintzagaia eta galdegaia euskaraz» artikulua bidez. Bere lanaren ikuspegi zabalaren erakusgarri bat gehiago.

- HANKAMER, J., 1973: «Unacceptable Ambiguity», *LI* 4, 17-68.
- HANKAMER, J., 1979: *Deletion in Coordinate Structures*, Garland Publishing, New York & London.
- HUDSON, R., 1976: «Conjunction-reduction, Gapping and Right-node Raising», *Language* 52, 535-562.
- HUDSON, R., 1989: «Gapping and Grammatical Relations», *Journal of Linguistics* 25, 57-94.
- JAKE, J., 1977: «Gapping, Pragmatics and Factivity», *CLS* 13, 165-172.
- KUNO, S., 1976: «Gapping: a Functional Analysis», *LI* 7, 300-318.
- LANGENDOEN, D.T., 1975: «Acceptable Conclusions from Unacceptable Ambiguity», in D. COHEN & J. WIRTH (eds.), *Testing Linguistic Hypotheses*, Hemisphere, Washington.
- MOLTMANN, F., 1992: *Coordination and Comparatives*, Doktorego tesia, MIT.
- MUADZ, H., 1991: *Coordinate Structures: A planar Representation*, Doktorego tesia, University of Arizona.
- NEIJT, A., 1979: *Gapping. A contribution to sentence grammar*, Foris, Dordrecht.
- NISHIOKA, N., 1992: «On Gapping: an Analysis in Terms of Conceptual Structure», *English Linguistics* 9, 176-195.
- OIHARTZABAL, B., 1985: «Behako bat ezezeko esaldieri», *Euskera* 30, 103-115.
- VAN OIRSOUW, R., 1987: *The Syntax of Coordination*, Croom Helm, London.
- ORTIZ DE URBINA, J., 1989: *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht.
- OSA, E., 1990, *Euskararen Hitzordena*, Bilbo, EHU.
- ROSS, J.R., 1970: «Gapping and the Order of Constituents», in BIERWISCH, H. & HEIDOLPH, K.E. (eds.), *Progress in Linguistics*, The Hague, Mouton.
- ROORYCK, J., 1985: «Gapping-zeugma in French and English: a non Deletion Analysis», *Linguistic Analysis* 15, 187-229.
- SALABERRI, P., 1985: *Koordinazioa Euskaraz: Zenbait Ezabaketaren Berri*, Lizentziatura tesina, EHU.
- SAG, I., 1980 (1976): *Deletion and Logical Form*, Garland Publishing, New York & London.
- SAG, I. & GAZDAR, G. & WASOW, T. & WEISLER, S., 1985: «Coordination and How to Distinguish Categories», *NLLT* 3, 117-171.
- SIEGEL, M.E.A., 1984: «Gapping and Interpretation», *LI* 15, 523-530.
- SOBIN, N., 1982: «On Gapping and Discontinuous Constituent Structure», *Linguistics*, 20.
- SOLÍAS, M.T., 1994: *Gramáticas Catoriales, Coordinación Generalizada y Elisión*. Doktorego tesia, Universidad Autónoma de Madrid.
- STEEDMAN, M.J., 1990: «Gapping as Constituent Coordination», *Linguistics and Philosophy* 13, 207-263.
- STILLINGS, J.T., 1975: «The Formulation of Gapping in English as Evidence for Variable Types in Syntactic Transformations», *Linguistic Analysis* 1, 247-274.
- THRAINSSON, H., 1975: «Gapping in Icelandic: Functional Explanations and the No-ambiguity Condition», *CLS* 11, 604-614.
- WASOW, T., 1979: *Anaphoric Relations in English*, Story-Scientia, Ghent.
- WILLIAMS, E., 1977: «Discourse and Logical Form», *LI* 8, 101-139.

ABSTRACT

Gapping: syntax and pragmatics

Gapping structures have been taken as a conjunction of two (or more) clauses, one full and the rest with the verb and possibly some more constituents elided, leaving as remnants the subject and one nonverbal element of the predicate. It has been posited in the literature that these constructions need to be syntactically parallel, and have to meet certain conditions: number of constituents left behind, strict syntactic parallelism between the elements in both conjuncts, gapping disallowed in negative sentences, examples of unacceptable ambiguity... But all these conditions were «ad hoc» and had no syntactic justification. In our analysis of gapping structures, we claim that gapping must be characterized in terms of pragmatic information. This way, gapping structures would be highly parallel and contrastive structures, where we have two topics in contrast, and about those contrasting topics we make very similar comments or rhemes. The second rheme has a focus that contrasts with the focus of the previous sentence, and the repeated material is left unrealized. This characterization in terms of pragmatic structure (with its reflex in the syntactic structure) explains more satisfactorily the behaviour of the Basque gapping structures: when the pragmatic conditions required for gapping (and the derived conditions of syntactic structure) are met, we find perfectly acceptable counterexamples to the constraints and conditions posited in the literature, and the grammaticality judgements of the Basque data are well justified, without «ad hoc» conditions.

Isoglosen aldaketa Nafarroako hainbat hizkeratan

Orreaga Ibarra

Nafarroako Unibertsitate Publikoa-Universidad Pública de Navarra

Sarrera

Jakina denez, isoglosa bat da ezaugarri linguistiko baten muga neurtzeko lanabesik hoberena. Baina isoglosak ez dira irmoak ezta finkoak ere, aitzitik, mugitzen dira hizkuntza bezala, etengabeko aldaketan daude. Hau dela eta, diakronian zehar isoglosa berriak sor edota desagertu daitezke.

Hauxe da gure lan honen helburua, testuetan oinarrituz aztertu nahi dugu epe zehatz batean —mende bat gutxi gora-behera kasu gehienetan— zein ezaugarri galdu, zein sortu eta aldaketa hauek gradualak edo bapatekoak izan diren. Azkenik, ahal den heinean, aldaketa hauen arrazoietan sakontzen ahal izango gara.

Egia da guk ez dugula ingelesek dialektologia historikorako duten aberastasuna testu zeharren sailan, Caminok dioen bezala: «ez gaude usaturik dialektologi alderaketak egitera».

Esan bezala, lan honetarako testuak baliatzen ditugu, testuen lekukotasun zaharrarekin jolasten ari gara, eta hartaz, huts egiteko arriskua dugu. Izan ere informazioa beti partziala da, dokumentuek ez dutelako beti hizkuntz mintzatua islatzen, eta gauza anitz izkuta ditzaketelako, besteak beste, idatzi zuenaren jarrera.

Baina, bestaldetik, garai hartako informazio bakarra da, eta dialektologia historikoa egin nahi badugu eta euskalkien nolakotasuna zein den eta zein izan den jakin nahi izanez gero, testuetan oinarritu behar dugu. Gutxi dira testuak, baina, honekin jokatu behar ezinbestez. Saiatu gara, dena dela, toponimiaren bidez lortu dokumentazio zaharrarekin osatzen, gutxienez, iturri bat baino gehiago izateko.

Honetarako goinafarrera barneko bi hizkera hartuko ditugu ikergai —Erroi-barkoa eta Ultzamakoa— eta hauetaz dakigun diakronia, alegia, mende batekoa, gutxi-gora behera, testuen bidez aztertuta, gaurko hizkerarekin parekatu nahi izan dugu.

Gainera, horrela, hizkuntz datuen azterketa soilarekin ez gara gelditzen. Jakin badakigu arriskutsua dela eragile extralinguistikoen bidetik abiatzea,

baina honetan saiatzen gara, nahiz badakigun anitzetan espekulatibo xamar gerta daitezkeen, datuek interpretazio bat baino gehiago izan ditzaketelako. Nolanahi dela ere arrazoiak bilatzen saiatzen gara eta zein eragile dagoen isoglosen aldaketaren atzean ematen ditugu. Izan ere, gure ustez, diakroniaren garrantzia ukaezina da, eta ikuspegi hau landu behar da dialektoen irudi osoa-goa eta egiazkoagoa izan nahi badugu.

Erroko testu batzuk Satrustegiren 1987 urteko liburuan agertzen dira. Eskuizkribuak XIX. mendekoak dira, zehazki ez dakigu zein urtetakoak, (18...) agertzen baita idatzirik. Hauetaz gain, bada herri honetako beste eskuizkribu bat iragan mendeko mende bukaerakoa edo (ik. Ibarra 1997).

Ultzamako testuez den bezainbatean, iragan mende bukaerakoak eta honen hasierakoak dira erabilitako bi dotrina (ik. Ibarra 1992). Garai berekoa da Makirriaingo (Olaibar) dotrina ere (ik. Díez de Ulzurrun 1960). Horrezaz gain, Xuarbeko iragan mendeko beste batzuk erabili ditugu (ik. Satrustegi 1995), baina ez argitaratutako guztiak. Izan ere, Larraintzarko parrokiaren aurtitutako batzuk ez dira fidagarriak, Unanuko ezaugarri pila erakusten baitute. Azkenik Etsain (Anue) herriaren aurkitu batzuk ere —uste XIX. mendekoak direnak— kontuan hartu ditugu (ik. Goldáraz 1995).

Diakroniaren epeari dagokionez, belaunaldi bat omen da hoberena lan baten esparru gisa hartzeko Fisiak-en arabera (1985: 264), eta tarte hauxe da kasu askotan erabiliko duguna, beti ere fenomenoei data zehatza ematen saiatuz.

Isoglosen aldaketaren arrazoiak adstrato baten eraginez azal daitezke, askotan mugimendu hauek kanpoko eraginaren bidez motibatuak dira, eta horregatik ezin dira ulertu kanpoko elementuei erreferentzia egin gabe. Gainera dezadan, batzuetan, euskalkiaren beraren barne joerak direla eragileak eta besteetan prestijioaren eraginaren ondorioak.

Izan ere, ezaugarri linguistikoak ez dira nolnahi barreiatzen, aldiz, baldintza egokiak ematen zaizkie zabaltzeko. Honela bada, beste hizkera batzuetako hitzunek bereak egiten dituzte hizketa-ohitura ezberdinak pixkanaka beren gain hartuz. Gainera, aldaera batak bestea ordezkatu baino lehen, aldi luze batean bien koexistentzia gertatu dela erakusten digute dialektologia-azterketek.

Forma baten egokitzapena sortzen da hizkuntz aldaketak gertatzen direnean hizketen ukipenaren ondorioz. Kasu hauetan, tradizionalki norma ezberdinak dituzten hiztunak ukipenean sartzen dira, eta beren ezaugarriak baztertu eta bestearenak bereak egiten dituzte.

Honen ondorioz, eremu bateko berezko norma tradizionalak erabiltzeari uzten zaio, eta lehenago bi hizkera horiek markatzen zuten diferentzia —beren artean desberdinak egiten zituena— orain desagertzen da. Honenbestez, isoglosa batek ezabatzeko edo mugitzeko joera izan dezake.

Askotan, isoglosa baten aldaketa agerian geratzen da adin ezberdinetako hiztunak hartuz. Horrela, berrikuntzen hedapenak zein nolakoa izan den inplikatzeko du adin ezberdineko jendearen hizketa ikertzea. Gainera, hizkuntz

aldaketa baten ikerketa egin nahi badugu, aldaketak izan diren eta hauen norabidea zein izan den jakiteko medoto bat da hiztun-erkideko bat aztertzea eta hogeit urte ondoren, ikerketa errepikatzea.

Gure kasuan, behialako dokumentuez gain, kasu batzuetan hiztun zahar eta gazteagokoen lekukotasunekin jokatu dugu, idatzizko datuen aberasgarri. Gure azterketa hurrengo ezaugarriotan oinarrituko da.

Honelako eskema laburtzen du Shouten eta Pieter van Reenek (1989: 136) isoglosen mugimenduari buruz hiru epe aintzat hartuz. Honen bidez argi ikusten da nola izan daitezkeen isoglosen inguruko posibilitate guztiak:

1. epea	2. epea	isoglosa
1. graduzko diferentzia	> graduzko diferentzia	> ez dago isoglosarik
2. bapateko diferentzia	> bapateko diferentzia	> iraunkorra
3. graduzko diferentzia	> bapateko diferentzia	> isoglosa sortzen
4. bapateko diferentzia	> graduzko diferentzia	> isoglosa ezabatzen

1. Osagarri zuzena genitiboan

Erroko izkribuetan izen sintagmak absolutibo markaren ordez, genitiboarena eraman ohi du. Ekialdeko eta goinafarrera hegoaldekoaren euskalkien ezaugarria den hau, honeraino hedatzen zen ikus dezakegunez. Egun, ordea, oso kasu gutxitan mantentzen da.

Genitiboaren isoglosa *bait*-aurrizkiaren pareko zen, goinafarrera eta iparraldeko euskalkiak hartuz. Euskarak, honenbestez aukera bikoitza egin zuen —absolutibo zein genitibo— eta gerora, mendebaldeko euskalkietan absolutiboa eta ekialdekoetan genitiboa nagusitu zen.

Morfema hau onartzen duten nominalizazioak honakoak dira: *-tzera*, *-tzeko*, *-tzeagatik* izenordainei ere aplikatzen zaie delako genitibo hau. Erroko XIX. mendeko testuetan barra-barra agertzen dira honako adibideak. Hona hemen:

manchan borratceco, ofendituen aplacatceco, aien quentceco, becatari gucien salbacera, enorabuenain ematera, zure alabacera, llaguen untacera, gure erremediacera, salvacioaren conseguiceco, vecatarien salvaceagatic, magestaile sanduaren recibiceco (Ik. Ibarra 1997: 278).

Gaur egun, Erroibarren ordu luzeak egon ondoren, morfema honen erabileraren testigatu dugu, baina, ez maiztasun handiz. Hona adibideak: *astoin kar-gatzera*, *agoain ziletzeko*, *trago baten eitera*, *udein pastera* eta Picabeak (1985: 232) bildu hauek: *...eta afal aitzinean yoaten naiz aiden ikustera*.

Dakikegunez, ezaugarri honen atzerapena ez da hizkera honetan bakarrik gertatzen, ultzameraz —GN iparraldekoan— antzeko zerbait gertatu baita. Azterturiko dotrinetan *-ren* genitiboa usu agertzen zen: *torriko dela illen ta bizien*

juzguetzera. Arren itcultcera. Arren errecibitceco. Txandaketak izan arren, doctrina berean *illec ta vicieci juzguetzera* agertzen baitzen (Ik. Ibarra 1992).

Berebat gertatzen zen Xuarbeko testuetan, hauetan honakoak eriden ditugu (Satrustegi 1995: 530, 531, 527): *janarien jaterra. Confesio onaren egoteco. Magestadearen alabanecetan. Gorpuzaren pintacen.* Ekialderagoko eremuetan —Etsaingo (Anue) testuetan ere— opatu ditugu honelakoak: *burla oyen adicen, pena oyen esplicaceco* (Goldáraz 1995: 372, 373)¹.

Egun, ordea, Ultzamako hizkera honetan genitiboaren erabilpena ia erabat galdu dela baieztatu dezakegu, izan ere ordu luzeetako grabaketak egin ondoren, batean edo bitan agertu zitzaigun forma hau Beuntzan: *nere erriko autoan ikustera* eta Alkotzen: *bei baten eroatera*.

Datu hauek guztiak kontuan harturik, ezaugarri honen galera azken urte honetan gertatu dela esan dezakegu. Areago oraindik, urte batzuren buruan, ziurrenik, erabat desagertuko dela uste dugu. Atzeraketa graduala edo maiztasuneko da, gaur kasu bakan batzuetan entzuten baita.

2. Ergatibo pluralaren: -ek/-ak

Erroibarren ditugun behialako datuak aztertu ondoren, argi ikusi dugu garai horretan ergatibo pluralak *-ek* bukaera zuela gehienetan.

Azterturiko sermoietan *-ek* nagusi den honako kasuak eriden ditugu: *profeta sanduec erranic, ainguiruec eta justoec icusten eta beidacendiotela. Profetec baiño iaquintasun gueiago, tempestadec eta tormentec arrallacencioten uncia*; D testuan honakoak ditugu: *guciec resucitatu bear dugula, denec dugu obligacio, gure obrec merezi duten premioa* (Satrustegi 1987). Dena den, batzuetan, *-ec* agertzen da bokal asimilazioaren ondorioz nahiz singularra izan: *Virginec baiño inocencia eta humildade gueiago*.

Haatik, nahiz eta maiztasuna *-ek* morfemaren aldekoa izan, salbuesperen bat bazegoen garai horretan ere: *gure obra onac... inder aundie dute, sorrac aitceutela* (Satrustegi 1987: 272).

Egungo hizkeran txandaketa askoz biziagoa da, eta froga daiteke elkarrizketa luzeak egin ondoren, herritik maizago ateratzen diren hiztunek, esaterako, Marcos Saragueta mekiriztarrak gehiago txandakatzen duela herri bereko Juanito Ernagak baino. Era berean, Lintzoiango Sotok, hiztun garbiak, nahiko tinko eusten dio *-ek-ri*, baina Urnizako azken hiztunak ez zuen bereizketarik egiten.

Hiztunekin jarraituz, Perpetua Saraguetak *-ek* nahi *-ak* zerabiltzan: *bere bi alabek negar anitz egin omen zute* (Satrustegi 1985b: 139) *eta apezak ere hala iten dine!* (Saragueta 1979c: 16). Baina, kontuan har Perpetuaren senarra baztandarra zela eta berak ere han eman zuela denbora zerbait, eta hartaz

¹ Lizarraga Elkanokoen lanetan agertzen da noiz edo behin, baina ez modu sistematikoan: *Christoen persequitza (133 or.)*, *bazemate quéntzera vicia (136 or.)* (ik. Lizarraga 1994).

bere hizkerak Baztango hainbat ezaugarri erakusten zituela. Hegoalderago jarraituz, Esteribarko Eugin *-ak* da nagusi.

Honainokoa laburbilduz, esanen dugu egun txandaketa anitz ere handiagoa dela aspaldikoa baino Erroibarren, eta egun ere eraginaren bat duten hiztunekin *-ak* nagusitzeko joera agertzen dela.

Berebat gertatzen da Ultzama ondoko haran honetan, isoglosaren aldaketa bat gertatu da. Esaterako Olaibarko hizkeran, behiala, dotrinen bidez daki-kegunez (1828 urtekoa)-*ek* morfema bizirik mantentzen zen: *Espritu Santi Jaunc**e** bacarric in zuen obra ori?, Ez baizik Trinteteco iru person**e**c, Yndezagule Jangoicoaren borondatea lurrean gaudenoc, ala nola itembaitute Bienabenturatu Zeruetan dauden**e**c*.

Mende eta erdi bat beranduago, ordea, Artolak (1985: 111) zioenaren arabera, gaur egungo euskaraz ez da desberdintasunik egiten: «Pluraleko 3. pertsonak, agente aktibo denean, ez du, beste zenbait azpieuskalkitan bezala, *-ek* partikula hartzen, beti ere *-ak* delakoarekin geratuz: *larrak kentzen di(d)eten pañ(u)eloa, eta gizonak, tiretu zioten arranoai*.

Areago oraindik, egungo Ultzamako elkarrizketa laxoan ez da *-ek/-ak* bereizketarik egiten, ezta duela ehun urteko dotrinetan ere. Xuarbeko iragan mendeko testuetan, ordea, bereizketa egiten zen (ik. Satrustegi 1995: 528, 531, 532): *autore gueienec erraten dute, jaquin bezate mi gaistoa dutenec, beren miac Jangoicoa ofenditcen empleatcen dituztenec*.

Datuak aurrean ditugula, bi aukera ditugu datu hauen azalpena emateko. Ultzaman txandaketa bazegoen, egun bereizketa egiteari utzi zaio. Olaibarren gauza bera gertatu da. Litekeena da hurbilen daukan hizkeraren ezaugarriak hartzea —Olaibarko kasuan ultzamerarenak— non ez den bereizketa hori egiten. Edota hizkuntz heriotza dela medio azaltzea, honekin adierazi nahi dugu gelditzen diren gutxiak erdi-hiztunak direla eta euskara kili-kolo egiten dutela, eta hau dela eta bereizketa egiteari utzi diote Erroibarren eta Ultzaman².

3. *Dio-dako* datiboari dagozkion formak

Hirugarren pertsonari gagozkiola, Bonaparte printzea lapurteraren eta behe-nafarreraren arteko bereizketa honetan oinarritu zuen: «lab. *dio* (il le lui a), nav. occ., nav. or. *dako*; lab. *diozta, diozka* (il les lui a), nav. occ., nav. or. *dazko*». Azterketa sakonagoa egiten duenean Pikabeak (1993: 65), Hiriart-Urrutyren obran ez ezik mende honetako idazle nafar-lapurtar obretan irakurri ahal dela dio.

Egun Erroibarko egungo hizkeraren ezaugarria da *nork* sistemaren 3. pertsonaren *-ako-*, *-akote-* formak *-io-*, *-iote-*ren orde, nahiz hauek sistematiko-

² Oroit, bidenabar, goinafarrera hegoaldeko hizkeretan ez dagoela batasunik alde honetan. Horrela, Elkano eta Garesko euskara ekialdekoa litzateke, *-ek* baitarabilte eta Oltza eta Goñikoa mendebaldekoa *-ak* nagusitzen baita: *gizonak satonte*.

ki erabiltzen ez diren. Yrizarrek (1985: 288) aztertu zuen forma hauen banaketa zehatza GN hegoaldekoan eta lan horretan horrela zioen:

«La línea de máxima penetración comprobada de las formas *-ako*, *-eko* es la constituida por Erro-Linzoáin-Viscarret-Mezquiriz-Lusarreta-Arrieta-Oroz-Betelu-Azparren, los cuatro primeros en el valle de Erro y los cuatro últimos en el de Arce.»

Iragan mendean, ordea, gaur egun hain ohikoak diren 3. pertsonari dagozkion formak —*dako*, *zekote*, *dakote*, *nekote*— ez ziren inon agertzen. Hauen ordez, *-e-* eta *-ote-* morfemen txandaketa besterik ez zegoen: *beartu ciela*, *erranicien*, *devecacen ciotela*, *erraten ciote*, *equencen cioten*, *abarri-catui tiote*, *estaltcen tiogutela*, *sufricentiogutela*.

Honenbestez, eta gure alderdiari dagokionez, forma hauek berriak dirateke, azken urte hauetan agertzen baitira; zehatzago izanez XX. mendean edo XIX. mendearen bukaeran. Yrizarren ustez, forma hauek behenafarreratik hedatu dira, (1985: 287) bere ustez hauen agerpena 1866 urte inguruan hasi zen goinafarrera hegoaldean, Orreagan, hain zuzen, eta geroago hegoalderago zabalduz joan omen ziren. Dakiguna da XX. mendearen hasieran jaiotako jendeak bazerabiltzala.

Behenafarrerak, Pikabeak argi frogatzen duenez, eragin handia izan zuen gainerako euskalkietan eta baita XIX. mendeko lapurtera literarioan ere. Batez ere aditz laguntzaile iragangaitzetan, iragankorretan baino, bereziki ekialdeko idazleengan. Dena den, aintzat hartu behar dugu isoglosa honek hegoaldeko GN ere bere baitan hartzen duela eta Iruñerriko XVI. eta XVII. mendeetan *draco* agertzen zela (Kerejeta 1991: 168).

Egungo hizkera eta behialako testuak alderatuz gero bi aukera dauzkagu forma hauek direla eta:

- Edo gune hedatzailea bat baino gehiago izatea, alegia, behenafarrera —gure ustetan hau dateke aukera ziurrena— eta GN hegoaldekoa, Iruñea ingurukoa.
- Forma hauek ospe gutxikoak izatea, eta horregatik testu idatzietan ez agertzea, nahiz herriak erabili.

4. Aditz bukaerako *-n-*ren galera

Erroibarko hizkeraren ezaugarri nabarmen bat da iraganeko aditzen azkeneko *-n-*ren galera. Gaurregun Erroibarko eta Esteribarko hiztunek *-n* gabeko formak erabiltzen dituzte gehienetan, nahiz eta txandaketaz, *nio*, *zeko*, *neko*, *nue*, *nitze*, *ze* entzun ohi dira aise asko.

Dakikegunez, 1922 urtean jada, Intzak egindako azterketan, forma hauek eriden zituen: *zitze*, *zine* eta *ze*.

Zehatzago izanen gara. Erroibarko Mezkitritzen egun diformismoa nagusi da, Lintzoainen *-n* gabeko aldaerak dira gailen, nahiz *zizkiren* & *zikire*, *ziti-*

ren (Yrizar 1992: 250) badiren eta Aurizberrin ere *-n* gabeko aldaerak nagusi dira, *ze & zen* kasua salbu (Yrizar 1992: 194). Bestaldetik, ondoko Aezkoan eta Artzibarren dimorfismoa da ohikoen.

Caminok (1997: 247) Aezkoan honako dimorfismoak arruntak direla erakusten digu, batez ere gizonaekoengan. Haren ustez, iraganeko *-n* morfemaren galera Aezkoan osoki gailendu gabeko joera da. Horrez gain, Ipar Euskal Herriko aldaera *-n*-dunak aezkerara berriz mugikortasun handiko gizonak ekarriak diratekeela dio.

Itzul gaitezen Erroibarrera, aurreko mendeetako Erroko testuetan ez zen ezaugarri hau agertzen. Kasu bakar batean besterik ez genuen eriden: *erraten ciote*.

Dударik gabe, *zuen* edo *zen* bezalakokoak zaharragoak dira. Halarik ere, ez dirudi eremu honetan sortutako berrikuntzak direnik hauek, izan ere ondoko Eguesibarren barra-barra erabiltzen zituen Lizarraga Elkanokoak (1748-1835) *-n* gabeko hauek mende bat lehenago. Hau dela eta, litekeena da gune hedatzailea Iruñea eta bere ingurua izatea, eta hemendik hedatuz joan zirela. Alegia, Eguesibarren edo betetzen hasi eta mende bat beranduago Errora hedatzea eta baita Aezkoara ere?

Testu hauetan agertu ez izanaren arrazoa ez dut uste testu idatzitakoen jantzi ikutuari zor dionik, izan ere, Beriainek *-n* dun eta *-n* gabeko aldaerak erabiltzen zituen, nahiz mende bat beranduago Lizarragak eta Elizalde *-n* gabeak erabili.

5. *Gau, gori, gura* erakusleak

Goinafarrera hegoalderaino, Erroibarreraino, hedatu da lehen graduko erakusle singularrek eta beren deklinatuek hartzen duten *g*- kontsonantea hitz hasieran. Bide batez esango dugu, aipatutako erakusle hauek izenki baten atzetik gordetzen direla, ez balio anaforikoan, nahiz analogia dela medio erronkarieraz eta aezkeraz izenordeetan ere eriden ditzakegun. Mitxelenak (*FHV*: 247) ekialdeko euskalki hauek kontserbatzaileagotzat zituen.

Azterturiko Erroko testuetan aurkitutako adibideak hauek dira: *lastimoso gontan, sandu gonena, misterio gau, obra gau, pissca gau, gonequin, gracia gura*, 3. graduan ere sortzen da kasu bakar batean: *denbora gartaco, doctrina gonequin*.

Baina, garai hartan ere ez zen erabat sistematikoa erabilera hori. Esaterako, Erroko D testuan ez da behin ere agertzen eta B-n txandaketa dago (ik. Ibarra 1997: 275): *vide ontaz, sandu ontaic, munduontaco*. Esan dezakegu *g*- > \emptyset bilakabidearen hasiera ikusten dela adibide hauetan.

Egun, gure ustez, txandaketa areagotzen ari da, frogatu dugu hiztunetik hiztunera badagoela aldea, alegia, herritik gutxien atera diren hiztunek eta euskara hobekien atxiki dutenek maiztasun handiagoz mantentzen dituzte kontsonante protetikoak. Esaterako Mezkirizko Juanito Ernagak ia sistemati-

koki protetikoak erabiltzen ditu eta aldiz, Marcos Saraguetaren grabaketetan —kanpora gehiagotan atera den hiztuna da hau— txandaketa areagotzen da. Bestetik, mendebalderago joan ahala joera hau iluntzen doa, eta Esteribarko Eugin kasu gutxitan aurkituko da *g-* hau (ik. Ibarra 1995b: 299).

Honainokoa laburbilduz, gure ustetan, ekialdeko eta arkaikoago den ezaugarri honen gibelatzearen hastapenak agerian gelditzen dira gaur, besteak nagusituz doazen heinean.

Caminok dioen bezala (1997: 413), Ameriketara hain erabiliak diren erregela aldakorren azterketa egin liteke honekin, eta beronetan neurtu kontestuetak eta kontestuetako gertakariak, aezkeraz nagusi delako hori baina aldakuntza anitz dago.

Hala ere, deigarria da beronek kasu batean dioena (ik. Camino 1997: 412), laurogei bat urteko emazteki batek herskaridun zerabilen eta haren erraina zenak berrogeita bostekoak edo ez. Egoera honen isla dateke berau, alegia, zenbat eta gazteago eta kanpo-harreman handiago izan, ekialdekoak diren ezaugarri hauek gibelean uzten dira pixkanaka-pixkanaka eta besteak nagusitzen doaz.

6. Yod zaharraren bilakabidea

Erroibarko egungo hizkeran, yod zaharrari dagokion ebakera nagusia igurzari sabaikaria da, lexema gehienetan bakan batzuetan izan ezik. Hauek dira belarez ebakitzen direnak: [*x*]uan, [*x*]a ere, [*x*]ende eta egungo mailegu berri guztiak. Hauetaz salbu, gainerako guztiak igurzari sabaikaria dute: *yaiki*, *yokatu*, *yan*, *yeitsi* etab. nagusi izanik.

Egia da fonema zehatz honetan zaila dela jakitea, testu idatzien bidez, zein fonema ordezkatzan zuen grafia bakoitzak. Oztopoak oztopo, azterketa xehen ondorioz (ik. Ibarra 1995b: 284), suposatzen dugu egoera hori ez zela horrelakoa beti izan eta txistukari frikari sabaiaurreko ahoskabea ere hedatua egon zela.

Oraindik orain, Erron hainbat toponimotan fonema hori mantentzen da: *Xauregi* etxe izenean, *xela* «gela» eta baita Erroko eta Lintzoango esamolde solte batzuetan ere: *bier xai*. Perpetua Saragueta mezkiriztarrak ere badu *xorratzea* idatzirik: *patatak erein eta xorratzea andre lana ze* (Saragueta 1979c: 34) nahiz bere idazkietan *ian* eta *iakin* bezalakoak izan.

Datu hauek aberastera datoz, Erroibarko gainerako herrietako toponimoak, latinetikako maileguetan fonema hau zerabiltzaten: *mendiko xunkadia* (NTEP 1996: 108) Larraingoan eta Urnizan *xunkanxoko* (NTEP 1996: 147), eta ez direnetan ere bai, hona berriz Larraingoan *xitopinadi* (NTEP 1996: 109) «el pineral de los gitanos»³.

³ Toponimo hauek ere azal dezakete fonema honen bilakabidea. Dokumentazio zaharrean Auritzen eta Orreagan *juringoa*, *río de* (1818), agertzen da. Gerora mende honetan (1981) *surín-*

Hona bada gure irudikoz, hainbatetan suertatu dena: [š] erabiltzen zen tokian gaur sabaikaria ez txistukaria nagusitu da. Honengatik guztiarengatik, badirudi aldaera hedatuenak, nahiz ondoko aezkera ere sabaiaurrekoa erabili, alegia —eremu gehienez bizirik zegoenak— irabazi duela.

Gauza bera gertatzen da Olaibarren, Iruñea ondoko ibar honetan. Egungo ikerketek frogatzen dute *yoan nitze* eta *yotzen nion* erabiltzen dela, baina, behiala <ss> eta <s> nagusi ziren Makirriaingo kateximan ikusten denez: *meressi, ssauchi, ssabe, ssatean, ssarririk, ssabearen, sayetan, satera*⁴. Baina <j> eta <g> grafemak ere erabiltzen omen ziren: *jauci, lujuriezco* eta *progi-mo*, eta ez bakarrik gaztelaniaren maileguetan, jatorrizko hitz berezi batzuetan ere: *jayo, jaun, Jangoicoac*.

Hau guztia ikusirik, argi dago isoglosa baten mugimenduaren aurrean gaudela, Olaibarren eta Erroiabarren. Guk geuk, «cisplamplonés»-ez mintzo ginenez horrela genion:

Gurez ustez, [y] —goinafarrera zati handian hedatzen dena— nagusitu da eta [x]-k eremua galdu du. Hau da, hain zuzen ere, gaur egun falta den aldaera; gaur euskara mintzo den eremuan ez da [š] rik, ez bada toponimo bakan batzuetan bederen. (Ibarra 1995b: 283)

Hona bada fenomeno honen bilakabidea, alde batetik berrikuntza bat egin da, aezkerarekin batera sabaiaurreko ahoskabea hartuz, eta gero, aldaki zaharrenari atxiki zaio ingurukoaren eraginez. Alegia, atzerunzko eta aurrerunzko pausua gertatu da, hurrenkera honetan: lehenengo [j], gero sabaiaurrekoa, eta berriro [j]. Antzeko zerbait iradokitzen du Caminok (1991b: 935) Aezkoarako Orbarako dotrinan.

Hizkuntz ukipenaren eraginez gertatu bide da hau, inguruan dauden iparraldeko GN-ren hizkera askoren eraginez. Izan ere, ondoko ultzameraz eta baztaneraz, Olaibartik hurbil dauden eremuetan, [j] nagusi zen.

Caminok aezkeraz (1191: 43) *yo/xo* eta *yar/xarri*, *yan/xan* dimorfismoak erakusten ditu. Txandaketa hau gertatzen da igurzari sabaiaurreko ahoskabea arrunta zen lekuetan, haren ustez prestijioaren arrazoia dago honen azpian gizonen egiten duten bilakabide bat delako.

Azkenik, egun beste fonema baten hedapena frogatzen ari gara, dudarik gabe, mailegu askotan [x] fonema hedatzen doa. Esaterako ultzamarrek duela 50 urteko testuetan *yornala* erraten zuten (ik. Izagirre 1966). Dena den, beste hizkeretan gertatzen den moduan, gero eta indar handiagoz, gaztelaniaren eraginez belarea poliki-poliki nagusitzen ari da: *garaje, jertsea...*

gua, arroyo agertzen da. Eta egungo ahoskeran beti da *xoringoa* edo *xubingoa*, baina sabaiaurrekoarekin (ik. NTEP 1996: 47).

⁴ Oroit bedi Eguesibarko Elkanoko Lizarragak *xakin, xan, xarri, xasi, xito, xosi* aldaerak zerabiltzala.

7. Hurbileko bokal asimilazioa

Euskaraz oso bilakabide hedatua da hau. Goiko bokalen ondoko *a* bokalaren hersketa, alegia, *egie, burue, gezurre* eta horrelakoak ematen dituena. Hau goinafarreraren eta beste hizkera batzuen berrikuntza da. Erroibarko egungo hizkeran barra-barra eriden ditzakegu honakoak: *andie, orduen, errien, lengusuek*. Eta hitzez kanpoko morfemetan ere gordetzen da delako bilakabide hau: *erosi gebe, Mezkiriz te, berrogei te, urrunego, aur betek, gauza zuri bet, zelai bet*.

Aitzitik, Erroko joan zen mendeko testuak aztertzen baditugu, argi frogatuko dugu ez dela oparoa bilakabide hau: *cerua, buruac, becatua, cristaua, infernua, eternua, frutua, mundua, erdian, miseria, furia, errabia*. Hala ere, adibideren bat eridengo dugu: *eguie, dizule, atarie, guciec, moduen, trabajue, becatue*⁵.

Gauza bera frogatzen dute toponimia alean haran guztian bildu datuek, inongo adibidean ez dugu horrelakorik eriden: *zelaia* (Larraingoa NTEM 1996: 109), *pazeria* (Larraingoa NTEM 1996: 108), *usainbizcarra* 1850 urtean *useinbixker* eta *usain, rieca de* 1723-an, (ik. NTEM 1996: 133), egun, ordea *useñnerreka* (NTEM 1996: 133) eta *bizker (bordabizker, pinebizker)* ahoskatzen dira Erroibarren⁶.

Hegoalderago joanez, Esteribarrera hurbilduz, Larrasoñako XVIII. mendeko testuak hartuz gero (ik. Satrustegi 1987: 57), ia-ia ez da hurbileko bokal asimilaziorik agertzen. Bi kasutan besterik ez dugu: *dire, gucie*. Gaur egun, aldiz, arruntak eta arauzkoak dira asimilazioak Esteribarren.

Hala ere, kontuan izan behar da idatzitako testuetan soilik oinarrituko bagina, esango genuke aurreko mendean asimilazioa urriagoa izan zela eta denbora pasatu ahala areagotu dela. Baina, honek ez du esan nahi asimilaziorik ez zegoela. Izan ere, testu idatzia beti da jasoagoa eta beti estaltzen dira hizkera mintzatuko gertakari asko. Horiek horrela, fenomeno bat betetzen denean, orduan dira testu idatzia zerbaiten froga, baina ez fenomeno bat betetzen ez denean.

Nolanahi dela ere, testu idatzien gora-beherak alde batera utzirik, datu hauekin argi xamar ikusten da XX. Mendearen zehar bilakaera hau areagotu dela.

8. -r(t)z- taldea

Sánchez Carriónnek idatzitako artikuluxka batean, Imotzen gertatzen hasi berria zen isoglosaren aldaketaren berri ematen zigan:

«Oscoz, que originariamente parece haber tenido la forma labortana (erran) era localidad donde, hasta hace muy poco tiempo, confluían las dos

⁵ Gogora bedi, Elkanoko Lizarragak ez zituela honakoak erabiltzen. Hauen ordeez *gucia, ardiac, achuriac, buruas, vicia, agradecitua, mundua...* ziren arruntenak (Lizarraga 1994: 262).

⁶ Diakroniari dagokionez, Iruñerriko toponimia aztertu ondoren, badakigu fenomeno hau ez zela gauzatzen. Ber gisa gertatzen da Olluibarren, bokal asimilazioa XIX. mendearen bukaera arte edo gure mende honen hasiera arte ez da islatzen.

formas. Finalmente ha sido *esan* la que ha acabado por imponerse.» (Sánchez Carrión 1974: 261).

Guk geuk (Ibarra 1995: 225) hauxe bera frogatzen genuen. Ultzama-ko euskarari eferentzia eginez, Muskitzen, gehien erabiltzen ziren formetan *-st-* taldea nagusitzen hasia zen (*bost*, *beste*, *ostegune*, *ostirela*); baina ez hain ohikoetan oraindik, *-rtz-* gordetzen zen, esaterako *ertze* «intestino».

Bistan denez, atzerakada geografikoa gertatzen ari da, gaur *-st-* dugun herri batzuetan, lehen *-rtz-* genuen. Toponimiaren bidez argi azaltzen da hau, esaterako *Etxebertzia* ageri da Erbitin. Bistan denez, toponimoak arkaismoen gordetzaille dira, eta hartaz, izen honek izen propio gisa funtzionatzen du, nahiz gaur eremu horretan *-st-*dunak diren nagusi.

Era berean, Echaidek (1989: 51, 344) honako datuak ematen ditu Atezko zenbait herritan. Gure ustez, herri hauek *-rtz-* eremuaren barruan sartzen dira, baina forma asibilatuaren agerpenaren hasiera erakusten hasten dira.

Berasain, Beuntza: *bost*

Aroztegi, Berasain eta Gerendiain: *bestiak*

Berasain, Gerendiain: *ostegune*, *ostiela*

Etxaideren inkestan ere (1989: 52, 53) *orztegune* eta *ortzillera* formak agertzen dira Etxalekun; egun, ordea ez dira horiek horrela ebakitzen eta hauen ordeztan *-st-*dunak ditugu. Azkeneko datu bat da Bonaparteren dotrinetan agertzen den *merchede*, gaur *mesede* ordezkatu duena.

Dialektologilari ospetsu hauek diotenez, adin ezberdineko jendearen mintzamoldea aztertzeak badu bere munta:

«Studying then diffusion of innovations in apparent time involves surveying the differences between the speech of people at different ages, while keeping the other independent variables such as sex, social and region the same.» (Chambers & Trudgill 1980: 165).

Datu hauek kontuan izanik, esan genezake berrikuntza linguistikoko bat gertatzen ari dela azken 20 urteotan, guk hauxe frogatu genuen Muskitzen, Atezko mugan dagoen herrian. Herri honetan emakume helduenak *erran* erabiltzen zuten eta gazteago batek, 15 urte gazteago zenak, *esan*.

Erroibarren antzera gertatzen da, are gehiago, Lintzoainen eta Mezkiritzen forma hauek ospe gutxikotzat hartzen dira, eta *-st-*dunak askoz finagoak iruditzen zaizkie. Caminok Lintzoainen egin elkarrizketa batean hauxe bera testigatu zuen (ik. Camino 1997: 38), bere aitzinean *erran* eman beharrean *esan* ahoskatzen zuenean hiztun zahar batek «iduri du uskarago» zioelarik. Halaber, ene amatxi zenari behin baino gehiagotan entzun nion hauxe bera esaten forma hauei buruz «zakarrak dire oyek», eta hauen ordeztan *esan* eta *bost* hobesten zituen.

9. *-tiko* bukaera aditzaren geroaldian

Ezaguna da Nafarroako hizkera askok duten bukaera, *-tu* morfemari *-ko* georaldikoa eranstea, *-tiko* egiten dute, *-tuko*-ren ordeaz. Esaterako, elkarrizketa laxoan honakoak gertatzen dira Erroibarren: *kasoratiko*, *begiratiko*, *bil-diko*, *kendiko*, *sartiko*, *akonpañatiko*, *gelditiko*, *merkatiko*, *artiko*. Fenomeno hau heltzen da Esteribarreraino, eta inguruko Anuen, Ultzaman eta Baztanen ere arrunta da.

Aezkoan ez dira batere ezagunak etorkizuneko *-tiko* aldaerak, nahiz noiz edo behin Caminok testigatzen dituen (Camino 1997: 300). Aitzitik, *-tu*, *-du* + *behar* egiturakoetan *-tiar* forma arrunta da: *frakasatiardu*, *zikindiardut* etab. Bide batez esan Elkanoko Lizarragak ere ez zituela hauek erabiltzen.

Baina, itzul gaitezen gure eremura. Erroibarren, egun elkarrizketa arruntan arauzkoak diren hauek testuetan ez dira agertzen. Egia esan, *duzie* eta *diziet*, alegia, *u/i* txandaketa erakusten duten beste formak agertzen direla Erroko sermoietan, baina ez *-tiko* horiek. Posible da, arestian genioen bezala, testu idatzietan ez erakustea hizkera bizian gertatzen zen bilakabide bat, baina, zalantza hori ezin argitu dugu. Hau baita daukagun testigutza urria.

Parekatzekoa da ultzameraren egoerarekin. Ultzamako dotrinetan, aurreko mende bukaeran eta honen hasieran idatzitakoetan erabiltzen ziren, behintzat aditz batzuetan (ik. Ibarra 1992: 930) honelakoak genituen: *barcatiko ti-rezule*, *acabatiko*, *batayetico*. Hartaz, Ultzaman lehen eta orain arruntak dira erabilera hauek.

Erroibarren, aldiz, berrikuntza baten aurrean gaude, mende honetan heldu dena inguruko eremu horien eraginez? Izan ere *u/i* txandaketa egon denean, hizkera honetan *i* hautatu da. Gogora bedi, bidenabar, aspaldikoak direla *zilo*, *diziet...*; hartaz, litekeena da forma hauetara xx. mendean hedatu izana.

10. Aldaketaren arrazoiak

Isoglosa hauen aldaketa aztertu ondoren, ikusi dugu zein diren nagusitu diren aldaerak, zein galdu etab. Euskalki bat aztertzerakoan, argi utzi behar baita zer den berrikuntza, zer arkaismoa eta zer aukeraketa, eta hiru irizpide hauen arabera, abiatu behar dugu ezaugarri dialektologikoen azterketan.

Honetan gaudela, aldaketan eragin duten hainbat arrazoi saiatuko gara ematen, nahiz badakigun ebidentzia hauen arrazoiak bilatzea zaila dela, eta huts egiteko arriskua ere ez dela nolana hikoia.

Kasu batzuetan aldaketa graduala da eta prozesua ez da oraindik burutu, besteetan, ordea, aldaketa aspaldian gertatu zen. Batzuek eta besteek erakusten dute hizkera-aldaketak ez direla formula matematika bat bezala suertatzen, baizik eta prozesu baten ondorio direla.

Hizkuntzalaritzak erakusten duenez, hizkuntz bilakabideetan badago joera fonetikoki gastatuagoak diren aldaerak, alegia, gorputz fonetiko txikiago

erakusten dutenak erabiltzeko. Esaterako, latinak eman dituen hitzak hizkuntz erromanikoetan, motzagoak dira. Adib. *auriculam* > *oreja*, *oculos* > *ojos*, *frigidus* > *frío*, *fides* > *fe*.

Hurbileko bokal asimilazioaren kasua ez da forma motzagoak erabiltzeko joera soilik. Baina, poliki aztertzen badugu forma hau fonetika aldetik, artikulazio ikuspuntutik ahoskatzeko «errazagoa» da bestea baino, alegia /a/ fonema /e/ bihurtzen da /i/ eta /u/ bokalen eraginez, eta hori fonetikoki garatuago den aldaera da. Izan ere, hizkuntzak erabiltzen direnean gastatu egiten dira, eta ondorioz, forma garatuagoak ematen dituzte. Hau dateke forma hauek garatu izanaren arrazoia eremu honetan, hizkera beraren barne garapena baino ez da bilakabide hau, gure ustez.

Esan bezala, azterturiko kasuen artean eragile ezberdinak daude, areago oraindik, kasu askotan, arrazoi batek baino gehiagok dute eragin. Batzuetan, hizkuntz heriotzaren ondorio dira. Esaterako, nor-nork aditz sistemaren galean eragina izan du heriotz bideko egoerak. Antzeko egoeran dauden hizkerak, aezkerak etabar gauza bera erakusten dute. Alegia, forma estilistikoen murrizketa gertatzen da, eta gainbehera maila guztietara hedatzen da.

Beste kasu batzuetan, bi aldaera lehiakide daudenean, erregularrena hartzeko joera izaten da; hari honi jarraikiz, eta behiala euskarak aukera bikoitza baldin bazuen osagarri zuzena hartzeko orduan, gero eta maizago hedatuen dagoena —absolutiboarena, alegia— hartzeko joera nagusitu dela baieztatzeko. Honekin batera, ekialdeko eta kasu honetan ere iparraldeko formen gibelatzea agerian geratzen da. Ber gauza esan genezake -g > ø bilakabideaz Erroibarren.

Beste hirugarren arrazoi bat dateke gainerako euskalkiek dute formen eragina, alegia forma hedatuenak zientzuek diren, horiek nagusitzen doaz. Arrazoi honen erantzule izan daiteke *-ek* ergatibo pluralaren formen galera. Izan ere, nagusi diren hizkeretan, eta honekin esan nahi dugu hiztun multzo handiena dutenak, horietan ez da berezketa hori egiten eta posible da kutsatzea. Hala ere, badakigu hizkuntz ahultasunaren egoerak ez diola inolako mesederik egiten berezketa hau mantentzeari.

Argiagoa da, dudarik gabe, *yod* zaharraren atzera-aurrera pausoak Erroibarren eta Ultzaman. Arestian genioenez, gainerako hizkeren eraginaren pean suertatu dira. Ber gauza esan dezakegu *-ako-* erroaz osaturiko aditzen joeraz.

Antzera gertatu omen da iraganeko *-n-*ren galerarekin, Lizarragako ereduaren eragina izan da? XX. mendearen hasieran topa baitzitezkeen, eta, al-diz, iragan mendeko testuetan kasu bakar batean.

Azkenik beste bi ezaugarri hauek ditugu: lehena *gau*, *gori*, *gura* erakuslearen ahultasuna. Nahiz *g-*dunen eta gabekoen txandaketa aspaldikoa izan, egun areagotzen ari da eta *au*, *ori*, *ure* nagusituz doaz. Ekialdeko hizkeren ezaugarrien ahultasuna agerian geratzen da beronetan.

Erran/esan dimorfismoaren atzean, edo hobeki esanda *erran*-en gibelatzean, badirudi prestijioaren arrazoia dagoela, arestian aipatutako arrazoiengandik.

Deigarria da zer izan daitekeen hiztun batentzat «prestijioa» edota «forma ospetsuak». Izan ere Etsaingo testuetako egilea, Etsainen jaio eta Beuntzan (Atetz) apez egon zen 40 urtetan, alegia ultzamera garbia mintzo zen bi herrietan. Hala ere, bere *Galbarioac uscaraz ofrecimentua* lanean *degu, degun* eta *dut/det* adizkiak erabiltzen ditu, nahiz gainerako ezaugarriak ultzamera garbian ematen dituen. Esan bezala, forma «arrotz» horiek sartzen zituen, eremu honetan, sekulan erabili ez direnak, ia erabateko ziurtasunez. Antza denez, apez honi ere Gipuzkoako euskara egokiagoa iruditzen zitzaion.

Bibliografia

- ARTOLA, K., 1985: «Ezkabarteko euskara», in *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Zaurautz, 97-112.
- CAMINO, I., 1990: «Euskalki batzu hiltzorian», *Argia* 1990/ I/14, 1275. zbk., 19-26.
- CAMINO, I., 1991: «Aezkerazko testuak: Ariako dotrina I» in *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJU-ren gehigarriak XIV, Donostia 427-457.
- CAMINO, I., 1995: «Abiaburu bat aezkeraren azterketarako» in *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991-ko irailaren 2-6)*, R. GÓMEZ eta J.A. LAKARRA (ed.), ASJU-ren gehigarriak XXVIII, Donostia, 59-161.
- CAMINO, I., 1997: *Aezkera: dialektologi azterketa*, Nafarroako Gobernu.
- CHAMBERS, J.K. & TRUDGILL, P., 1980: *Dialectology*, Cambridge University Press, Cambridge.
- COYOS, J.B., 1997: «Pour une évaluation critères internes de fragilisation d'une langue: le cas du basque souletin», *FLV* 75, 233-241.
- DÍEZ DE ULZURRUN, P., 1960: «El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828», *Revista Euskera* 5, 377-403.
- ECHAIDE, A.M., 1966: «Regresión del vascuence en el valle de Esteribar, Navarra», *Problemas de la Prehistoria y de la Etnología vascas*, Pamplona, 257-259.
- EUSKALERRIA IRRATIA & MÚGICA, M., 1990: *Nafarroako euskaldunen mintzoa*, (bi lib.), Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA, 1992: *Nazioarteko dialektologia biltzarra*, Agiriak 1991-X-21/25, Bilbo, *Iker* 7.
- ELORDUI, A., 1994: «Hizkuntz heriotza eta morfologia: euskararen kasua», *Julio Urikxo Euskal Filologia Mintegiaren II. Kongresua, Morfologi teoria eta Euskal Morfologia*, Donostia, 1994, aurkeztutako ponentzia.
- GAMINDE, I., 1980: *Aditza ipar Goi Nafarreraz*, UEU, Iruñea.
- GOLDARAZ, J.: «Galbarioac uscaraz ofrecimentua (Etsain herrian aurkitua)», *FLV* 69, 363-381.
- IBARRA, O., 1991: «Mezkirizko toponimiaz», *FLV* 58, 301-357.
- IBARRA, O., 1995: *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- IBARRA, O., 1995b: «*Cispamplonés* hizkeraren inguruan», *ASJU* 29: 1, 267-318.
- IBARRA, O., 1997: «Erroko testu argitarabage bat eta beste batzuen iruzkina», *FLV* 75, 265-282.
- IRAIZOZ, P., 1978: «Vocabulario y fraseología de J. de Lizarraga», *FLV* X 29 zb., 245-297; 30 zb., 461-486; XI 31 zb., 121-162; 32 zb., 303-332.

- IZAGIRRE, K., 1966: «Ultzamako euskeraren gai batzuk», *BAP XXII*, 403-467.
- KEREJETA, M.J., 1991: «Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610», in *Memoriae I. Mitxelena magistri sacrum*, [ASJU-ren gehigarriak XIV], Donostia, 161-183.
- LIZARRAGA, J., 1994: *Jesukristo Maria eta Santuen bizitzak*, J. APECECHEAK eta F. ONDARRAK prestatutako edizioa, Nafarroako Gobernua.
- MITXELENA, K., 1964: *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia.
- MITXELENA, K., 1976a: «Acentuación alto-navarra», *FLV 23*, 147-162.
- MITXELENA, K., 1977: [1961] *Fonética histórica vasca [FHV]*, Gipuzkoako Diputazioa, Donostia.
- MITXELENA, K., 1987: *Palabras y textos [PT]*, Bilbao, EHU/UPV.
- MITXELENA, K., 1988: *Sobre historia de la lengua vasca [SHLV]*, [ASJU-ren gehigarriak 10], J.A. LAKARRA (arg.), Donostia.
- NAFARROAKO GOBERNUA, 1996: *Nafarroako toponimia eta mapagintza [NTEM]*, XXXV, Auritz, Erro, Luzaide, Orreaga, Kintoa, Nafarroako Gobernua Lehendakaritzaren Departamentua.
- PICABEA, M.L., 1985: «Expresiones temporales en el habla coloquial del valle de Erro», *Revista Euskera XXX* (2. aldia), 227-232.
- PIKABEA, J., 1993: *Lapurtera idatzia (xvii-xix)*. *Bilakaera baten urratsak*. Euskalerriko Unibertsitatea.
- SARAGÜETA, P., 1979a: «Trinidad Urtasun, Bertsolaria (1894-1978)», *FLV 32*, 333-338.
- SARAGÜETA, P., 1979b: «Nere oroimenak», *FLV 31*, 171-175.
- SARAGÜETA, P., 1981: «Mezkiritz (Erroibar)», *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 3, 5-36, Príncipe de Viana, Pamplona.
- SATRUSTEGI, J.M., 1985: «Perpetua Saragüeta anderearen euskal ipuiak», *Egan*, vol. XLIII, 131-139.
- SATRUSTEGI, J.M., 1987: *Euskal testu zaharrak*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- SATRUSTEGI, J.M., 1995: «Ultzamako euskal testu argitaragabeak», *FLV 70*, 525-539.
- SILVA-CORVALÁN, C., 1988: *Sociolingüística. Teoría y análisis*. Ed. Alhambra Universidad.
- SHOUTEN, M.E.H. & REENE, P.Th. VAN (ed.), 1989: *New Methods in Dialectology*, Publications in language sciences, Foris Publications.
- WINTER, X., 1988: «Metaphors in dialectological diction. A critical note», in *Jacek Fisiak* (ed.), 679-685.
- YRIZAR, P., 1985: «Aparición y desaparición de las formas verbales en -ako, -eko en el alto-navarro meridional», *Aingeru Irigarai-ri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, 257-292.

ABSTRACT

Isoglosse shift in several Navarrese varieties of Basque

The aim of this article is to analyze the shift of the isoglosses in the Northern-high (Ulzama's variety) and the Southern (valley's variety) Navarrese dialects of Basque. The goal of our analysis is to explore what the innovations, archaisms and choices in the analyzed dialects are.

The isoglosses we chose for the analysis are the following: the appearance of the genitive morpheme instead of the absolutive one in the nominal phrase. This feature was usual in the Eastern and Northern dialects, and also in the last century's writings of Ultzama and Erro valleys, but it has now disappeared and has been replaced by the absolutive marking.

The ergative plural in *-ek* and in *-ak*. Nowadays the plural morpheme in *-ek* is dying and the *-ak* morpheme is taking over in areas close to Ultzama as well as the Erro valley, this morpheme being the same for both singular and plural phrases. The loss of the protetic *g-* is also gradual on the demonstrative forms of the Erro variety.

In other cases, the movement of isoglosses is much sheerer. In the case of the three-personal verbs, there is a 3rd person dative morpheme, *-ako*, which is used in the entire Erro valley; however this morpheme does not appear in last century's writings.

The loss of the *-n* morpheme in the past form of the verbs seems to be a new process; similarly, vowel assimilation converting *a* in *e* under the influence of high vowels *i* or *u* and the choice of *-tiko* instead of *-tuko* in the future morphemes also seem to be innovations in this dialect.

The group *-rtz-* of *bertze*, *bortz*, etc., which alternates with *-st-* in other dialects, is losing ground to the sibilant group, which is the normal pronunciation of the central area dialects. Finally, the advance and withdrawal of the old *yod* completes the phonetic panorama.

The reasons for the shift in each isoglosse are different. In some of them we can see the effects of language death. This situation drives speakers to choose, if there are two options, the most regular of them. In other situations, the influence of other dialects make some forms look as «prestigious» in relation to others. We also observe that dialects which are disappearing have not much influence on others. To finish, in other cases the reason for the change is the speech's evolutions that cause forms more developed, shorter phonetically speaking.

Onomastika, euskararen azterketarako tresna

Patxi Salaberri Zaratiegi

Nafarroako Unibertsitate Publikoa-Universidad Pública de Navarra

«Mixelena Katedra»-k antolatu lehen jardunaldietan parte hartzeko gonbitea luzatu zigutenean eskuartean genituen ikerketa lanez ihardukitzeko eskatu ziguten. Antolatzaileen eskakizunari jarraikiz aurkezten dugun lan hau egin, eginxe edo egiteko ditugun lanen iruzkina besterik ez da.

Gure zereginak, toponomastikaren barrenean, hiru alorretakoak dira partikulazki:

1. Normalizazioaren ingurukoak.
2. Toponomastikaren ikerketa (etimologia eta).
3. Toponomastikaren eta dialektologiaren artean dauden harremanen azterketa.

Aurrenekoaren alorrean eginkizun asko dira, horien artean hurrengo hauek:

1. Normalizazioaren ingurukoak

1.a) *Toponimia normalizatzerakoan ibiltzen diren irizpideetan sakondu beharra*

Toponimia normalizatzerakoan dauden arazoaren artean, bat aipatu nahi dugu bereziki: gaurdaino bai Nafarroan eta bai beste herrialdeetan toponimia normalizatu dugu, bai nagusia eta bai txikia, arauak eta erregelak eman ditugu, gomendioak ez ezik, baina uste dugu ez dugula izan ematen genituen irizpide horietan sakontzeko aukerarik, erraten genituen gauza horietaz gogoeta egiteko egokierarik, edo agian erran behar genuke lanak beti lehia biziz eskuetaratu zaizkigula, nola ez dakigula. Kontua da, nolana ere, gogoeta hori eskas izan dugula, eta beharbada arrazoi honengatik, tartean egindako lana txarresten zuen —noiz arrazoirekin, noiz gabe— kritika bortitz errukigaberen bat ere izan da, Nafarroako toponimia nagusiari dagokionez.

Sakondu behar ditugun puntuen artean hauek daude:

Irizpideetan, bai toponimia txikiaren arloan eta bai toponimia nagusiarenean, *tokian tokiko ezaugarri dialektalak* begiratuko direla erraten da¹. Hor-taz, aurren-aurrena, tokiko ezaugarria zer den definitu behar genuke, eta ezaugarri horietako bakoitzari nolako estatusa eman behar diogun, duen antzinasuna, hedadura eta munta —hizkuntz maila, besteak beste— aintzat harturik. Hizkera arruntean nola jokatzten den ere kontutan hartzekoa da.

Adibidez, toponimia txikiaren arloan, goranzko bokalek eragindako hersketa baztertzen dugu, eta *Mendiburuko iturria* paratu dugu *Mendiburuko itturrie* erraten den lekuan. Era berean, eta zentzuzkoa irudi du, *itturri*-ren moduko palatalizazio automatikoak baztertzen dira, euskara batuan egiten den moduan. Beste aldetik, *baztar*-en tankerako bat ontzat hartu da Nafarroan egindako toponimia txikiaren bilketan. Bada, baita ere, maiz alde batera uzten den arren gure ustetan ontzat hartzekoa den disimilazio zahar eta zabaldu bat; gehienbat mendebaldeko hizkeretan gertatzen den *-a + -a > -ea* (eta *-ia...*) delakoaz ari gara. Orain arteko lan batzuetan aintzat hartu ez bada ere, Arrasateko toponimia biltzen duenean (Ormaetxea, 1996) *-ea* eman da, zuzen gure irudiz, disimilazio horrek nahiko estatusa baitu toponimoen normalizazioa egiten denean kontuan edukia izan dadin.

Toponimia nagusian ere «agrabio konparatibo» batzuk egin dira Nafarroan. Toki batzuetan, bertako hizkera aintzat harturik (Baztan), *-oz* onartu zen herri izenen bukaeran, inguruko ibar guztietan herri izen horiek *-otz*-ez ebatkitzen badira ere; antzeko zerbait dugu Erronkari haraneko *Bidangoze*-rekin, konparazioe, Zaraitzun *Bidangoze* baitzen. Zaraitzuko *Espartza*, bestalde, *Espartza* normalizatu da (eta honetan agian Iruñerriko *Espartza*-k eragin duke), Pirinioetako ibarrean *Espartza* erraten bazen ere, eskuarki bederik. Malerreka aldean, berriz, *Aurtitz*-en tankerakoak hautetsi ziren, bertakoek *-z*-z bukatutako aldaera ibiltzen zuten eta duten arren.

Nolanahi ere, gogoan eduki beharra dago egindako normalizazio lanek bidea urratu eta markatu dutela, eta egun atzera egiteko orduan oso kontuz ibili beharra dagoela, izen batzuk onarturik egon baitaitezke, gaurgero. Orain aitzinera orain gibelera ibiltzeak ere baditu bere arriskuak (adarra jotzen ari garela pentsa daiteke, adibidez).

Toponimia nagusiaren arautzean gogoratzen zaigun beste puntu arazo emaila bat *faktore linguistikoei eta faktore soziolinguistikoei nolako garrantzia eman behar diegun* erabakitzea da. Hor dago, adibidez, *Iruña/Iruñea*-ren kasua, edo, beste arlo batean, *Zolina/Zolia*-ren moduko pareak, euskara galdu den alderdian. Egia da soziologikoki izenik ezagunena —«izen ezaguna» ere erran genezakeela uste dut— *Zolina* da, baina gure toponimia benetan normalizatu nahi badugu leku bakoitzeko euskaldunek —Arangurengoek kasu honetan— euskara galdu aurretik ibiltzen zutena hartu beharko dugu

¹ Toponimia txikian bakarrik espezifikoa; generikoan batuaren arauak ibiltzen dira, oro har.

kontuan, ez egun, euskara galdu ondoan, ibiltzen dena, hau soziologikoki oso egokia ez datekeen arren, apika.

Honelakoetan arriskua Erdi Arora itzultzea da. Gure irudiz *forma zaharkituak*, *Goroziain*-en modukoak, saihestekoak dira, aspaldixkotik *Grózin* erran baita; zaharkiturik zer dagoen eta zer ez dagoen ezin da, dena den, Euskal Herriko bazter guztietan berdin neurtu. Beste aldetik, *aldaera laburtu* edo hiperlaburtuak ibiltzea, zenbaitek nahi luketen bezala, bazter uztekoa dela uste dugu. «Jatorragoak» direlakoan *Olazti*, *Otsagi*... eta abar ibili edo ibiltzen dira, baina bide honetan barrena abiatuz gero beldur gara ez ote dugun jakinen non gelditu. Alegia, bi horiek onetsi behar omen dira, jendeak horrela erratan duelako, baina, orduan, *Beute* (*Berute*), *Dorro* (*Dorrao*), *Eaurta*, *Jaurta* (*Jaurrieta*), *Elgorgia* (*Elgorriaga*), *Goizuta* (*Goizueta*), *Ibizta* (*Ibiltzieta*), *Sauta* (*Saragueta*)... eta antzeko «trakeskeriak» ere onartu beste biderik ez genuke, eta iruditzen zaigu hau sobera urruti joatea dela, izen normalizatuen alorrean; besterik da ahozko erabilera. Puntu honetan, seguruenen, euskaraz zaharrak eta hedatuak diren arauak eta eskola eta kultura eskas izatearen ondore diren bilakaerak bereizi behar genituzke.

Semantika kontuak direla medio alde bat utzi den izen bat *Alu* (Allo) da. Kasu honetan badakigu euskaraz *Alu* erran izan dela —izen hau oraindik bizirik dago, nahiz desitxuratua, toponimia txikian—, baina ez dugu uste bere horretan euts dakiokoenik, «Alukeria» izanen bailitzateke «ni Alukoa naiz», «ni Alura noa» edo «ni Alutik heldu naiz» erran behar izatea, konparazione.

1.b) *Deituren normalizazioan oraino kontuan hartu ez den punturen bat kontuan hartu beharra*

Deituren normalizazioaren arloan uste dugu Onomastika batzordeak moldatu eta aurki karrikatutako den *Euskal Deituren Izendegia* eman beharreko lehen pausoa besterik ez dela, seguraski huts eta erratu batzuk dituzkeena, baina, nolana ere, eman beharrekoa, gizarte eskaerak beharturik osatu baita. Lana taiutzerakoan oinarritzat hartu diren irizpideak zenbaitendako ez dira egokiak izanen, baina anitzetan zirt edo zart egin behar izaten da, hots, alde batera edo bestera jo. Hemen ingurune fonikoa kontuan hartu da, bai eta etimologia ere, garbia zenean, baina tokian tokiko ebakerak lehentasuna izan du horien aldean —txistukarien sailean, konparaziorako—.

Bada, dena dela, *Izendegia*-n, gure irudiz hobekixego molda genezakeen puntu bat, baina, lehen saioa izanik, hau barkatzekoa dela uste dugu, ezin baita lehen saioan dena ongi eta akatsik gabe egin, non ez den lana zenbait urtez gibelatu nahi. Deitura jatorriz patronimikoez ari gara, izan daitezen soilak, izan daitezen konposatuak. Lehenak, soilak alegia, oso bakanak dira bilduman, gauzez ongi oroitzen bagara, eta bakarrik etorki euskaldun garbikoak direnak sartu dira (*Mikeleitz* konparaziorako), afrikariz idatzirik. Konposatuetan, berriz, egun «espainoltzat» hartu ohi diren *Diaz*, *Pérez*, *Ruiz*... eta

beste azaltzen zaizkigu, eta *Izendegia*-n bere horretan eman dira, azenturik gabe hori bai, baina gainerakoan zeuden-zeudenean uzten direla.

Orain, Nafarroako dokumentazioa ikusirik, eta nahiz ikerketa gehiago egin beharra dagoela uste dugun, deitura konposatuaren osagarri diren patronimiko horiek afrikariz izkiriatzeko aukera eman zitekeela iruditzen zaigu —aukera gehiegi izanen luke irakurleak orduan, apika—, eta ez gure uste zoro horietako batengatik, erran izan baita, kritikatzeko noski, zenbaiten iritziz *-tz-* *-z-* baino euskaldunagoa dela.

Izan ere, Nafarroan garbi ikusten da hainbat patronimikok, Erdi Aroan, bukaeran afrikaria dutela —honetan agiria izkiriaturik dagoen hizkuntza garrantzizkoa da—. Cf. *Dietz* (*Roy Dietz*, *e Martin Dietz*; *Johan Dietz de Çuaçu*; *Lope Dietz de Gorritz luçea*), *Lopetz* (*Garcia Lopetz*; *Sancho Lopetz*), *Peritz* (*Miguel Peritz*; *Martin Peritz d'Aldaua*; *Martin Peritz de Arbiçu*), *Ruitz* (*Ferrant Ruytz*; *Martin Ruytz d'Alviçu*; *Sancho Ruitz*, *Marie Ruitz*); *Santxetz* (*Johan Sanchetz*; *Pero Sanchetz d'Iguzquiça*); *Xemenitz*, *Txemenitz* (*Peyre Chemenitz de Uelçuñçe*; *Miguel Xemenitz de Gaçolatz*)... eta zer erranik ez *Ortitz* (*Petrus Ortitz de Deyerri*; *Sancho Ortitz*). *Peritzenea*-ren tankerako oikonimo bizieta aurkitzen dugun afrikariak ere gure uste hori indartzen du.

Ezaguna da euskarak joera erakutsi duela bukaerako lekunean afrikaria ibiltzeko, eta patronimikoen arlo honetan ere norabide horretan ibili behar genukeela uste dugu. Nola eta noraino, ordea, erabakitzeke eta finkatzeko dago, ezinbestekoa den ikerketa egin ondoren.

2. Toponomastikaren ikerketa (etimologia eta)

Bigarrenari doakionez, eta aurreko puntuarekin lotuaz, erran behar dugu gure kezka une hauetan toponimian eta antroponimian azaltzen diren zenbait atzizkik elkarrekin duten lotura aztertzea dela lehenik, eta atzizki horiek hizkera arruntarekin dituzten harremanak ikertzea gero. Jatorria, iturburua, hots, atzizki horien nondikakoa ere gure interesen barrenean dagoen gaia da.

Gure azken lanetako batean (Salaberri, 1997: 36) honela genioen:

«A. Irigoienek aipatzen duen *-itz*, *-tz* atzizki [patronimiko] horren balioa eta guk lan honetan aztertu dugun *-tz(a, e)*, *-itz(a, e)* atzizkiarena oso hurbil daude, bai adieraren aldetik, eta bai formaren aldetik, eta ez dakigu zer neurritan eragin duten batak bestearengan, ez eta biendako iturburu amankomuna proposatu behar den ere. *Almandotz*-en kasuan *Alamando*-ren baserria, etxea... ulertu edo *Alamando*-ren tokia ulertu, aldea ez da handiegia, eta behar bada bi atzizki horien artean harreman estuak izan direla pentsatu behar genuke».

Lan horretan, aipuan ikus daitekeen gisan, ez ginen ausartu ugaritasunez-kotzat hartu izan den atzizkiarendako eta zenbait toponimo nagusitan azaltzen den *-(e, i)tz* atzizki «patronimikoa»-rendako etorki bera proposatzen, horrela dela gero eta sinetsiago bagaude ere, nahiz arazoak badiren, bien arteko lotura

azaltzeko. Nolanahi ere, garbi dago latineko genitiboan oinarria duen atzizki patronimikoak eta zenbait herri izenetan dugun atzizki homonimoa bat-bera direla, eta bien jatorrian dagoena, hots, biek komunean dutena, «jabetza» dela, gero hau batean «semea edo alaba»-tzat hartu behar bada ere eta bestean «baserria, lurra»-tzat (cf. *Agoitz*, *Aio*, *Aionis*-etik, Irigoienek, 1987: 195, argitu zuenez).

Garbi dago, baita ere, *Agoitz* eta besteren kasuan zerbait falta dela, pixka bat hagiotoponimian azaltzen diren —latineko genitibotik atera bide dira— santu izenetan bezala. Ez dugu gai honetan sakondu nahi, baina *Sandi-*, *Santi-* duten hagiotoponimo ez bakanak (*Sandiandri*, *Sandiaondore...*; *Sandiatiri*, *Santiatiri...*; *Sandijusti* —eta *Done Justi*—; *Sanditume*, *Sanditome* —eta *Done Tome*—; *Santilari*; *Sandilaurendi*; *Santitisi...*) aipatu kasu horretatik (genitibotik) atera dirateke, Irigoienek (1983: 19-20) nominatiboaren dobleteak izan zitezkeen *-i-z* bukatu aldaerak ere aipatzen zituen arren. Honек erran nahi luke, agian —eta hau ere hobeki ikertu behar den gaia da— sintagmaren ardatz den izena (*monasterium*, *ecclesia...*) ezabatua zegoela horrelako sintagmetan, hastapenean behintzat, gero araua zabaldu eta ezabaketaren beharrik ez zegoela pentsa baldin badaiteke ere.

Orobat erran daiteke *Agoitz*, *Almando(t)z*-en tankerakoez; hau da, *Agoitz*-en moduko toponimo baten kasuan pentsatu beharko dugu *fundus Aionis*-en gisako batean zegoela oinarriturik, eta gero sintagmaren ardatza zen izena desagertu zela. Aitzinago, patronimikoeekin agitzen den bezala —hauetan *Aionis filius*, *Aionis filia*-ren moduko bat proposatu behar genuke, *Agoitz* patronimikotzat ere agertuko balitzaiagu— izena desagertu eta atzizkiak kasu batean toki balioa hartuko zukeen eta bestean patronimikoarena (cf. *ilurde*, **ilurdo* izenaren gainean [*Bazcoare Ilurde* zegoen Lizarran XIV. mendean] moldatuta dauden *Ilurdotz* herri izena —Esteribar— eta patronimikoa —*Beila Illurdotz*, Leiren—), handik aurrera edozein oinarri erants zekiokoelarik. Honetarako ez dirudi latinaren esku-hartzearen beharrik dagoenik.

Gainera, eta azpimarratzekoa da, gure atzizkiak etorkiz «baserria, lurra» adierazten duenean jatorri latineko beste atzizki ezagun baten erabat kidekoa da, adibideetan ikusiko dugun gisan; Caro Barojaren begikoa zen *-ain*-ez ari gara, hain zuzen ere. Cf. adibidez, **Akut* izenaren gainean eraikirik daudekeen *Akutain* Nafarroako despoblatua (Longida; Idoate, 1958: 314) eta Jaurrietako *Akutiz* (*Eriz Akutiz*; M. Duque, 1983: 54) patronimikoa; *Berasko*-n oinarriturik dauden *Beraskoitz* (*Beskoitze* egun) Leizarraga handiaren sortuerria eta patronimikoa (*Munio Berascoiz*, *Galindo Berascoiz*, M. Duque: 1983: 25, 39; *Toda Uerascoiz*, Lacarra, 1965: 51) eta duen ur onagatik ezaguna den Nafarroako *Beraskoain* herri izena, *Belascoáin* deitua erdaraz orain eta lehen, *Blascoain* ere dokumentatua (cf. *Belasko*, *Blasko...*).

Beste adibide batzuk hauek dira:

—**Beraxa*-tik atera den *Beraxaiz* (M. Duque, 1983: 108), patronimikoa eta *Beratsain* Nafarroako herria (Atetz). Hau ez da osoki segurua baino egiantz handikoa da.

—*Eriz* (*Eritz*, itxuraz) izenetik atera den *Eriziz* patronimikoa (*Tota Ericiz*, *Sancio Ericiz de Adoain*, Martín Duque, 1983: 25 eta 52), guk dakigula herri izen bilakatu ez dena (bi *Eritze* ditugu halere Nafarroan. Mitxelenak ez zuen uste *Eriz*-ekin lotu behar zirenik, AV, 216b), eta beharbada Ibargoitiko despoplatua zen *Eriztain*, *Eristain*, aurreko **Eritzain* batetik irten zatekeena, interbertsioz.

—*Etsai* (*Etxai* aldaera palatalizatua bide dago *Echay de Ezcurra* izen dokumentatuaren azpian²) izenetik abiatuak Iruñeko dokumentazioan 1302an ageri den *Johan d'Etssaytz* dugu (García Larragueta, 1976-77: 123), eta Doneztebeko toponimia historikoan eta bizian —honetan azkenaurrekoa besterik ez dago— ditugun *Etsaitzubi*, *Etsaitzubieta*, *Etsaizbaratze*, *Etsaizlanda*, *Etsaizlarre*, *Etsaizlurra* (Andres Iñigo, 1996: 116-118). Hauekin lot liteke, agian, Anueko *Etsain* herri izena.

—*Garindo* izenetik Zuberoako *Garindein*/*Garindañe* atera dateke, eta *Garino*, *Garinno* aldaera ongi dokumentatutik (M. Duque, 1983: 13, 26, 36) Orbaibarko *Garinoain* (AV, 18). Patronimikoen artean *Garindoiz* dugu (M. Duque, 1983: 49, 102).

—*Gardel*, *Gardele*: honen patronimikoak *Gardeleiz*, *Gardeliz* dira (M. Duque, 1986: 26, 97); *-ain*-ekin *Gardelain*, *Gardalain* despoplatua dugu Oibar haranean (Salaberrri, 1994). Araban *Gardelegi* dago, beste atzizki batekin.

—Baztango *Gartzain* azaltzeko Cara Barojak (1945: 72) *García* proposatzen du, eta Mitxelenak (AV, 17, 267) ontzat hartzen duela dirudi, atzizkia dela-eta ezagunak diren oztopoak mahai gainean ezartzen baditu ere; Mikel Belaskok (1996: 210) **Gartz* pertsona izen identifikatugabearen oinarrituz azaltzen du. Gure irudiz *Garzea*, *Garze* aldaera ongi dokumentatutik abiatuta errazago azal daiteke, hau da, **Garzeani* batetik, edo atzizkia garai batetik aurrera beregaina zela onartzen bada, **Garzeain*-etik. Patronimiko ugarien artean *Garzeitz* dago.

—*Gariso* (*Garcia Gariso*, Lacarra, 1965: 110), *Galisso*, *Calisso* (*Galisso Garceiz* = *Calisso Garceiz*, ib., 77) izenetik abiatuak seguru aski Nafarroako *Garisoain* azaltzen ahalko dugu (*-ss-* izkiriaturik ageri ohi da Erdi Aroan; ikus *NHI*, 162). Ez dugu izen honen patronimikorik ediren, oraino. Mikel Belaskok (1996: 207) **Gariso* izen identifikatugabearen oinarritzen du herri izen hau, baina garbi dago izartxoaren behar handirik ez dagoela, kasu honetan.

—*Gendul(e)* izenetik abiatuak Nafarroako *Gendulain* herri izena (Esteribar, Longida, Odieta, Zizur zendea) azal daiteke (Caro Baroja, 1945: 72; Mitxelena, AV, 18). Patronimikoak *Genduleiz* (M. Duque, 1983: 64, 152), *Gendulez* (Lacarra, 1965: 3), *Genduliz* eta *Gentuliz* (latin itxuraz) dira (M. Duque, 1983: 6, 14).

—*Muniain* (Artzibar, Gesalatz, Iguzkitza): Caro Barojak proposatu (1945: 74-75) eta Mitxelenak onartu bezala (AV, 18, 457), badirudi *Munio-*

² *Echay de ezcurra*, Ezkurra, 1552, Atarrabiako protokoloak, 1. k., 82. zkia.

rekin lotu beharra dagoela. Patronimikoak, beste anitzen artean, *Munioiz* (Ciérbide, 1993: 72), *Munioz* (ib., 56) dira.

Komunikazio honetan Parisko sariketa haren testuingurua eta bertan parte hartu zuten beste lau gramatikak —berriki arte ezezagunak zirenak— aurkeztu nahi nituzke. Hasteko, Volney Sariketaren sorreraz eta orduko giroaz mintzatuko naiz eta 1829ko sariketaren ezaugarriak zehaztuko ditut; bigarrenik, aurkeztu ziren gramatiken ezaugarriak emango ditut, hala nola euren egileei buruz dakigunaren berri; hirugarrenik, epaimahaikideez hitz egingo ditut; bukatzeko, sariketaren epaiaren gorabeherak aurkeztuko ditut.

2. Volney Sariketa eta ideologoak

2.1. Constantin-François Chasseboeuf, Volney printzea (1757-1820), Frantziako ideologoen taldean sartu ohi da. Ideologoen taldeko beste kide hauek aipa ditzakegu, besteak beste¹: Antoine Louis Claude Destutt de Tracy taldeko buruzagia (1754-1836), Pierre Jean George Cabanis medikua (1757-1808), Marie François Pierre Gonthier Maine de Biran (1766-1824),

* Eskerrik beroenak datuen bilketan eta interpretazioan lagundu didaten Piedad Frías, Mari Jose Kerejeta, Beñat Oyharçabal eta Mario Saalbach-i. Nire eskerrona, orobat, zirriborrea irakurri eta beren oharrez aberastu zuten Agurtzane Elordui, Beñat Oyharçabal, Blanca Urgell eta Koldo Zuazori. Lan hau PI95/118 ikerketa-proiektuaren barruan sartzen da.

¹ Ideologoei buruz, ik., esaterako, Auroux, Désirat & Hordé (1982), Busse & Trabant (1986) eta Moravia (1974).

François Thurot filosofo eta itzultzailea (1768-1832), Joseph Marie de Gérando (edo Degérando) (1772-1842) eta Dominique Joseph Garat politikari euskalduna (1749-1833)².

Ideologoen Frantziako Iraultzaren ondoren gramatika orokor eta filosofikoaren lekukoa hartu zuten, baina euren lana ez zen hainbeste Port-Royaleko jaunek 1660an jorraturiko ildo arrazionalista kartesiarretik bideratu; aitzitik, Condillac-ek eta bestek hedatutako sentsualismo empiristan zehar mugitu ziren. Hala eta guztiz, Condillac-en ideia asko kritikatu zituzten, gogor kritikatu ere. Ideologoen ekarpenen artean gizahizkuntzaren alderdi subjektiboa nahiz alderdi soziala nabarmentzea dago —«une institution sociale» dio Destutt de Tracy-k—, nolabait ondorengo garapen ezagunak (Saussure) aurreratuz. Orobat, XIX. mendeko hizkuntzalaritza historiko eta konparatzailearen aitzindari zuzenak izatea ere nabarmendu da (ik., esaterako, Chevalier 1976 eta Rosiello 1967). Humboldt-ek, Euskal Herrira etorri aurretik Parisen izan zen urteetan (1798-1801), ideologoak ezagutu zituen eta prusiarraren lanetan euren ideien eraginaz ohartu gaitezke, nahiz eta zenbaitek (Aarsleff 1977) eragin horren pisua urrutiegi eraman duten.

Baina ideologoak ez ziren hizkuntzaren azterketaz —edo artean hertsiki loturik zegoen filosofiaz— soilik arduratu. Izan ere, euren izenak maiz agertzen zaizkigu mende-mugako Frantziako egoera politiko-sozial bereziari atxikiak: Iraultza (1789-92), Konbentzioa (1792-94), Direktorioa (1795-99), Kontsulatua (1799-1804), Inperioa (1804-14), borboien itzulera (1814-30) eta, azkenik, nonbait amaitzearen, 1830eko uztailleko iraultza burgesaren ondoren, orleanstarren dinastiaren ezartzea (1830-48). Liberalak eta aurrerakoiak izaki, ideologoak Frantziako Iraultzaren alde azaldu ziren. Orobat, Direktorioa jausiaraziko zuen Lainotearen³ 18ko kolpean parte hartu zuten; nolahi ere den, ondoren Napoleonen Kontsulatuaren eta geroko Inperioaren kontra azaldu ziren.

Ideologoak, bestalde, historia, zuzenbide, antropologia, ekonomia eta bereziki hezkuntzaz arduratu ziren (Chervel 1977; Delasalle & Chevalier 1986). Hezkuntzari buruzko arazoak sutsuki eztabaidatu ziren Iraultzako Biltzarretan, eta ideologoen zuzenean parte hartu zuten beraietan. Ondorioz, Konbentzioak gramatika orokorra sartu zuen Eskola Zentralen (*Ecoles Centrales*) —hots, bigarren hezkuntzako eskolen— ikasketa-planetan (Chevalier 1976; Désirat & Hordé 1981). Aldiz, Kontsulatuaren garaian Napoleonek Eskola zentralak itxi zituen eta Lizeoak sortu ziren; harrezkero, gramatika orokorraren ikasketak debekatuko ziren.

² Gogoan izan Garat izan zela Condillac-en lanen berrargitalpenaren (1798) bultzatzaile nagusia (Aarsleff 1975: 433). Halaber, urte berean Garatek Frantziako Akademiaren hiztegiaren hitzaurrea idatzi zuen (Auroux 1992: 370). Garaten bizitzari buruz, ik. orain Duhart-en (1997) biografia, lehen pertsona idatzia; Garaten euskarari buruzko testuez eta XIX. mendeko Dominique Garatekin izandako nahasketaz, ik. Goyhenetche (1992).

³ Iraultzak ezarritako egutegiko izenak euskaratzeko Rica Esnaolak (1975) argitaratu testuetan oinarritu naiz.

1795eko Konstituzioak —III. urteko Frutilitzaren 5eko Konstituzioak— Zientzia eta Arteetarako Institutu Nazional bat sortarazi zuen. Institutu honek II. klasean bildu ziren ideologoak, zientzia moral eta politikoez arduratzen baitzen, eta bereziki 1. atalean, «Sentsazioen eta ideien analisiari» eskainian hain zuzen ere.

2.2. Volney-k medikuntza eta historiako ikasketak egin zituen⁴. Besteak beste, geografia, nekazaritza eta meteorologia landu zituen. Hizkuntzalaritzaren arloan, bereziki Ekialdeko hizkuntza zaharrei buruz arduratu zen; horrela, Egiptora eta Siriarara bidaiara egin zuen (1782-1785). 1789an Biltzar Nazional Konstituziogilean diputatu izan zen. 1794an Historiako irakasle aritu zen Parisko Ecole Normale-n eta 1795-98 bitartean Estatu Batuetan ibili zen. Handik itzulita, Napoleonen kontra agertu baitzen, jarduera politikoa amaiera eman behar izan zion. 1814an Luis XVIII.ak Frantziako pare izendatu zuen.

Volney hizkuntzen poligenesiaren aldekoa izan zen (Aurox 1992: 49), ateo batengan baizik ezin aurki zitekeen ikusmoldea alegia. Lan gehiena Asiako hizkuntzak Europako alfabetoaren bidez transkribatzeko metodoak aztertzen eman zuen (Volney 1819b; Volney 1820). Beste lan batean, aldiz, gramatika filosofikoaren oinarriak ezarri zituen (Volney 1819a)⁵. Bestalde, William Jones-ek Kalkutan sortutako Asiatick Society-ko kidea izan zen, baina epaile ingelesak ez bezalako iritzia zuen sanskritoari buruz: izan ere, sanskritoaren ezizitiarren hizkuntza zela uste zuen (Volney 1819b: 409-410, *apud* Droixhe 1978: 11), gure artean Chahok irudikatuko zuen ikusmoldearen antzekoa, nonbait; bidenabar, Europan XVIII. mendean eta XIX. mende hasieran aski arrunta zen sanskritoaren eta ezizitiarren hizkuntzaren estekadura (ik., esaterako, Droixhe 1978: 86-99).

2.3. Volney printzeak bere testamentuan (1820/4/22an datatua) 24.000 libe-
ra utzi zituen Frantziako Institutuak sariketa bat sortzeko. Sarien bitartez bi azterketa-mota bultzatzea nahi zuen: batetik, hizkuntzen azterketa filosofikoa eta, bestetik, Asiako hizkuntzak alfabeto latindarraren bitartez («en lettres européennes») transkribatzeko saioak. Testamentuak espreski dio sariak ezin direla erabili frantses gramatikaren eta hiztegiaren azterketak bultzatzeko.

Guztiarekin ere, Désirat-ek (1988) erakutsi du sariketaren bilakaera hizkuntzalaritzaren bilakaerarekin batera joan zela, aldiari aldiko gaiei leku egin baitzitzaie. Lehenbiziko urteetan (1822-1833) sariketaren gaiak garaiko eztabaida baten inguruan kokatzen dira: Rémusat eta Humboldt-en arteko eztabaida, pentsamendu landuaren eta hizkuntz egituren konplexutasunaren arteko erlazioaz hain zuzen (ik. aurrerago §4.5.). Horrenbestez, Volney Sariketaren

⁴ Volney-ri buruz, ik., esaterako, Deneys & Deneys (1989), Désirat (1988), Désirat & Hordé (1980), Gaulmier (1951), Roussel (1988) eta Sibenaler (1992).

⁵ Azpimarratu behar da, halere, hizkuntzen azterketa filosofikoaren barruan gramatika konparatzaile hasiberria ere sartzen zuela Volneyk, beste ideologo batzuekin bat etorritik (Droixhe 1978: 228).

ildoa «hizkuntzen azterketa filosofikotik» bideratzen da, Ekialdeko idazke-
ren transkribapenaren proiektua alboratuz; urte batzuetan (1836-1840) bi hel-
buruetarako sari bana eman ondoren, 1841ean transkribapenaren proiektua
behin betiko baztertzeko baimena helduko zen⁶. Orobat, lehenbiziko urteetan
hizkuntza semitikoan azterketak saritzen direlarik, 1850-70 bitartean hizkun-
tza indoeuoparrei buruzkoak sarituko dira. Epaimahaikideak orientalistak
dira lehen urteetan; 1833tik aurrera, berriz, indoeuoperaren ikertzaileek or-
dezkatuko dituzte. Beraz, apurka-apurka sariketa aurreneko helburuetatik
urruntzen da eta, aldi berean, hizkuntzalaritza alemaniarraren pisua gero eta
nabarmenagoa gertatuko da: Pott, Steintal, Schleicher eta Bopp bezalako
autore ospetsuek lortuko dute saria, nahiz kasu batzuetan gibelamendu han-
diz (esaterako, Bopp-ek 1866an!).

2.4. Aurreko xehetasunek lagundu ahal izan digute, menturaz, Dassancek
(1922: 559) bere buruari egiten zion galderari erantzuteko: zer dela-eta hau-
tatu zuen Institutuak «euskararen sistema gramatikaren analisi arrazoitua»
1829ko sariketaren gaia izan zedin? Galdera ez zen funsgabea, gaiak ez bait-
zuen ematen, lehen begi-kolpean behinik behin, Volney-k sariketa sortzean
buruan zituenen artekoa izan zitekeenik. Hala ere, oraintsu aipatu dudan
Humboldt eta Rémusant-en arteko eztabaidaren testuinguruan koka geneza-
keelakoan nago. Zorritzarez, 1829ko sariketaren deialdiak, 1828ko apirilaren
4koak (de Sacy 1828), ez du arazo horretaz deus gehiago zehazten. Baina
bestelako datu interesgarriak eskaintzen dizkigu:

- a) Saria 1.200 liberakoa izan zen.
- b) Institut-eko kideak («membres résidants») ezin ziren sariketara aur-
keztu.
- c) Txostenak idazteko hizkuntzak frantsesa eta latina ziren.
- d) Txostenak jasotzeko epea 1829ko urtarrilaren 1 arte luzatzen zen eta
Institut-eko idazkariari bidali behar zitzaizkion, bidalketa-gastuak or-
dainduta («francs de port») jakina.
- e) Txostena identifikatzeko epigrafe edo ezaugarri moduko esaldi bat ja-
rri behar zen. Aldiz, egilearen izena, epigrafearekin batera, gutunazal
lakratu baten barruan txostenari erantsi behar zitzaion.
- f) Txostenak ez zitzaizkien egileei itzuliko, baina hauek alde zurretik
behar zituzten kopiak har zitzaizketen.

Sariketara bost txosten aurkeztu ziren eta, hasieran esan bezala, euren
artean Darrigolena suertatu zen irabazle. Beste bik ohorezko aipamena
merezi izan zuten. Ikus ditzagun jarraian txosten bakoitzaren nondik-nora-
koak.

⁶ Proiektu honen kontrako arrazoietan alfabeto unibertsalaren eta hizkuntza unibertsalaren
arteko nahasketa izkututzen da, ideologoen azken hau arbuizaten baitzuten (Désirat 1988:
340).

3. Lau gramatikak

Darrigolen gramatika aski ezaguna izan bada ere, harrigarria dirudi Volney Sariketara aurkeztu ziren gainerako lanek berriki arte Frantziako Institutuko artxiboan gordeta eta inoren interesik piztu gabe iraun izanak⁷. Darrigolen garaikideek, jakina, Parisko saria aipatu ohi zuten, baita XIX. mende osoan eta XX. mende hasieran zehar ere⁸. Adibidez, Vinsonek (1891-98: 281-282) beste lau lehiakide izan zituela ere esaten digu⁹; areago, bibliografiako 1.038 zenbakiaren pean Volney Sariketaren historia baten berri ere ematen du, Brière-rena (Brière *s.d.*)¹⁰. Baina auzi honi buruzko lanik osoena ziurrenik Louis Dassance-ren artikulua da (Dassance 1922), bertan biltzen baitira XIX. mendeko lanetan zehar sakabanaturiko oharrak, baina baita errepikatzen orduko argibideen itzalgunek ere.

Esaterako, txostenak izengabe aurkeztu zirenez, luze iraun zuen euren egiletasunari buruzko zalantzak, bereziki ohorezko aipamena lortu zuten 3. eta 5. txostenei dagokienez; beheraxeago ikusiko dugu kasu bakoitza, baina aurrera dezadan orain Darrigolen balizko lehiakideen artean Humboldt, Lécuse, Ader¹¹ eta Monlezún¹² aipatzen zirela.

Hauexek dira 1829ko Volney Sariketaren Darrigolen lehiakide izan ziren lau txostenak, Batzordeak eman zizkien zenbakien arabera aurkeztuak (Archives de l'Institut 40H10):

2. Segure, Abbé, «Dissertation sur la langue basque, envoyée au concours propose par l'Académie française, et adressée à Monsieur le Secrétaire de l'Académie française par l'individu dont le nom se trouve dans la partie cachetée de papier».

⁷ 1995eko urriaren 27an Frantziako Institutuko Artxiboan kausitu nituen, 1829ko Volney Sariketari zegokion 4H10 karpeteraren barruan, espero zitekeen bezala.

⁸ Mende honen bukaerako aipameneren hotsak azkoz apalagoak dira; baina ik., esaterako, Urkizu (1991: 56).

⁹ Bidenabar, Vinsonen bibliografiak ere Institut-en sari bat jaso zuen 1894an (Urquijo 1907: 11).

¹⁰ Vinsonek ematen dion datazioak —1829, galdera ikurrak lagundurik— agian liburua ez zuela zuzenean ezagutu edo gainbegiratu bat baino ez ziola egin pentsarazten digu; izan ere, Brière-ren liburuak 1832 arteko sariketen berri damaigu.

Bidenabar, aski nabari da Brière-ren liburuari darion amorru tonua. Brière 1827 eta 1831ko sariketetara aurkeztu zen; irabazi ez zuelarik, eta epaimahaiak egotzitako kritikek minduta, liburua idaztera deliberatu bide zuen, Volney Sariketako epaimahaiak sortzailearen gogoia betetzen ez zutela, eta betetzeko asmorik ere ez zutela, frogatzeko asmoz: «Je suis forcé à dire et de prouver à la Commission qu'elle n'a jamais compris la pensée de Volney, et qu'elle ne s'est jamais mise en devoir de la réaliser» (Brière *s.d.*: iv).

¹¹ Jean Joseph ADER baionesa (1796-1859), *Résumé de l'histoire du Béarn, de la Gascogne supérieure et des Basques* (Paris, 1826) liburuaren egilea izan zen (Bilbao 1970hh: *s.u.*).

¹² Jean Justin MONLEZÚN (1800-1859) *Histoire de la Gascogne* baten egilea izan zen (Auch, 1846-1850, 6 lib.); ik. Bilbao (1970hh: *s.u.*). 1847tik Auch-eko kalonjea izan zen.

3. Izengabea, «Analyse raisonnée du système grammatical de la langue basque...».
4. Lagarde, «Analyse du Système grammatical de la langue Basque...».
5. Görres, Ernest Maurice Guido, «Structura grammatica Linguae Hispanorum veterum indigenae id est: Vasconicae philosophice explicata nec non comparata variis tum Orientis tum Occidentis linguis».

3.1. Falta den lehen zenbakia, jakina, Darrigolen txostenari zegokion, baina eskuizkribua ez dago gaur egun Institut-eko paperen artean. Ezagutu ahal dugu, halere, Darrigolen txostena, Antoine d'Abbadiek 1833an egin zuen kopia bati esker, egun Frantziako Biblioteka Nazionalean gordetzen dena (Darrigol 1833 [1828]). Pentsatu behar dugu Abbadie-k Institut-en kopian zuela eskuizkribua, Brière-k esaten baitigu berak bertan kontsultatu zuela¹³. Gainerako lau gramatikak ezin izan ditut oraindik lasai aztertu, mikrofilmak geureganatu berri ditugu eta. Nolanahi ere den, bakoitzari buruzko zenbait xehetasun aipa ditzaket:

3.2. Abbé Segure-ren gramatika, 1828ko abenduaren 30ean jaso zuten Institutuan, Paristik bertatik bidalia. Bi koadernotan biltzen da: lehen koadernoak zenbatutako 57 orri ditu eta bigarrenak, zenbatutako 91 orrialde.

3.3. Izengabeko hirugarren txostenaren epigrafeak honako hau dio: «*Cantabrum indoctum juga ferre nostra*»; hau da, Horazioren *Oda ad Septimium II*, 6-2. Hau ere abenduaren 30ean jaso zuten eta Urkhuray-n (Lapurdi)¹⁴, abenduaren 11ko data dauka. Zenbatutako 153 orrialde ditu. Funtsean Larramendiren gramatikan oinarritzen da, eta Harrieten gramatikatik hartzen du «birdeklabinabideari» buruzkoa (*Aitarenenarenenganicoarenarena*; Harriet 1741: 449).

Txosten honek Batzordearen ohorezko aipamen bat lortu zuen. Epaimahaiak deskribapen gramatikalaren egokitasuna goraiatzan badu ere, hasierako atalek dakartzaten etimologia ausartetan ez da fidatzen, onartezinak direla deritzo:

On remarque dans le n.º 3 un grand nombre d'observations et de détails grammaticaux propres à faire juger les procédés en usage dans l'idiôme basque. On peut considérer cette partie du travail de l'auteur comme offrant les matériaux d'une bonne grammaire. Il en faudrait élaguer une foule de rapprochements étymologiques, tous plus ou moins hasardés, qui remplissent les premiers chapitres, et auxquels la Commission ne saurait accorder son approbation. (Izengabea 1829: 2)

¹³ Cf. «...j'ai dû recourir, en conséquence, au manuscrit que se trouve dans les cartons de l'Institut» (Brière *s.d.*: 91); oroit bedi Brière-ren lana 1832 ondorengo delá. Halarik ere, Brière-k «Darrigot» idazten du beti, Institut-en 1829ko epai-agirian agertzen zen moduan. Louis Dassance-ri (1922: 560) esker dakigu originala XX. mende hasierarako behintzat galdua zela. Bestalde, berak bigarren kopia bat zuela diosku, Pierre Dassance apaizarena izan zena. Nolanahi ere den, ez dirudi Institut-eko paperak zuzenean begiratu zituenik, gainerako txostenen egileen izenez ez baita ziur agertzen.

¹⁴ Kanbo eta Hazparne arteko Urkhoi auzoa da segurki (B. Oyharçabalek esana).

Txostenaren bukaeran bibliografia labur bat dator eta bertan, inprimatu-tako bertsozko lanen artean, ondoko hauek aipatzen ditu, besteak beste:

- a) Etxeberri Sarakoaren *Meditations* (Salamanca 1708).
- b) Egile berberaren *Les Nöels* (1706).
- c) Aranbururen himnoak.
- d) Larramendiren «poésies nationales» (Burgos 1729), euren artean «l'Épître au roi Philippe V» agertzen delarik.

Dubarat-ek (1913) argitaratutako gutun bati esker dakigu hirugarren txosten honen egilea Eugène Garay de Monglave (1796-1873) faltsifikatzaile ospetsua izan zela, *Altabizkarreko kantua* apokrifoen egilea, hain zuzen¹⁵. Datu honek lagundu ahal digu, menturaz, bibliografia-oharren balioa tentuz neurtzen. Izan ere, bere buruaz ere badio 200 liburu baino gehiago idatzi dituela, gehienak historiari buruzkoak, nahiz eta ezagutzen zaion lan bakarra aipaturiko kantu apokrifoa izan (ik. Goyhenetche 1993: 284), euskaldunei buruzko ohar laburren bat kendurik (Garay de Monglave 1833). Eta ohar honexek ematen digu, hain zuzen, Garay de Monglave-ren egiletasunaren gakoa. Bertan errepikatzen dira beste inon aurkitzen ez diren bibliografia-oharrok:

Entre las obras en verso impresas, se citan: 1.º, las Meditaciones religiosas del doctor Juan de Echeverri, Salamanca, 1708; [les *Nöels*] del mismo autor, 1706; los himnos del hermano Juan de Aramburu, Bilbao, 1730; los poemas nacionales del padre Larramendi, Burgos, 1729. (Garay de Monglave 1833 [1932: 293-294])

Pasarte honek, beraz, balio bikoitza du: batetik, testu-parallelotasunak Garay de Monglave-ren egiletasuna bermatzen du; bestetik, bibliografia-aipamen hauek faltsuak dira. Nolanahi ere den, ohar hauen iturria ezaguna da, gramatika osoaren iturria dena, alegia: Larramendiren *El imposible vencido*¹⁶. Larramendik «Apendiz de la Poesía Bascongada»-n, gramatikako azken kapituluan, han-hemenka aipatzen dituen poesi lanak jaso zituen Garay de Monglave-k eta datu bibliografikoak bere kasa osatu zituen, falta ziren tokian urtea eta lekua ipiniz eta Larramendiren beraren kasuan haren poesieta-rako izenburu besarkatzailea asmatuz. Halaber, Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioenezcoa Meditazio* bilakatu zuen eta, *Noelekin* batera, Sarakoari leporatu zion. Azken errakuntza honetan ez da euskalaritzaren historian bakarra suertatzen; oroit bedi Humboldt-ek ere Etxeberri biak nahastu zituela behin bederen (ik. Gómez 1996: 610).

¹⁵ Garay de Monglave-ren bizitzaz, ik. Etchecoin (1935).

¹⁶ Ene eskerrona Blanka Urgell-i, Larramendiren gramatikako azken kapituluarekiko lotura zuzenez ohartarazi baininduen.

Altabizkarreko kantuaren gorabeherak askotan kontatu dira; denbora luzez benetakotzat hartu zen (ik., esaterako, Francisque-Michel 1857: 235), harik eta Bladé-k faltsifikazioa salatu zuen arte (Bladé 1863, 1869). *Altabizkarreko kantua* lehenbiziko aldiz 1835. urtean agertu zen, Garay de Monglave-ren artikulu batean (Garay de Monglave 1835). Monglave-k kanta aurkezten du oso zaharra delakoan, Orreagako gatazkatik aurrera ahoz igorria. Eta Orreagako gatazka da, hain zuzen ere, kantaren gaia: nola euskaldunek Karlo-magnoren armada garaitu zuten. Monglave-k esan zuen, gainera, kanta hau pergamino batean ikusi zuela —la Tour d’Auvergne-k Donostian 1794an aurkitua—, baina berak ez zuela zuzenean pergaminoko testua argitaratzen, baizik eta ahozko bertsioetatik berreraikitako testu zaharra.

Jakina, hauek guztiak asmakeriak baino ez dira. Ez zegoen pergaminorik, ez ahozko tradizioirik. Egia haxe da eta Wentworth Webster euskalari ingelesak azaleratu zuen 1883. urteko artikulu batean: Garay de Monglave Baionakoa zen eta ez zekien euskaraz. Garai batean Parisen bizi izan zen; Parisen euskal ikasleen tertulietara joan ohi zen eta bertan euskal kantak entzuten zituen. Tertulia hauetarako bururatu zitzaion *Altabizkarreko kantua* idaztea eta halaxe egin zuen, baina frantsesez noski. Tertuliakide batek, Luis Duhalde Ezpeletakoak euskaratu zuen, baina honek ere ez bide zekien euskarara askorik eta ez zuen jakin ezta bertso egokietan itzultzen ere. Nolanahi ere den, badirudi faltsifikazioa zela —eta jatorriz frantsesez idatzia— aspalditxotik gauza jakina zela zenbaitentzat; Abbadie-k 1859an hala adierazi zuen behintzat (ik. Vinson 1878).

3.4. Lagardek Mauletik igorri zuen bere txostena, 45 orrialdeko koaderno bat hain zuzen ere, eta abenduaren 31n jaso zuten Institutuan.

Ezin izan dut autore honi buruzko xehetasun ziurrik aurkitu, baina baliteke Jon Bilbaoren Bibliografian aipatzen diren bi lanetariko baten —edo bien— egile bera izatea (Lagarde 1835; Lagarde 1859). Edo, agian, Mauleko diputatu eta alkate izan zen Lagarde abokatua (ik. Hourmat 1995).

3.5. Abenduaren 31n bertan jaso zen Görres-ek Munich-etik bidali zuen txostena, latinez idatzita dagoen bakarra alegia. Gramatika hau oso letra txukunez idatzita dago; orrialdeen kanpoaldeko ertzak nahiko haundiak ditu, batzuetan glosak sartzen dituelarik; koadernoak azal gogor urdinak ditu eta orrialdeak zenbatu gabe daude.

Görres-en txostenaren antolamendua aski bitxia da, garai hartako gramatiken ohiko egiturarekin alderatzen badugu behinik behin. Azkenurreko orrialdean ondoko aurkibide hau dakar:

Proemium.

Cap. I. De indole phoneticā linguae Vasconicae.

Cap. II. De radicibus verborum, primum in universum, deinde Vasconicis.

Cap. III. De derivatione et compositione.

Cap. IV. De Verbo et ejus conjugatione.

Cap. V. De declinatione et postpositionibus.

Cap. VI. De constructiones.

Batzordeak txosten honentzako ohorezko aipamena gomendatu zuen. Merezimendu gisa honako hau azaltzen du:

Le n.º 5, écrit en latin, contient beaucoup de recherches profondes et des considérations d'un ordre élevé sur la philosophie grammaticale. Le point de vue d'où l'auteur a considéré son sujet l'a conduit à des comparaisons qui attestent un esprit exercé aux méditations et aux recherches sur la métaphysique des langues. (Izengabea 1829: 2-3)

Guido Görres-en bizitzari buruzko zerbaitxo ere badakigu. Alemaniarrak, 1805ean Koblenzan sortu zen eta 1852an Munich-en hil. Bonn-en historia eta filosofiako ikasketak burutu zituen. Bere lanik ezagunena Joana Arko-koaren biografia da (*Die Jungfrau von Orleans*; Ratisbona, 1834). 1838an, Georg Philips-ekin batera, *Historisch-Politischen Blätter* aldizkari katolikoa sortu zuen, egun bizirik dirauena. Bestalde, kantu izpiritualetarako hitzak idatzi zituen (esaterako, *Marienlieder* bilduma; Munich, 1843). Askoz ezagunagoa da, ordea, Guidoren aita, Johann Joseph Görres (Koblenza 1776 - Munich 1848), Alemaniako Erromantizismo katolikoaren ordezkari nagusietakoa izan baitzen. Bere jarduera politikoa eta katolizismoaren aldarrikatzaile lana alde batera utzita, aipa daiteke Historia Naturaleko eta Fisikako irakaslea izan zela Koblenzako eskola batean (1804) eta Heidelberg-en (1806-1807); bertan ezagutu zituen mugimendu erromantikoen autore nagusiak. Erromantizismoan arrunta den Ekialdearekiko lilurak jota, persiera aztertu zuen (*Mythengeschichte der asiatischen Welt*, 1810) eta, Eliza Katolikoaren defentsaren ordainez, Historiako katedra lortu zuen Munich-eko Unibertsitatean (1826).

Baina bosgarren txosten honen egiletasuna izan da, dudarik gabe, gehien aipatu dena eta, aldi berean, ilunen gorde dena. Izan ere, Michel d'Abbadie-k —Antoine-ren aitak—, Batzordearen erabakia jakin baino lehen, Darrigoli bidali zion gutun batean honakoa adierazten dio: beste lau lehiakideen artean Humboldt, Lécuse eta Ader izan zitezkeela. Areago dena, aurreraxeago Dassance-k berak ziurtzat ematen du Humboldt-en egiletasuna: «L'auteur du Mémoire n.º 5 était, comme le faisait prévoir M. d'Abbadie, le célèbre philologue prussien Guillaume de Humboldt» (Dassance 1922: 563). Humboldt-en aipamena sarri agertzen zaigu, latinez idatzitako txosten bakar honen egiletzat ematen delarik. Susmo dut ideia horren sorburua Michel Abbadie-ren aipatu gutuna bera izan zela, hain zuzen, baina kontua da zuzenean nahiz zeharka —Pierre Dassancek idatzitako Darrigolen biografiaren bitartez (Dassance 1842)— gure egunetara iritsi zela (cf., besteak beste, L. Dassance 1922: 561, 563; Urkizu 2002: 31)¹⁷.

¹⁷ Areago dena, Urkizuk Dassance-k emandako balizko autoreen zerrenda oker bertsua erre-pikatzen du: «Akademiak deitutako Volney sarira bost lan aurkeztu ziren, egileak, besteak beste, Humboldt, Lécuse, Ader eta Garay de Monglave izan zirelarik» (Urkizu 2002: 31). Badirudi Abbadie-ren bizitza aztertzekeo Frantziako Institutura jo bazuen ere, ez zituela bidenabar bertan dauden Volney Sariaren karpetak miatu.

4. Batzordea

1829ko apirilaren 24an Frantziako Institutuaren jendaurreko bilera izan zen¹⁸, urte hartako Volney Sariketaren epaia eta hurrengo urteko gaia ezagutarazteko. Saria eman behar zuen Batzordea, bere aldetik, egun batzuk lehenago bildu zen, apirilaren 15ean. Bileran hartan agertu ziren epaimahaikideak honako hauek dira: Destutt de Tracy, Sylvestre de Sacy, Pierre-Antoine Bruno Daru, Andrieux (Frantziako Akademiako idazkaria), Etienne Marc Quatremère eta Abel Rémusat. Lehenago esan bezala, aurreneko urteetan Batzordea osatzen zutenak gehienbat orientalistak izan ziren, baita ideologoen taldekoak ere. Ikus ditzagun banan-banan bakoitzari buruzko xehetasun batzuk, epaiaren nondik-norakoak azaldu aurretik.

4.1. Antoine Louis Claude Destutt de Tracy (Bourbonnais 1754 - Paris 1836)

Destutt de Tracy Biltzar Nazionaleko diputatua izan zen (Gouhier 1970). Liberala izaki, La Fayette-ren alderdiari atxiki zitzaion. 1793an, Lazturarekin, atxilotu zuten eta heriotz zigorra ezarri zioten. Gilotinatu behar zuten baino bi egun lehenago (Berolitzaren 9an) Robespierre-k boterea galdu zuen eta honexek salbatu zuen. Lainotearen 18ko kolpearen ondoren senatore izan zen. Inperioaren garaian karguan jarraitu zuen eta borboien itzulerarekin Frantziako pare izan zen. Direktorioarekin Hezkuntza publikoa antolatzeke batzordean parte hartu zuen eta irakaskuntzaren berrantolaketa lan garrantzitsua egin zuen.

Condillac-en ikaslea izan zen. 1796an Institutuan sartu zen eta 1808an, Frantziako Akademian. Ideologoen taldeko buruzagitzat hartu izan da. Institutuan «Mémoire sur la faculté de penser» lana (1798) irakurri zuen; lan honetan azaltzen da lehenbiziko aldiz *ideologia* hitza (=‘ideien zientzia’) eta, orobat, ideologoen pentsamenduen adierazpen garbiena dela esan izan da (Aarsleff 1977: 227). Bere lan nagusia *Eléments de Idéologie*-ko bost liburu-kietan (1801-1815)¹⁹ biltzen da.

4.2. Antoine Isaac Sylvestre de Sacy (1758-1838)

XIX. mende hasieran Parisen sanskritoeko eskuizkribu-bilduma handi bat aurkitu zen eta haren inguruan Ekialdeko hizkuntzak aztertzeke gune bat sortu zen (Kukenheim 1966 [1962]: 51). De Sacy eskola horretako zuzendaria izan

¹⁸ Institutua lau akademiak osatzen zuten: Frantziako Akademia, Académie des Inscriptions et Belles-Lettres, Académie des Sciences eta Académie des Sciences morales et politiques.

¹⁹ I. *Idéologie proprement dite* (1801, 1804², 1817³); II. *Grammaire générale* (1803, 1817²); III. *Logique* (1805); IV-V. *Traité de la volonté et de ses effects* (1815). 1817ko edizioak faksimilez berrargitaratu ziren 1970ean.

zen, Léonard Chézy (1773-1832) indianista frantsesarekin batera. Ecole des langues orientales-en arabiera irakatsi zuen eta geroago persiera ere bai Collège de France-n. Ikergune horretara helduko dira gramatika konparatzailearen sortzaileak, besteak beste, Humboldt, Grimm anaiak, Schlegel anaiak eta Bopp.

Halaber, de Sacy Roseta harria aztertu zuten lehenbizikoetarikoa izan zen, baina ez zuen arrakastarik izan. Bere lanik ezagunena *Principes de grammaire générale* (Paris, 1799) da. Bertan, Cuvier-en anatomia konparatzaileari buruzko lanetan oinarriturik, *sistema* eta *egitura* bezalako kontzeptuak sartu zituen hizkuntzalaritza konparatzailean.

4.3. Pierre-Antoine Bruno Daru (Montpellier 1767 - Meulan 1829)

1784tik administrazio militarrean sarturik, zenbait kargu izan zituen; besteak beste, Napoleonen armadaren intendente orokorra (1806), Estatuko idazkaria (1811) eta Gerrako Ministroa (1813) izan zen. 1806an Institutuan sartu zen, Horazioren poemen itzulpenei eta beste lan batzuei esker lortutako ospeagatik. 1819an Frantziako pare izendatu zuten. Bere lanen artean *Histoire de la République de Venise* (1819) eta *Histoire de la Bretagne* (1826) nabarmendu ditzakegu.

4.4. Etienne Marc Quatremère (Paris 1782 - 1857)

Sylvestre de Sacy-ren arabierazko ikaslea izan zen Collège de France-n eta, ondoren, hebreerazko, siriakozko eta kaldeozko irakaslea bertan; 1832tik persierazko irakaslea Ecole des langues orientales-n. Koptoera eta egiptoera zaharra hizkuntza bat bera zirela erakutsi zuen lehenbizikoa izan zen, Champollion-en (1790-1832) hieroglifikoen dezifratzeari bidea zabalduz.

4.5. Jean Pierre Abel Rémusat (1788 - 1832)

1815etik txinerako irakaslea dugu Collège de France-n. Hizkuntzalaritzaren historian Rémusat ezaguna da bereziki Humboldt-ekin txinera dela-eta izan zuen eztabaidagatik (Delasalle & Chevalier 1986: 163-178), gorago aipatua. Hizkuntza klasikoak herri zibilizatuen eredu ziren aspaldidanik, eta txinerrak paradoxa bat eskaintzen zion ikuspegi honi: nolatan Txinako zibilizazio eta literatura zahar eta handiak hain hizkuntza sinpleaz baliatu ziren, «gramatikalik» gabeko hizkuntza batez alegia. Bestalde, idazkera ideografikoak kratilisten eta hizkuntza unibertsalen asmatzaileen lilura erakarri zuen xvii. mendean geroztik, txinerari hizkuntza filosofikoaren etiketa ezarri zitzaizolarik.

Eztabaida, funtsean, honelaxe laburbil daiteke: Humboldt-ek hizkuntzen egitura morfologikoari giza adimenaren aberastasunaren erakusgarria deritza. Rémusat-ek, aldiz, giza adimenaren indar handiena begien bistako mor-

fologiarik gabeko hizkuntzetan irudikatzen dela uste du, txinera delarik adibide garbiena. Hau da, txinera bezalako hizkuntza bat ezin da azterketa morfologiko eta sintaktikoaren arabera atxiki, sintaktikoa soilik onartzen baitu: diskurtsoan markatzen dira hitzen arteko erlazioak, irudimenak gidaturik. Hortaz, Rémusat-ek ez die hizkuntz formei garrantzi handiena ematen, baizik eta gizakien sorkuntzarako ahalmenari.

Rémusat-ek txineraren gramatika bat idatzi zuen (*Elémens de la grammaire chinoise*, 1822) eta urte berean Humboldt-ek Berlingo Akademian *Über das Entstehen des grammatischen Formen, und ihren Einfluss auf die Ideenentwicklung* txostena irakurri zuen (ik. Humboldt 1991). Rémusat-ek Humboldt-en ondorioak eztabaidatu zituen bere *Mélanges asiatiques*-en (1825) eta, beroni erantzunez, hurrengo urtean Humboldt-ek gutun luze bat bidali zion²⁰. Azkenik, 1828an Sylvestre de Sacy-k eztabaidaren iruzkina idatzi zuen *Journal des Savants* agerkarian.

5. Epaiaz

Ikus ditzagun Batzordeak epaia justifikatzeko erabili zituen arrazoiak. Lan honen hasieran esan dudan bezala, 1829ko Volney Sariaren irabazlea Darrigol izan zen. Garay de Monglave-ren eta Görres-en txostenek, bestalde, Batzordearen ohorezko aipamen bana lortu zuten.

Darrigolen txostenaren merezimenduen artean, Batzordeak euskal aditz jokoaren azalpena du bereziki gustuko (Izengabea 1829: 2). Ez da batere arraroa, aditzaren azterketa baita gramatika orokorraren zutabeetariko bat. Joera desberdinak gorabehera, gramatika orokorrean Port-Royaleko lanetatik aurrera jarraitzen den analisi bat aditz bakarraren teoria da. Luze joko luke hemen teoria horren oinarri filosofikoak eta gramatikalak azaltzeak (ik., adibidez, Auroux 1984, Donzé 1967, Joly 1972, Swiggers 1981 eta Wheeler 1995); baina ziur aski pentsa daiteke batzordekideek teoria horren erakusgarri enpirikoa ikusi ahal izan zutela Darrigolen proposamenetan, euskarazko datuek eskaintzen zieten eskema garbi, erregular eta «filosofikoan».

6. Bukatzeko

Aurkeztu ditudan ohar labur hauek, alde batetik, Volney Sariketara aurkeztu ziren gramatiken argitalpenerako aurrean gisa sortu dira; bestetik, neurri batean, Darrigolen txostenak zergatik irabazi zuen ulertzeko testuingurua

²⁰ Rémusat-ek berak argitaratu zuen gutuna, bere oharrez horniturik (Paris, 1827). Askotan argitaratu da eta zenbait hizkuntzatara itzuli ere; ik., esaterako, Humboldt-en Berlingo txostena ere biltzen duen gaztelaniazko itzulpena (Humboldt 1972).

eskaintzen saiatu naiz. Hainbat arazo utzi ditut, halere, ukitzeke, hurrengo lanen batean azaltzeko asmoz: Darrigolen bi testuen —eskuizkribuaren eta argitalpenaren— arteko erlazioa, bereziki datazioaren auziari dagokiona; sarruketara aurkeztu ziren gramatika-lan bakoitzari atxiki dakizkiokeen helburuak, metodoak eta teoriak; eta, azkenik, lanok euskalaritzaren historian eta Europako hizkuntz ideien historian kokatzea.

Bibliografia

- * Biografietarako ondoko entziklopedia hauek kontsultatu dira: *Enciclopedia Britannica*, *Britannica Online*, *Espasa*, *Literatur Lexicon*, *Robert des noms propres*.
- AARSLEFF, Hans, 1975, «The Eighteenth Century, including Leibniz», in T. SEBEOK (arg.), *Historiography of Linguistics*, 387-404, Mouton, The Hague.
- AARSLEFF, Hans, 1977, «Guillaume de Humboldt et la pensée linguistique des idéologues», in A. JOLY & J. STÉFANINI (arg.), *La grammaire générale. Des modistes aux idéologues*, 217-241, Université de Lille III, Villeneuve-d'Ascq. [Berrargit. berrikusia «Wilhelm von Humboldt and the Linguistic Thought of the French Ideologues», in AARSLEFF, 1982, *From Locke to Saussure*, 335-355, Athlone, Londres].
- AUROUX, Sylvain, 1984, «Du nom au verbe: la grammaire générale de Port-Royal à Destutt de Tracy», *Modèles linguistiques* 6:1, 11-21.
- AUROUX, Sylvain, 1992, «Introduction», in AUROUX (arg.) 1992, 11-64.
- AUROUX, Sylvain (arg.), 1992, *Histoire des idées linguistiques. Tome 2*, Mardaga, Liège.
- AUROUX, Sylvain, Claude DÉsirAT & Tristan HORDÉ (arg.), 1982, *Les Idéologues et les Sciences du Langage*, (=HEL 4:1), Presses Universitaires de Vincennes, Saint-Denis.
- BILBAO, Jon, 1970hh, *Eusko Bibliographia*, Auñamendi-EHU, Donostia-Bilbo.
- BLADÉ, Jean François, 1863, «Dissertation sur les chants héroïques des Basques», *Revue d'Aquitaine* 7, 5-17, 137-144, 189-197, 224-231. [Separata: A. Franck, Paris, 1866].
- BLADÉ, Jean François, 1869, *Études sur l'origine des Basques*, A. Franck, Paris. [Berrargit. faksim. Slatkine-Megariotis, Marseille, 1976].
- BRIÈRE, (de), s.d. [1832>], *Histoire du prix fondé par le Comte de Volney*, Dondey-Dupré, Paris.
- BUSSE, Winfried & Jürgen TRABANT (arg.), 1986, *Les Idéologues. Sémiotiques, théories et politiques linguistiques pendant la Révolution française*, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- CHERVEL, André, 1977, *Histoire de la grammaire scolaire. ...Et il fallut apprendre à écrire à tous les petits Français*, Payot, Paris.
- CHEVALIER, Jean Claude, 1976, «Les idéologues et le comparatisme historique», in H.J. NIEDEREHE & H. HAARMANN (arg.), *In Memoriam Friedrich Diez*, 175-195, John Benjamins, Amsterdam.
- [DARRIGOL, Jean-Pierre], [1827], *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*, Duhart-Fauvet, Baiona.
- DARRIGOL, [Jean-Pierre], 1833 [1828], «Analyse raisonnée du Système Grammatical de la langue Basque», Bibliothèque Nationale (Celt et Basque, 152), Paris. [Antoine d'Abbadie-k eginiko kopia].

- DASSANCE, Louis, 1922, «L'Abbé Darrigol et le Prix Volney de 1829», *GH* 2, 557-565.
- DASSANCE, Pierre, 1842, «Darrigol», in *Bibliographie Universelle Michaud*, X, 141-142, Paris.
- DELASALLE, Simone & Jean-Claude CHEVALIER, 1986, *La linguistique, la grammaire et l'école, 1750-1914*, Armand Colin, Paris.
- DENEYS, Henry & Anne DENEYS (arg.), 1989, *Volney: 1757-1820: textes, études, documents et notes*, (= *Corpus* 11-12), Fayard, Paris.
- DÉSIRAT, Claude, 1988, «Le rôle du prix Volney dans l'institution de la linguistique», in ROUSSEL (arg.) 1988, 335-343.
- DÉSIRAT, Claude & Tristan HORDÉ, 1980, «Le marché des écritures», *Langue française* 48, 75-88.
- DÉSIRAT, Claude & Tristan HORDÉ, 1981, «La fabrique aux élites: Théories et pratiques de la grammaire générale dans les écoles centrales», *Annales historiques de la Révolution française* 243.
- DONZÉ, Roland, 1967, *La grammaire générale et raisonnée de Port-Royal. Contribution à l'histoire des idées grammaticales en France*, A. Franke, Berna. [Gazt. itz. Eudeba, Buenos Aires, 1973].
- DROIXHE, Daniel, 1978, *La linguistique et l'appel de l'histoire (1600-1800)*, Droz, Genève.
- DUBARAT, Victor, 1913, «Lettre sur l'abbé Darrigol, auteur basque (1829)», *RIEV* 7, 467-468.
- DUHART, Mixel, 1997, *Yo, Domingo José Garat*, Txertoa, Donostia.
- ETCHECOIN, J., 1935, «Garay de Monglave», *GH* 15, 191-192.
- FRANCISQUE-MICHEL [=Michel, François-Xavier], 1857, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, F. Didot, Paris. [Berrargit. faksim. Hordago, Donostia, 1981 eta Elkar, Donostia, 1994].
- GARAY DE MONGLAVE, Eugène, 1833, «Basques», in *Dictionnaire de la conversation et de la lecture*, IV, 423-426, Belin-Mandare, Paris. [Martín de Anguiozarren gazt. itz. aipatzen dut: *RIEV* 23 (1932), 289-297].
- GARAY DE MONGLAVE, Eugène, 1835, «Le chant d'Altabiçar», *Journal de l'Institut historique* 1, 174-179.
- GAULMIER, J., 1951, *L'Idéologue Volney*, Beyrouth.
- GÓMEZ, Ricardo, 1996, «La aportación de W. von Humboldt a la gramática vasca», *RIEV* 41:2, 607-622. (= J. AGIRREAZKUENAGA & J. AZURMENDI (arg.), *W. von Humboldt: un puente entre dos pueblos. Hezkuntza, hizkuntza, Euskal Herria. Oñati*, 1995, Eusko Ikaskuntza, Oñati).
- GOUHIER, Henri, 1970, «Introduction historique», in DESTUTT de TRACY, [1817], *Éléments d'idéologie. I. Idéologie proprement dite. II. Grammaire*, 5-15, J. Vrin, Paris.
- GOYHENETCHE, Jean, 1993, *Les basques et leur histoire. Mythes et réalités*, Elkar, Donostia-Baiona.
- GOYHENETCHE, Manex, 1992, «Des frères Garat à Dominique Garat: lengoia berri bat», *Cuadernos de Sección. Historia y Geografía* 19, 97-162.
- HARRIET, Martin, 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitz-cunça ikhasi nahi dutenen faboretan*, Fauvet Alarguna eta J. Fauvet, Baiona.
- HOORMAT, Pierre, 1995, «Maule eta Zuberoa XIX. mendeko erdialdean», in P. BILDART (arg.), *Zuberoako historia*, 203-269, Gaiak, Donostia.
- HUMBOLDT, Wilhelm von, 1972, *Sobre el origen de las formas gramaticales y sobre su influencia en el desarrollo de las ideas / Carta a M. Abel Rémusat sobre la*

- naturaliza de las formas gramaticales en general y sobre el genio de la lengua china en particular*, C. Artal-en itzulpena, Anagrama, Bartzelona.
- HUMBOLDT, Wilhelm von, 1991, «Sobre la génesis de las formas gramaticales y su influencia en la evolución de las ideas», in *Escritos sobre el lenguaje*, 67-100, [A. Sánchez Pascual-en arg. eta itz. eta José María Valverde-ren hitzaurrea], Península, Bartzelona.
- IZENGABEA, 1829, *Institut Royal de France. Séance publique annuelle des Quatre Académies, ... Jugement sur le Concours de 1829 et Programme du prix pour l'année 1830*, Archives de l'Institut de France (40H10), Paris.
- JOLY, André, 1972, «Introduction», in J. HARRIS (arg.), *Hermès, ou recherches philosophiques sur la grammaire universelle*, 1-144, Droz, Genève.
- KUKENHEIM, Louis, 1966 [1962], *Esquisse historique de la linguistique française et de ses rapports avec la linguistique générale*, Université de Leyde, Leiden. [Bigarren argit. zuzendu eta osatua].
- LAGARDE, Abbé, 1859, *Une saison d'été à Biarritz. Biarritz autrefois. Biarritz aujourd'hui. Tableaux historiques et descriptifs. Anecdotes. Séjour de la Cour impériale, etc. par un habitué des bains de mer de Biarritz*, Lamainière, Baiona.
- LAGARDE, Prosper de, 1835, *Voyage dans le Pays Basque et aux bains de Biarritz... contenant des observations sur la langue des Basques, leurs moeurs, leur caractère, etc.*, Audin, Paris.
- LARRAMENDI, Manuel, 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, A. J. Villagorde, Salamanca. [Berrargit. faksim. Hordago, Donostia, 1979].
- MORAVIA, Sergio, 1974, *Il pensiero degli Ideologues. Scienza e filosofia in Francia (1780-1815)*, La Nuova Italia, Firenze.
- RICA ESNAOLA, Margarita, 1975, «Traduction en Basque de termes politiques sur la Révolution», *ASJU* 9, 3-172.
- ROSIELLO, Luigi, 1967, *Linguistica iluminista*, il Mulino, Bologna.
- ROUSSEL, Jean (arg.), 1988, *L'Héritage des Lumières: Volney et les idéologues*, Université d'Angers, Angers.
- SACY, Sylvestre de, 1828, *Institut Royal de France. Séance publique annuelle des Quatre Académies, ... Rapport sur le concours de 1828 et Programme du prix pour l'année 1829*, Archives de l'Institut de France (40H9), Paris.
- SIBENALER, Jean, 1992, *Il se faisait appeler Volney: approche biographique de Constantin-Françoise Chassebeuf, 1757-1820*, Hérault, Maulévrier.
- SWIGGERS, Pierre, 1981, «La théorie du verbe dans la Grammaire de Port-Royal», *Zeitschrift für französische Sprache und Literatur* 91. 357-362.
- URKIZU, Patri, 1991, *Introducción a la Filología Vasca*, UNED, Madril.
- URKIZU, Patri, 2002, *Anton Abbadia 1810-1897. Biografia saioa*, Bilboko Udala, Bilbo.
- URQUIJO, Julio de, 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*, Geuthner, Paris. [Berrargit. faksim. RIEV 28 eta LGEV, Bilbo, 1976].
- VINSON, Julien, 1878, «Les chants historiques basques», *Avenir des Pyrénées* (1878/05/2, 4, 7, eta 9). [Berrargit. in A. HOVELACQUE, E. PICOT & J. VINSON, 1880, *Mélanges de Linguistique et d'Anthropologie*, 161-174, E. Leroux, Paris].
- VINSON, Julien, 1891-98, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Maisonneuve, Paris. [= Berrargit. faksim. liburuki bakarrean eta J. Urquijoren oharrekin (ASJU-ren gehigarriak, 9), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1984].
- VOLNEY, Constantin-François, 1819a, *Discours sur l'étude philosophique des langues*, in *Oeuvres complètes I*, Bossange, Paris, 1824-1825.

- VOLNEY, Constantin-François, 1819b, *L'Alphabet européen appliqué aux langues asiatiques*, in *Oeuvres complètes VIII*, Bossange, Paris, 1824-1825.
- VOLNEY, Constantin-François, 1820, *L'Hébreu simplifié par la méthode alphabétique*, in *Oeuvres complètes VIII*, Bossange, Paris, 1824-1825.
- WEBSTER, Wentworth, 1883, «Altabiskarco Cantua», *Boletín de la Academia de la Historia* 3.138-153.
- WHEELER, Garon, 1995, «Port-Royal Tradition of General Grammar», in E. F. K. KOERNER & R. E. ASHER (arg.), *Concise History of the Language Sciences: From the Summerians to the Cognitivists*, 169-174, Pergamon, Oxford-New York.

ABSTRACT

Four Basque grammars and one prize

The aim of this paper is to present the four Basque grammars that, together with Darrigol's one, entered the *Prix Volney* of 1829 in Paris, as well as to outline the context in which that competition took place. Since then, these four grammars have remained in the Archives of the Institut de France, and apparently no attention has been given to them by any bascologist. Firstly, I deal with the group of the *idéologues*, in which the prince Volney has been included, and I explain briefly Volney's biography and the constitution of the prize that took his name; next, I consider the 1829 edition, whose subject was the «reasoned analysis of the grammatical system of the Basque language». Then, I offer some data on the four grammars that competed with Darrigol's one and give evidence of what we know about each author, which may help to clarify some doubts on the authorship of some of these works. Finally, I stop for a while with the members of the commission that decided to grant the prize to the grammar of Darrigol, and with the possible reasons behind that decision.